



2013-03-27
EGUAZTENA
547. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Aita santu
berriak Elizari
irudi ona
eman dio"

Inazio Arregi
Jesuita | 8



Doluaren
gaineko bloga,
gurean sortua

Gure Txikixak izena
du; umea galdu
dutenek egin dute | 3

Oñatiko bertso-filma,
publikoaren gustukoena | 23



Makrobiotika: dieta bat baino gehiago, bizitza
ulertzeko eta interpretatzeko modu bat | 2



Copreci kooperatibak kalea
izango du Aretxabaletan | 15

BORROKAREN OSTEAN, BAREALDIA

Maidar Unda borrokalaria,
Europako Txapelketan
zilarra lortu eta gero, finalean
sartzeko helburuarekin joango da
hurrengo lehiara: "Han ez da
errusiarra egongo", dio, barrez | 21



Tbilisin (Georgia)
jokatutako
txapelketatik
bueltan, atzo,
martitzena,
kiropraktikoaren
kontsultan izan zen
Oletako
borrokalaria,
Arrasaten.

JULEN IRIONDO

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko
dugu domekan: goizeko ordu
bietan, hirurak izango dira. Ez
ahaztu!

SINADURAK



ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 5 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 20 |
KULTURA 23 | ZURE IRAGARKIAK 27 |
TELEBISTA-IRRATIA 28 | ESKELAK 29 |
NON-ZER 30

Euskal Herriko Itzuliak hiru etapa izango ditu ibarrean

Apirilaren 1etik aurrera zeharkatuko dituzte
ziklistek gure ibarreko errepideak | 20

APIRILAREN 8RA ARTE, PARENTESIA

Aste Santuko
oporraldia
dela-eta, hurrengo
GOIENA apirilaren
8an, astelehena,
argitaratuko dugu.
Ondo izan!

Makrobiotika: dieta bat baino gehiago, bizitzan oreka lortzeko metodoa

Azken urteotan gorakada nabarmena izan duen arren, 100 urte baino gehiago ditu

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Egunero, tabernetan edo mahai baten bueltan milaka dietaren inguruan hitz egiten da. Dukan, orburuarena, proteikoa... Horien artean, askotan, makrobiotikoa ere sartzen da, baina makrobiotika dieta bat da? Bada, Egoitz Garro irakasle eta kontsultore makrobiotikoak oso definizio ezberdina dauka: "Makrobiotika bizitza ulertzeko eta interpreta-tzeko modu bat da".

Ez zaio arrazoirik falta; mundu honetan, kanpokoari ematen diogu garrantzia, eta makrobiotikak horren kontra egiten du. "Barnetik kanpora lan egitean, jendeak aldaketa handia nabaritzen du", dio. Hori lantzeko, baina, elikadura ez da makrobiotikak lantzen duen aspektu bakarra. Garrok, kontsultetan, elikadura, akupuntura, sendabelarrak, oligoelementuak eta biodeskodeketa erabiltzen ditu.

Garrok, gainera, *dieta* hitza bere lexikotik atera du. Hark argi dauka: "Dieta jarraibide itxi bat da eta makrobiotikan ez dago horrelakorik; gure jateko era uste baino zabalagoa da". Horren erakusle garbia da makrobiotikak duen errezeta-liburu zabalak. Dena den, gaitz gogor baten aurrean, makrobiotikak jan-neurri zorrotza ezartzen dio



Zenbait produktu makrobiotiko. | IMANOL GALLEGU

gaixoari. Hala ere, kasu gehienetan ez dago horren zorrotza izateko beharrik. Lima Oshawa makrobiotikaren sortzailearen emazteak zioen moduan: "Ez itzazu kate batzuk kendu, gero berri batzuk jartzeko".

Gure bizimodua izaeraren eremu sinpatikoan zentratzen da. Eremu hori gehiegi estimulatzen da, eta, ondorioz, estresatu egiten da. Makrobiotikak

eremu parasinpatikoa jorratzen du maila kontziente eta subkontzientean lan egitean, pertsona barrutik asebetetzen da eta osasunak eta kanpoaldeak asko igartzen dute.

Ez dago miraririk

Kasu askotan, jendeak gaixo dagoela jotzen du makrobiotikara. Garrok argi dauka: "Ez dago miraririk". Ondoren, baina, "zen-

bait kasutan minbizia gaintitzea lortu da makrobiotikaren bitartez". Garrok emandako nabardura garrantzitsua da. Makrobiotikak sendatu egin dezake, baina ez du guztia sendatzen. "Askotan, jendea hil egiteko prestatu beharra dago"; ezin da guztia sendatu. Medikuntza modernoak, askotan, heriotza tabu gisa dauka. Makrobiotikak, aldiz, heriotza bizitzaren parte bezala ikusten du.

ESANAK

"Makrobiotika bizitza ulertzeko, interpretatzeko, modu bat da"

EGOITZ GARRO
MAKROBIOTIKAN KONTSULTOREA
ETA IRAKASLEA

"Ez itzazu kate batzuk kendu, gero berri batzuk jartzeko"

LIMA OSHAWA
MAKROBIOTIKAREN
SORTZAILEAREN EMAZTEA

Makrobiotika gozoa da

Produktu makrobiotikoekin errezeta gozoak egiteko aukera ugari daude. Askotan kontsultoreek zabalitzen dituzte zenbait errezeta, baina Trini Freirek produktu makrobiotikoak bakarrik erabiliz bere sagar-tarta sortu du.

SAGAR-TARTA MAKROBIOTIKOA

- Denbora: 40 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

MASAREN OSAGAIK

- Irin integrala, 500 g.
- 2-3 sagar.
- Datilak, 100 g.
- Mahaspasak, 100 g.
- Arroz-melaza, 3 koilarakada handi.
- Gatz apur bat.

KREMAREN OSAGAIK

- Arto-irina, 2 sobre txiki.
- Arrozaren esnea.

PRESTAKETA

1. Datilak eta mahaspasak uretan jarri.
2. Irina eta gatza urarekin nahastu.
3. Crema egiteko: arto-irina eta arrozaren esnea nahastu.
4. Masa zabaldu eta krema jarri.
5. Mahaspasak, datilak eta sagarra jarri.
6. Melaza-geruza jarri.
7. Labean, 200 graduan, 15 minutu.

ESPE ARRIARAN | BIOTIKAKO JABEA

"Garbiago jaten den heinean argaldu egiten zara, baina ez da dieta bat"

Merkataritza munduan ibilbide luzea du Espe Arriaranek, baina Biotika ezberdina da. Duela 3 urte Arrasateko plazan parafarmazia zabaldu zuenetik, bere bizitza produktu ekologikoek, sendabelarrek... bete dute. Arriaranek argi dauka; jendearen osasuna hobetzeko lan egiten du.

Zer da Biotika?

Botika biologiko bat da, horregatik aukeratu nuen izen hau. Ahal den neurrian, produktu biologikoak saltzen saiatzen naiz.

Osasuntsu egoteko, elikadurak nolako garrantzia dauka?

Erabatekoa. Osasuntsu egoteko, ongi jateaz gainera, produktu onak jatea beharrezkoa da.

Makrobiotika hortik hasten da, ezta?

Bai, makrobiotikak hobeto jaten erakusten dizu.

Azken urteotan makrobiotika oso modan jarri da.

Hala da, iguera dezente igarri da. Lehen ez zen horrenbeste hitz



egiten, baina orain jende askok galdetzen du makrobiotikaren inguruan.

Jendeak badaki zer den?

Makrobiotikaren inguruan ideia orokor batekin iristen dira hona. Zenbait kasutan, errezetaren bat edo beste ekartzen dute, eta, bestela, guk ematen dizkiogu.

Argaltzeko dieta bat da?

Egia da garbiago eta hobeto jaten duzun heinean argaldu egiten zarela, baina hori ez da makrobiotikaren helburua. Bizi izateko modu bat dela esango nuke.

TRINI FREIRE | MAKROBIOTIKOA

"Aldaketak nabarmenak izan dira; orain, erresistentzia handiagoa daukat"

Trini Freire beti izan da produktu naturalen aldekoa. Duela urte batzuk bizimodu begetarianoa probatu ostean, makrobiotika ezagutu zuen, eta, hark dionenez, "bizitza aldatu" dio. Topikoetatik urrun, janari makrobiotikoa "oso gozoa" dela dio Freirek.

Nola ezagutu zenuen makrobiotika?

Bi laguneren bitartez. Haiek osasun arazo bategatik sartu ziren, eta horrela ezagutu nuen, baina nire bikotekide ohia ezagutu arte ez nintzen makrobiotikaren munduan sartu.

Aldaketarik sumatu duzu?

Sekulakoa! Lehen, urdaileko arazo ugari izaten nituen. Gainera, orain, hobeto egiten dut lo eta kirol arloan aldaketa erabatekoa izan da. Indartsuago nago, erresistentzia handiagoa daukat, kontraktura gutxiago daukat... zerrenda luzea egin dezaket.

Nola bizi duzu makrobiotika etxetik kanpo?



Uste baino errazagoa da. Egune-ko menu guztietan pasta edo arroza egoten da, hori arrainarekin jan dezakezu. Postrerik ez dut jaten eta ezkontzetan okela ondo-koari ematen diot. Hurrengo egunean arroza, eta kito.

Eta alkohola?

Alkoholak digestioa egiten laguntzen du. Betiere, neurritz edanez gero eta kalitate onekoa bada.

Dieta bat baino gehiago da?

Nik filosofia bat dela esango nuke. Helburua nork bere bizitzaren oreka berreskuratzea da.

Eguraldi aldakorra izango dugu egunotan

U.M. | DEBAGOIENA

Bihar hasiko diren Aste Santuko jaiegunei begira eguraldiak aparteko garrantzia hartzen du, bai aisialdiari begira, eta baita prozesio eta bestelakoei begira ere asko baldintzatzen duelako gure egitekoa.

Bada, labor esanda, eguraldi aldakorra da datozen egunotan izango duguna. Hala azpimarratu du Pello Zabala eguraldi adituak.

Eguzkia eta euria

"Egunetik egunera aldatu egiten da. Orokorrean, segurtasunik eza ikusten dut. Txandaka ibiliko da eguraldia; izan ere, borrasaktoak dabilta inguruan. Eta haiek dantzariak izaten dira. Badatozela ikusten da bezperan, baina hurrengo egunean beste norabide bat hartu dutela ikusten da. Beraz, borrasaktoak gurera etorri gero, euria ekarriko dute eta etorri ezean, eguzkia. Esan daitekeena da frontean bada tozela. Eta bien bitartean eguzkia izango dugula. Udaberri giroa izango dugu, bada: eguzkia eta euria, denetik apur bat. Eta lehenago ikusten zen elurretarako joerarik ez du izango", kontatu du Zabalak.

Egun zehatzei dagokienez, berriz, "osteguna ikusten da egunik politena".

Temperaturak finko samar

Eta temperaturei begiratuta, hortxe ikusten du frantziskotarrak egonkortasun apur bat: "Eguraldi aldakorra izan arren, goizean temperaturak 7-10 graduren bitartean ibiliko dira, eta, egunak aurrera egin ahala, 14-18 gradu artean ibiliko dira, eguzki-euriaren arabera".

Kristina Pavo | Gure Txikixak blogaren egileetako bat

"Bizi izan dugunak eman digun esperientziak bihurtu gaitu 'aditu'"

- Doluaren gaineko bloga egin dute Debagoieneko lau familiak
- Jaiotzean edo lehenago umea galdu dutenei zuzendutakoa da, bereziki

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Dolu perinatalari buruzko bloga landu dute lau bikote debagoien-darrek. Gure Txikixak da jarri dioten izena, eta blogaren hasieran lau izen azaltzen dira: Ihintza, Jakes, Xabi eta Ekaitz. Bloga erabilgarri dago honako helbidean: <http://guretxikixak.org/>.

Blogaren abiapuntuaren jatorria lau izenotan dago, ala?

Bai, jaiotzerakoan, lehentxeago edo jaio eta berehala hil ziren gure txikien izenak dira. Lau familiok beste seme-alaba batzuk ere baditugu, baina horiek ere gure seme-alabak dira, nahiz eta orain fisikoki gurekin ez egon. Izena nolabaiteko errekonozimendu modu bat da, eurentzat, eta baita guretzat ere.

Zela ezagutu zenuten elkar?

Lau familiak Debagoienekoak gara, hiru herri berekoak. Lehendik ere nolabait elkar ezagutzen genuen, eta, kate bat bezala, elkarri lagundu nahian topo egin dugu gertatu zaigun esperientzia gogor hau dela-eta. Elkarrekin gure esperientziak konpartitzeak izugarri lagundu digu. Dolu prozesua luzea eta gogorra da, baina lau familiok elkarri babesa eta laguntasuna ematea oso esperientzia polita izan da.

GureTxikixak da blogaren izena, baina barruan maite dugun gale-rei buruz ere egiten da berba...

Bai, gure gai zehatza heriotza eta dolu perinatala da, baina helburretako bat bada heriotzaren gaia gizarteratzea; izan ere, heriotzak berak gai tabua izaten jarraitzen du. Heriotza bizitzan lehenago edo geroago tokatuko zaigun gaia izanik, ez dugu heriotzaz hitz



Gure Txikixak blog-egileak. Kristina Pavo da goiko lehena, ezkerretik | G. TXIKIXAK

"Gizartearentzat ez dago umerik, ez da ezer gertatu, baina bai, gertatu da"

egiten, ez dakigu zer esan, ezkatu egiten dugu... Blogean heriotzari buruzko informazio orokorra ere eman nahi izan dugu, beraz. **Zuek elikatzen duzue bloga?** Bai, ikasi dugun guztia eta iturri ezberdinetatik jaso dugun informazioa partekatu nahi dugu egoera horretan dauden guraso, inguruko eta gizartearekin. Horrez gain, prozesuan ezagutu ditugun aditu (psikologo, emagin...) eta beste elkarre batzuetako pertsonen laguntza izango dugu tarteka.

"Heriotzaren gaiak tabu izaten jarraitzen du gure gizartearen"

Antzerako bizipena izan duten gehiagok parte hartu ahal dezakete?

Noski. Testigantzak utzi eta euren kezak, galderak, ekarpenak... egin ditzakete eta ahal dugun heinean erantzun eta lagunduko diegu. Blogean adierazten dugun bezala ez gara medikuak, psikologoak, psikiatruk... ez gara adituak; gurasoak gara eta bizi izan dugunak eman digun esperientziak bihurtu gaitu nolabaiteko "aditu". Esperientzia gogor horretatik

pasa behar dutenei bidea erraztu nahiko genieke.

Zein elementu ditu blogak?

Batetik, gaiaren inguruko informazioa jarriko ditugu aldika blogean, albiste formatuan: artikulak, bideoak, ikastaroak... Bestetik, atal bereziak ere baditu. Testigantzak: geure testigantzak jaso ditugu eta nahi duen guztiak dauka berea idazteko aukera. Atal garrantzitsua da, izan ere, ulertuak ez sentitze horretan, garrantzi berezia dauka antzerako egoera bat bizi izan duenaren bizipena irakurri eta identifikatuta sentitzeak. Gomendioak: gure ikuspegitik, modu xumean, gomendioak ematen ditugu guraso eta ingurukoentzat; profesionalen gida bat ere erabili dugu, euskarara ekarrita. Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk ere zerrendatu ditugu, ospitaleko protokoloa, laguntza psikologikoa eta dolu-laguntza... baita alderdi "praktikoagoei" buruz ere, hala nola, amatasun eta aitatasun bajak, erregistroa, umearen kargu egiteko eskubi-dearen gainean eta abar. Material lagungarria: artikulua, liburu, bideo, txosten, lotura interesgarriak... material ugari eskaintzen ditugu.

Besterik gaineratu gura duzue?

Heriotzaren gaia tabu da gure gizartearen. Gure kasuan, gainera, guk ez beste inork ezagutu ez dituen umeak dira eta jendeak ez du jakiten zer egin edo zer esan horrelakoetan. Askok azkar ahaztea eskatzen dute, eta sozialki baimen bako dolua bilakatzen da, nolabait ezereztu egiten baita, ez da gaiaz hitz egiten. Gizartearen babes ezaren adibideetako bat da, esate baterako, batzuetan ezin izan ditugula gure umetxo horiek gure familia-liburuetan inskribatu. 24 ordu bizi ez bada, ez da existitzen, "fetu" kontsideratzen da. Gizartearentzat ez dago umerik, ez da ezer gertatu, baina bai, gertatu da. Gure txikiak hil zaizkigu: Ekaitz, Xabi, Ihintza eta Jakes. Eta hori behar dugu, errekonozitzea guraso garela eta horiek gure seme-alabak direla, zoritxarrez gurekin orain ez dauden arren.

Munilla, San Juan de Dios ospitalekoekin

Jose Inazio Munilla gotzaina Arrasaten izan zen atzo, martitzena. Hain zuzen ere, Gesalibar auzoan dagoen San Juan de Dios ospitale psikiatrikoan izan da bisitan Gipuzkoako gotzaina. Bertako langile eta gaixoei egon zen, besteak beste, instalazioak ikusten. Horrez gainera, meza esan zuen goizean eta ondoren hitzaldia egin zuen. Gaia izan zen bizi dugun ekonomia krisiaren aurrean, Elizak gizarteari, eta kasu horretan, Arrasateko ospitaleari zer duen eskaintzeko. Balioak ere hizpide izan zituen gotzainak.



RUBEN CUESTA

Debagoiengan ere izango dira aisialdirako aukerak egun hauetan

RUBEN CUESTA | DEBAGOIENA

Aste Santuan eta Pazko astean inguruan geratzen direnak edo gurera datozenak aintzat hartuta, aisialdiarekin lotutako hainbat eskaintza gertu ditu Debagoieneko Mankomunitateak.

Esaterako, gastronomia gustuko dutenendako eta eskualdeko produktuak oinarri hartuta, Debagoieneko zortzi jate-txek menu bereziak eskainiko dituzte apirilaren 7ra arte. Eta hainbat produkturen ekoizpen prozesua ezagutzeko aukera ere izango da. Menuetan bildotsa, Debagoieneko ardi esnekiak eta peilak sartuko dituzte. Hori

guztiori Debagoieneko XIII. Jardunaldi Gastronomikoen barruan landuko dute.

Bisita gidatuak

Bestalde, bisita gidatuak antolatuko dituzte gure ezkutuko altxorrek ezagutzeko. Apirilaren 6an, adibidez, Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko kape-ra ezagutu ahal izango da eta apirilaren 7an, berriz, Bergarako dorretxe eta jauregiak.

Eta horrez gainera, ibarreko museo eta turismo bulego gehienek egunero zabalduko dituzte ateak bisitariendako. Informazio gehiago: www.turismodebagoiena.com helbidean.

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Eusko Jaurlaritzak deialdia egin du 20-30 urte bitarteko gazteei begira, udarako antolatuko duen Euskadiko Gazteak Lankidetzan izeneko programa eskaintzeko. Amerika, Afrika eta Asiako zenbait herritan egingo dituzten garapen ekintzetan parte hartze-ko aukera eskaintzen du programak, hiru hilabetez: uztailetik urrira bitartean. Gehienez jota, 100 gazte behar dituzte horretarako. Izen-ematea bihar, eguena, zabaldu eta apirilaren 27an itxiko da, helbide honetan: www.gazteukera.euskadi.net.

Baldintzak

Ekimenaren helburua da "Euskadiko gazteen artean elkartasunaren balioa sendotzea eta garapenerako ekintzen inguruko sentsibilizazioa sortzea", bertatik bertara lantzen diren garapen programetan parte hartuta.

Parte hartzeko baldintzak, berriz, lau dira: 1983 eta 1993 artean jaio izana, bi urte horiek barne; jarduera egingo den herrialdeko nazioarteko hizkuntza menperatzea; ez edukitzea laguntza publikoak lortzea galarazten duen zigor penal edo administratiborik, ezta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik ere, sexu bereizkeriaren ziozko zigor administratibo edo penalak barne hartuta, eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izatea edo, bestela, euskal izaera politikoa izatea.

Euskal Herrian edo munduan, udan abenturak bizi ahalko dituzte gazteek

- ▶ Jaurlaritzak Amerika, Afrika eta Asiako proiektuetara bideratuko ditu 100 gazte
- ▶ Euskara elkarrekin Euskal Herriko hainbat txoko gertu dituzte gazteendako



Lander Juaristi (Txatxilipurdi), Miren Etxeberria (Jardun) eta Maite Kintanilla (Pil-Pilean). | JAGOBA DOMINGO

Udako Abenturak, gazteen balioak indartzeko

Abentura ahaztezinak bizi izateko aukera eskaini diete ibarreko gazteei Arrasateko Txatxilipurdi, Bergarako Jardun eta Sorluzeko Pil-Pilean euskara elkarrekin, euskara lokarri bezala izango dituzten udalekuetan. Eskaintza hiru adin tartetako gazteendako da; 9-12 urtekoak Zerainera joango dira; 12-14 urtekoak Arabako Otaza auzoko Garaion proiektuan parte hartuko dute edo Txatxilipurdik antolatutako Orioko Zingira kanpinera joan ahal izango dira; eta 14-16 urte artekoak *Kosta ala Kosta* abenturan parte hartuko dute: Ozaetatik Zarautzera

joango dira oinez. "Sinesten dugu eskolaz gainera, gazteen denbora librean ondo pasatuaz balio batzuk transmiti ditzakegula, eta udalekuetan ditugu momentu magikoak hori lortzeko", adierazi du Lander Juaristik, Txatxilipurdiko kideak. Hala, euskararen erabilera sustatzeaz gain, besteak beste, gazteen autonomia, naturarekiko harremana, hezkidetzeta eta kultur aniztasuna landuko dituzte Udako Abenturak udalekuetan.

Izena maiatzaren 10a aurretik eman behar da, tokian tokiko euskara elkartean.

Jaurlaritzaren kontura

Jarduera egin beharreko herrialdeko gobernu kanpoko erakundeekin (GKE) elkartu arteko bidaia-gastuak (joan-etorrikoak), bisa, zein gaixotasun eta istripuetarako aseguruak Eusko Jaurlaritzaren kontura izango dira. Eta lankidetzeta-programak irauten duen bitarteko ostatu gastuak, berriz, gobernu kanpoko erakundeak ordainduko ditu.

Aukeraketa prozesua

Izena ematen duten gazte guztien artean aurre-aukeraketa egingo du Eusko Jaurlaritzak. Bigarren fasera pasako diren 170 parte-hartzaile aukeratuko ditu, gehienez, horretarako eraturako aukeraturako horien izen-abizenak Gazteukera webgunean emango dira ezagutzera 2013ko maiatzaren lehenengo astean.

Lehen fasera pasatutako gazteekin derrigorrezko topaketa egingo dute, hiru egunez Barriako barnetegian, maiatzaren 10, 11 eta 12an (gastuak Jaurlaritzaren kontura). Ostean, Hautaketa Batzordeak 100 lagun aukeratuko ditu. Gazteak hartuko dituzten gobernu kanpoko erakundeek formazio-jardunaldia eskainiko diete aukeraturako gazteoi. Bertan, lankide boluntario moduan egingo dituzten proiektuen gaineko informazioa eta orientazioa emango zaie.

Informazio gehiago honako helbide honetan eskura daiteke: www.gazteukera.euskadi.net.

Carrefour
GORBEIA



60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Apirilaren 15era arte

Oparia

10eko

Deskontua erregaietan

Trukagarria AVIA zerbitzugune hauetan:

- Arrasate
- Gasteiz: Foronda, Urartea kalea - 23 (Alibarra izkina) eta Zurbano.

Doan
Autobideko bidesaria

Joan-etorria

Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabari Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube)

- Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



ZABALIK

ANDONI GOMEZ
http://goiena.net/iritzia/



Google Glass

Googleren azken asmakizun hau 2012an aurkeztu eta gure eskuetara 2013aren buruan iritsiko da. Betaurreko estruktura du eta irudiak proiektatzen dituen kristal zati batez osaturik dago. Eta soinua erreproduzitzen du, baina ez ohiko moduan aurikularren bitartez, baizik eta soinua hezurera zuzenean bidaltzen duen sistema baten bidez.

Argazkiak atera, bideoak grabatu, bideokonferentziak egin eta GPS bidez nabigatzea izango dira betaurrekoen funtzio nagusiak; hala ere, izan ditzaketaren erabilerak amaiezinak izan daitezke.

Googleren sortzaileetako bat eta proiektu honen arduraduna den Sergei Brin-ek dioenez: "Pertsonak kaletik behera begira, kristal zati bat igurtziz joatea, ez da informazioarekin elkar eragiteko erarik onena". Inork ez daki zergatik esan duen hori, bere enpresak smartphoneen merkatuaren zati handi bat baitu. Beraz, hasiera baten, bere teilatuari harriak botatzen ari zaizkiola dirudi, baina baliteke marketin estrategia bat izatea eta benetan zerbaitegatik esan izana.

Badirudi, beraz, Googleren ikuspuntutik, mugikorrek ez direla informazioa eskuratzeko erarik hobereena. Horregatik, gu informazioa jo beharrean, informazioa guregan eta Google Glassen helburua, betaurrekoak gure ingurua ezagutzeko gai izango baitira. Itsuentzako, adibidez, oso baliagarriak izan daitezke, soinu instrukzio bitartez kokatu eta nahi duten lekura joaten lagundu diezaiekutelak.

Hasiera baten dena onurak direla badirudi ere, badaude kaleratu aurretik debekatu dituzten lekuak, hala nola Seattleko taberna bat. Hauen ustez, pertsonen pribatasuna oso erraz bortxa daiteke, argazki edo bideoak atera bezain pronto Internetera igo ahal izango direlako, inor ohartu gabe.

Aldekoak eta aurkariak ditu, baina prest al dago gaur egungo gizartea betaurreko futurista hauei aurre egiteko?

Denborak esango du.

"Prest da gizartea betaurreko futurista hauei aurre egiteko?"

USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | iarantzabal@goiena.com

Herri hizkeren balioa

Euskal Herriko Ahotsak. Maiteminduta nauka 10 urte dituen proiektuak. Azken 5 urteetan izan du zabalpen handiagoa *ahotsak.com*-i esker: modu librean, denen eskura eta jasotako materiala doan utzita. Sutondoan transmititzen zen lehen euskara ahoz aho. Gaur, ahoz ahokoa oso garrantzitsua den arren, Internetek ere badu zeresana eta sarean jasotzeko horrek fruituak emango ditu aurrerago ere, esaterako, hezkuntzan. Jende asko batu zen urteurren festan. Han geundenok ez dugu zalantzarik euskalkiak duen egitekoaz eta zenbateraino den baliotsu euskara baturako. Grabazioak ez dira gordetzeko, erabiltzeko dira, euskarak behar gorriena duen horretarako, erabilerarako. Gozatu.

Oñatiko Udalari, errespetu osoz

Inazio Arregi Gordoa
Oñati

Oñatiko Udalari zuzentzen diot gutun hau, errespetu osoz, baina irmo, Kale Zaharreko biztanleek urteetan bizi dugun asteburuetako egoera jasanezinari irteera bat aurki diezaiola eskatuaz.

Arazoa aspaldikoa da. Ohituta gaude zapaturo (beste egun batzuetan ere geratzen ez denean) gauez loak hartu ezinik egoten, edota behin hartuz gero ordu txikitik iratzarri eta taberna jakin batzuk itxi arte bertako musika eta hotsak entzunaz goizalderako orduak ohean iratzarritan ematen.

Kutsadura mota bat da kutsadura akustikoa, baina kalte gutxi batzuei baino ez dienez eragiten, ezer gutxi egin izan da gaitz hau amaitzeko.

Eta hau diot, behin bano gehiagotan joan izan naizelako udaletxera eta beti aurkitu izan dudalako dotoreziaz pilotari efektua eman eta arazoa nire aldera pasatzeko abildadea izan duen funtzionarioa:

denuntziarik ez baduzu aurkezten, guk ezin dugu ezer egin. Eta nahiz eta ulertu ez, legea betearazteko eginkizuna daukanak ez lukeelako denuntziarik behar herrikideen eskubideak defendatzeko; denuntzia aurkeztu, baina bi hilabetera arazoa bere gordintasunean agertu izan da berriro.

Martxoaren 16an (zapatua) gertatutakoak muga guztiak gaintu ditu. Duetloia zela eta, arratsaldeko lehen orduetan hasita DJ batek jarritako musika indezentea aguantatu behar izan genuen imajina ezinezko dezibeliotan Zazpihaizetako (Sietevientos edo Txaketuena edo nahi den moduan esanda) bidegurutzetik. Berdin kirolariak Oñatin izan ala Bergaran, eta kalea beteta ala hutsik egon. Kontua ahalik eta zarata handiena egitea, horrek inor animatuko balu bezala.

GUTUNAK

Horretan geratu izan balitz, gaitz erdi. Zazpihaizetan kokatuta dagoen tabernak gutxiago izan nahi ez, eta goizeko zazpiak arte dezibelio kopuru beraren oparia egin zigun kaletarrei, opariari uko egiteko eskubiderik eman barik.

Edozeinek daki taberna batzuek ez dutela inolako legerik betetzen, eta, denuntziak egiten aspertu naizenez, gutun hau idaztea erabaki dut, pertsonalki, kaletar batzuekin hitz egin ondoren, eta firma biltzen hasi aurretik, Udalak arazo larri honi irtenbide bat aurkituko diola sinetsi nahi dudalako. Zarata ateratzeko eskubidearen gainetik lo egiteko eskubidea dagoelako, eta oso gogorra delako zapaturo, eta sarri beste egun batzuetan ere bai, gaua lo egin gabeko bizi osorako zigorraren mende bizi izatea.

Eztabaida polita, aurreraka goiatz!

Anaje Narbaiza
Bergara

Betik pentsatu izan dut sekulako alperkerixia dela norberak lurrera botatzen dituan zaborrak batzeko inor atzetik ibili bihar izatia. Ohituta gare paperontzietan baiño gehixau, kaletan, paperak, zigarro mutxikinak eta bestelakoak ikusten. Zer esanik ez mendira irten eta edozein bazterretan plastikoak, botilak, kartutxo azalak... ikusten ohitu gara. Egia da asko aurreratu dogula; izan be, 30 urte dala, zaborra zuzenian errekarra botatzen giñuan eta orain inori ez jaku horrelakorik burutik pasatzen.

Aurreko batian Bergaran atez atekoaren inguruan egin zan aurkezpenera joan nintzanean konturatu nintzan aukeria daukagula %80 birziklitzeko, eta "gure" esku dagoela. Inoren premiarik izateke. Egia da gaurko sistema erosogoa dela, baiña erosotasunak albo batera laga

eta helburua lortzen badogu, ez dogu errauskailu handirik egin beharrik izango, kontuan izanda, gainera, zazpi urte barru europar ildoak debekatu egingo dituztela errauskailuak erabiltzea banatu gabeko hondakinak erretzeko. Bakarrrik baimenduko ditzuzte errauskailu txikixak gerakiñak erretzeko.

Edozein modutan, ardura handixa dago atez atekoarekin hasteko, ontziak txikiak direla, zintzilikarioetan jartzeko pertsona edadetuak zailtasunak izango dituztela eta hondakiñak ondo banatzeko dugun ikasi beharra... arazoak sortuko dira seguru. Halere, konpontzeko modukoak direla dirudite.

Gizartearen hurrengo saltotoxoaren aurrean garelako irizita nago; seguru, hurrengo belaunaldixak orain horrenbeste traba sortzen daben, zaborra ondo banatu eta ordu jakin batzuetan ateratzek ez dabela inongo arazorik sortzen, barneratuta izango dabelako "bakoitza dela sortzen daben zaborraren jabe eta jabea den neurrixan ondo kudeatu behar duela" gure lurraren iraunkortasuna bermatzeko.

Angel Figueroari

Patxi Olabarria
Antzuola

Zure heriotzaren berri izan nuenetik egun batzuk pasatu dira eta oroitzenak datozkit burura: kartzelako nire lehen gripea izan nuenean ezer eskatu gabe nola etorri zinen laranja-zuku batekin eta zure irribarre eder horrekin; kartzelaria nola sutan jartzen zenuen, lasaitasun osoz "tranquilcese, señor carcelero" esaten zenion bitartean; nolako duintasuna erakutsi izan zenuen beti.

Benetakoa zinen, Angel, benetako militantea, benetako ameslaria, benetako laguna... Eta benetakoa zinzelako kartzela sistemak begitan hartu eta zure aurka direnak eta ez direnak egin zituen, apurtu arte, eta >

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera, bidali: egilearen izena eta abizena, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñati Lizeoaren 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Oñati Lizeoaren 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

orain, espetxe politika horren ondorioz, etxean preso eta gaixo zeundela hil zara.

Lerro hauen bidez barkamena eskatu nahi dizut, azken urte hauetan zuk nahi bezain gertu ez naizelako eta ez garelako egon. 800 kilometrorra zeundenean hilerio joaten ginen zugana eta azken urteetan, 80 kilometrorra egonda, urtean bizpahiru aldiz egoteko nahikoa lan. Lehengoan Herrirako kide batek zioen: "Maite ditugulako, hor egongo gara eurak askatu arte"... Ados, baina ez ditzagun ahaztu etxean preso daudenak edo askatu berri daudenak. Askotan gure behar handiagoa dute, eta egon gaitezen beraiengandik gertu.

Zu ezagututa ziur ez zarela geldirik egongo, Hugo Chavezekin ikusten zaitut mundua konpondu nahian. Eman muxu bana aitari eta aitona-amonei. Ezagutzen utzi ez dizuten herri txiki honetan ez zaitugu ahaztuko. Ohorea izan da zu ezagutzea.

Herria informatua egotearen PSEren beldurra eta Eskoriatza Garbiaren boikot kanpaina

Joseba Gabilondo Markes
(Eskoriatzako Sorturen izenean)
Eskoriatza

Pasa den martxoaren 22an Tiana herri katalaneko PSCko zinegotzi den Hector Gonzalez etortzekoa zen Eskoriatzara atez atekoaren inguruan hitz egitera, Tianako herrian izan zuten esperientzia kontatzera eta sistemak eman dituen datu onak harrotasunez erakustera.

Egun pare bat lehenago, baina, hitzaldia bertan behera gelditu zen. PSEren presioen ondorioz, PSCk Hector Gonzalez zinegotziari ukatu egin baitzion Eskoriatzara etortzeko baimena. Beste behin agerian utziz eztabaida aske eta zentzudun bat izateari eta herria ongi informatua egoteari dioten beldurra.

PSEren jokabide honegatik, eskoriatzarrok ezin izango dugu Catalunyako atez atekoaren esperientzia ezagutu. Horregatik, Eskoriatzako Sortutik gogor salatzen dugu PSEren jarrera zentsuratzaila hau.

Bestalde, Eskoriatza Garbia plataformaren jarrera ere salatzen dugu. Azkeneko egunetan, egin behar zen hitzaldira ez joateko mezuak zabaldu baitira eskoriatzarren mugikorretan, jendea informatzearen askatasunaren aurka eginaz. Zergatik jarrera hau? Eskoriatzarrok informatuta egotearen beldur dira hauek ere? Atez atekoaren

esperientziak ezagutzearen beldur?

Eskoriatzako Udalak etxeetara bidali duen atez atekoaren inguruko inkesta ere boikoteatzeko mezuak barra-barra dabilta Eskoriatzan, plataformak sinatuta. Hau da Eskoriatza Garbia plataformak herrian parte hartzeko duen modua? Lotsagarria.

Guk gure aukerarekin aurrera jarraituko dugu eta Eskoriatzako herritarrek ongi informatuta izateko ekimenak egingo ditugu. Eskoriatzan, Gipuzkoa guztian bezala, gehiago birziklatu nahi baitugu. Eskoriatzan, errauskailurik? Ez, eskerrik asko! Birziklatzeari bai!

Enrike Letonaren arazoak

Juan Karlos Garitano
Arrasate

Zuk egiten duzun guztia politika al da, Enrike? Horrela pentsatzen baduzu, arazo larria daukazu, benetan. Ziur zaude konposta modu batera egiteak zerikusia duela Ezker Abertzalearen azken helburuekin?

Bestalde, konpostatzeko planta industrialak eta konpost-gailu domestikoak ondo bereizten jakin barik jarraitzen duzu.

Aurreko gutunean ere adibide desegoki batzuk ekarri zenituen zure helburua justifikatzeko eta aipatzen dituzun linkak irakurri ondoren argi eta garbi dago ez datozela bat zuk defenditzen duzunarekin. Adibidez, http://ec.europa.eu/environment/waste/publications/pdf/compost_es.pdf (Jurramendiko eta Baix Campeko mankomunitatearen gaineko informazio faltsua...); satsaren eta konpostaren arteko nahasketa interesatua; Antzuolan arratoiak daudela ukatzea...

Oraingoan, ordea, beste bi adibiderek zatoz zure "teoria" indartzeko: Ingalaterrako Arunekoa eta Usurbilgo Puntapax "konpost-gunearena". Hasteko, Arunen ez dute egiten konpost domestikoa zuk diozun moduan, argi eta garbi azaltzen dute animalia-jatorriko hondakinak ezin direla sartu auzoko konpost-gailuetan: <http://www.arun.gov.uk/main.cfm?type=GREENWASTECLUB#Green>.

"Take care not to compost cooked food, meat or fish", diote.

Funtsean esaten dute kontuz ibiltzeko eta sukaldatutako janariarekin, haragiarekin eta arrainarekin ez konpostatzeko.

Usurbilgo adibidea ere ez dakit egokiena ote den, Usurbilgo Udaleko web orrian azaltzen dutenez "konpost domestikoa" batu eta tratamendu plantara eramaten

dute eta. Puntapaxi buruz baieztatzen duzuna ere zalantzan jarri beharko dugu. Zalantzok uxatzeko eta zuri sinetsi behar badizugu, Fraisoroko laborategian egindako azterketen emaitzak erakutsi beharko zenituzke, agian barre pixka bat egingo genuke eta.

Bukatzeo, Enrike: hau izango da zurekin trukaturiko dudan azken gutuna, errespetu osoz esaten dizut baina ez daukat pazientziarik, ikusita salbuespenetik araua egitea nahi duzula, eta hori ez da horrela.

PNV diruzale, AHTrik ez

Ibai Etxebarria eta Miren Intxausti
(San Martineko Etxe Okupatuko Asanbladaren izenean)
Oñati

PNVk 2013. urterako aurkeztu dituen aurrekontuetan AHTren eraikuntza lanetarako 350,68 milioi euro gehiago xahutu nahi ditu, osasun, etxebizitza, hezkuntza eta gainerako gastu sozialetan murrizketa handiak agintzen dituen bitartean (711,5 milioi euro gutxiago). Antza denez, hemen ez dago ezertarako dirurik, AHTrako ez bada, noski.

Eta hori gutxi balitz, aurrekontuak aurkeztu eta biharamunean bertan Jaurilaritzak (PNV) adierazi zuen prest zegoela Madrili zegozkion AHTren obra zatiak egiteko dirua aurreratzeo. AHTrentzat badago dirua. Gastu sozialetarako ez dago dirurik!

Euskarazko hedabideentzat 800.000 euro gutxiago izango dira eta bitartean Madrili AHTren obrak egiteko dirua aurreratzeo prest dago PNV. Euskarari ogi apurrak ere kendu eta AHTri (enpresarien poltsikoei) opariak egin. Hori al da PNVren politika? Patetikoa.

AHT egiteko kristorenak eta bi egiteko prest dago PNV. Beharrezkoa omen da. Beharrezkoa norentzat? Herritarrentzat edo PNVren baitan mugitzen diren enpresario diruduntzat? Erantzuna soberan dakigu. Ez da kasualitatea infrastruktura erraldoi guztien atzean PNV egotearena (AHT, errauskailua, superportua...). Ondo dakigu zerk mugitzen duen PNV, diruak.

Euskal Herrian inoiz egin den obrarik erraldoi eta garestienaren aurrean gaude. Baina obra hau ez da herritarrentzat egina. Obra hau enpresa eraikitzaileen interesei begira egina dago. Obra hau enpresa eraikitzaileen negozioei begira egina dago, PNVren ezinbesteko laguntza politikoarekin.

Euskal herritarren interesen aurka, lau aberaskillo enpresarioen alde, Euskal Herria tunelez eta biaduktuz

josi, mendiak zulatu, baserriak eta baserritarren bizi-moldeak txikitu, herritarrei lurra lapurtu, eta herri honi tren antisozial hori inposatuz Euskal Herri osoko lurra txikitzen ari zaretenok ez daukazue hitzik.

Hau guztia bidaian 10 minutu ziztrin aurreratzeo. Zeinendako eginiko tren den jakiteko ikusi besterik ez dago egunean zenbat bidaiarik erabiltzen duten Madril-Bartzelona arteko linea. 4 katuk, 4 enpresariok. Izan ere, tarifak oso garestiak dira.

Krisian egon edo ez, AHTk ez dauka justifikaziorik. Mila makinak ez dute inoiz lore bakar bat sortuko.

Ez atzo, ez gaur, ez inoiz, AHTrik ez!

Behar ez dugunetik murriztu

Guren Auzmendi Zumalde
Oñati

Apirilaren 10erako solasaldia antolatu dugu bailarako AHT Gelditu! Elkarlanetik, Arrasateko Kulturaten, 19:00etan.

Gizarte-murrizketen eraginak kontatuko dizkigute hemengo hainbat sektorek:

- Pentsionista eta alargunak.
- Osasuna.
- Hezkuntza.
- Gazteak.

Iruditzen zaigulako, beste behin, behar ez dugun azpiegitura hori eraikitzea astakeria bat dela. Ekologikoki, sozialki, eta ekonomikoki. Murrizketa hain larrien garaiotan erabil dezatela dirua jendearentzat.

Bertan ikusiko dugu elkar. AHTrik ez.

Korrika

Esti Besa Sanchez
(Eskuernagako Xirmendu Kultur Elkarte)
Eskuernaga

Martxoaren 14an Andoaingo Martin Ugalde parketik 18. Korrikari hasiera eman diote. Euskararen alde Euskal Herri osoa zeharkatzen duen lasterketa hasi da. Barkatu, Euskal Herri osoa ez, eskualde oso bat Korrikatik at gelditzen da, ez herri bat, ez, 16 herri, eskualde osoa. Eta gure umeak: "Noiz pasatuko da gure herritik?". Eta gure gazteak: "Aurten gauez edo egunez egin behar dugu korrika?". Eta hemengo euskaldun eta euskaltzale guztiak: "Noiz elkartuko gara, noiz egingo dugu bilera Korrika prestatzeko?".

Baina aurtengo Korrika (18.a) berriz ere ez da Arabako Errioxatik pasatuko (17.a ere ez zen Arabako Errioxatik pasatu). Zergatik?

16 herri gara Arabako Errioxan eta Korrikak ez du bat ere ukitzen (ez eta hurbiletik pasatzen), ez aurten eta ez aurreko edizioan ere.

Guk, hemen, ez dugu Martin Ugalderik, ez eta horrelako pertsona esanguratsurik. Gu Araban pasatzen, Arabako hegoaldean, Arabako mugan, baina gu ere euskaldunak gara, gu ere emozionatzen gara Korrika gure herrietatik pasatzen denean, gure umeak eta gazteak "Korrika, Korrika!" oihukatzen dutenean.

Arabako Errioxan ez dago AEK-ko euskaltegirik. Agian horregatik ez da hemendik pasatzen. Horrek zer esan nahi du, AEK ez dagoen lekuetan ez dagoela euskaldunik edo euskara maite duten jenderik? Lorpen handiak egin ditugu eskualde honetan azken urteetan, gure ume gehienak D eta B eredueta matrikulatzen dira (nahiz eta A eredu oraindik anklatuta dagoen). Hemengo gazteek euskaraz ulertzen dute eta hitz egin ahal dute, baina egunerokotasunean oso zaila da hemen euskaraz bizitzea, inolako zerbitzurik ez baita euskaraz eskaintzen, eta euskaltegitik kanpo edo ikastolatik kanpo talde txikietan besterik ez da euskaraz egiten. Euskara teknikaria ere badugu gure eskualdean (urte askoan eske aritu eta gero lortu genuen, nahiz eta orain lanpostu hori ere arriskuan dagoen), euskara proiektu polit bat eta gero eta jende gehiago euskararen aldeko eguneroko lanean.

Orain dela bi urte triste, goibel gelditu ginen Korrika gure herrietatik ez zela pasatuko jakin genuenean, baina aurten tristura baino gehiago da, amorru puntua ere bada, ez baitugu ulertzen zergatik ez den Korrika pasatzen Arabako Errioxatik.

Gu ospetsuak gara gure lurra ardo onen lurra delako eta jende aske hurbiltzen da hona gure upategiak ikustera, ardoa dastatzera eta eguraldiaz disfrutatzen. Eta batzuk harritu egiten dira: "Euskaraz badakizue? Nongoak zarete, ba?". Eta hemengoak garelako entzutean: "Hemen ere euskaraz egiten da, ala?". Ba bai, hemen ere euskaraz egiten dugu, lau herritan dugu D eredu, eta, nahiz eta mugan egon, gu ere Euskal Herria gara. AEK-k antolatzen duen Korrika (ez baita AEKrena, herriarena baita) aurten ere ez da pasatu eta horregatik guk gure Arabako Errioxako Korrika antolatu dugu. Eta gure Korrika herri guztietatik pasatuko da eta gure umeek korrika egingo dute eta bukaera festa izugarria antolatu dugu, euskara plazara aterako dugu

Gure hizkuntzaren egoera ahula da gure eskualdean. *Eman euskara elkarri* izan da aurtengo Korrikaren leloa. Hori da, hain zuzen ere, guk behar duguna.

LASA JATETXEA

Zure ezkontza ospatzeko leku paregabea!



Ozaeta jauregia,
Zubiaurre 35 / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55

Bisita gaitzazu
www.restaurantelasa.es



- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

Inaxio Arregi | Jesuita

"Munduarendako aita santurik egokiena zein izan behar zen jakin izan dute kardinalak"

- ▶ Aita santu berriaren aukeraketan Elizak erakutsitako jarrera txalotu du Arregi oñatiarrak
- ▶ "Lurrikararik edo iraultzarik ez da espero, baina aldaketa handiak egingo ditu Frantziskok"

ENEKO AZKARATE | BILBO

Inaxio Arregik (Oñati, 1931) 20 urte eman zituen Radio Vaticano-n informatiboetako buru eta 2006an Euskal Herrira itzuli zen. Bilbon du egoitza gaur egun. Bergoglio aita santu izendatu zuten egunean Erroman zen, Vaticano Irratian, arratsalde hartan Bilbotik iritsita. Ilusio eta poztasun handiarekin hartu du aita santu berriaren izendapena eta Frantziskok orain arte egindakoa.

Espero zenuen aita santu hau?

Inork ez zuen espero. Berria jakin eta berehala, Vaticano Irratiko kazetari batek galdetu zion Aita Lombardi Vaticano bozeramaileari eta hark erantzun zion ez zihola ezer esatera, oraindik izututa zegoela, "shock batek harrapatuta". Irratian nengoela, aita santua nor zen jakin aurretik, galdetu nien kazetariari ea zeintzuk ziren hautagai nagusiak eta erakutsi zidaten dozena bat izeneko zerrenda bat. Aita santu berria azaldu zenean konturatu ginen zerrenda hartan ez zela ageri Bergoglio. Eta Vaticano Irratiko informazio sailean nengoan, aizu!, eta inork ez zuen asmatu!

Gustuko duzu aita santu berria?

Askok! Ez jesuita edo argentinarra delako. Konklabean batu ziren kardinalak eredu garri jokatu zuten. Aldez aurretik, denek hitz egin zuten: eskumakoek, ezkerrekoek, kolore batekoek zein besteok. Esan beharreko guztiak esan zituzten aurreko egunetan. Eta beste inork ikusten ez zuena ikusi zuten haiek: gaur egun, munduarendako aita santurik egokiena zein eta zelakoa izan behar zen. Besteok baino gorago egin zuten hegan.

Jesuita izateak eta izena Frantzisko jarri izanak zer esan nahi du?

Aita santua zein zen jakin eta berehala denek galdetu zidaten ea Frantzisko izena Frantzisko Borja Jesusen konpainiakoarengatik ote zen. Nik esaten nien itxoin egin behar zela, aita santuak berak zekien-eta zergatik aukeratu zuen izen hori. Eta han, Erroman, batuta geunden kazetariari egin zigun harreraren esan zigun aita santuak zergatik aukeratu zuen Frantzisko izena. Bergogliok berak ere, Asisko Frantziskoren antzera, behartsuenekin lan egin du luzaroan. Frantzisko Asiskoaren espiritua berarekin zekarren aita santu izan aurretik. Hala, esan zigun Asiskoaren eredu jarraitu nahi izan duela beti, eta hala egingo duela aurrerant-

tzean ere, betiere, natura edota ekologia maitatuz.

Zergatik ez da izan aurretik aita santu jesuitarik?

Jesuitok beti izan gara hotz samarrak, eta botereko edo ardurako karguei uko egin izan diegu beti, ez zaigu gustatu lehen lerroan egotea. Guretako, egia esan, ezezagun samarra zen Bergoglio. Horregatik, pozik baina hoztasun apur batekin hartu genuen haren izendapena. Frantzisko Borjaren gertatutakoa gogoratzea besterik ez dago: Erroman bizi zelarik, San Inazio bera ere bizi zela, kardinal izendatzekotan zela, ihes egin zuen eta Oñatin babestu zen Madalena ermitan. Bi urte egin zituen han ez zezaten kardinal egin. Handik aurrera, jesuitok kargu handietatik ihesean ibili izan gara beti.

Eliza berri bat dator?

Ez nuke horrenbeste esango. 2.000 urteko erakunde batean, lurrikararik edo iraultzarik ez da espero, baina aldaketa handiak izango dira. Vaticano Kontzilioa izan zen aldaketa handia eta aita santu berriak ere aldaketak ekarriko ditu. Beste egiteko modu batzuk ekarriko ditu: behartsuenak kontuan hartuz eta gauza txikiei garrantzia emanez. Aita santu berriak ez du aldatu gotzainen darabilten mitra aita santua izendatu ostean; Buenos Airesen zerabilen berdina darabil orain. Keinu bat baino ez da, baina adierazgarria. Harremanetan ere igarriko dira aldaketak. Esan eta esan dabil, uneoro, zein garrantzitsuak diren borondatea, elkartasuna, adiskidetasuna, anaikidetasuna... Izango ditu arazoak, baina beti azpimarratzen du mundu honetan, bereziki, borondatea behar dela. Orain, moral aldetik -eta, ez dut aldaketa handiegirik espero. Halere, beste modu batera aztertuko ditu arazoak. Esaterako, ez du gay edo lesbianen kontra egingo, errespetatu egingo ditu.

Eta Elizaren gobernu?

Hor izango du lana, bai, ze denek aitortzen baitute hor badagoela zer zuzendu. Jakina, bestalde, Vaticano Bankuko arazoak konpontzen saiatuko da, zirt-zart egingo du. Hortaz, gauza batzuetan aldatuko da Eliza; beste batzuetan, gutxiago, baina beste estilo bat erakutsiko du.

Benedikto XVI.aren Eliza kontserbadoreagoa izan da?

Aita santu berriak beste bide batzuk urratuko ditu aurrekoaren ezberdinak. Atzerakoia ez da izango. Ez du hortik joko. Eta



Inaxio Arregi, artxiboko irudi batean. | GOIENA

leihu berriak irekiko ditu, bai Elizarendako eta baita mundu osoarendako ere.

Zein da, zure ustez, esku artean daukan lehenengo egitekoa?

Berehala egin beharrekoa da kolaboratzaileak aukeratu. Aldaketa handiak egin beharko ditu Vaticano gobernuan, eta azkar, gainera. Esaterako, Benedikto XVI.aren idazkaria zena, Ganswein, Vaticano jauregiko arduraduna da. Eta lehenbailehen kendu beharko du kargutik, jendeak ez dezan pentsatu aurreko aita santuak kolaboratzaile bat duela Elizaren muinean, Vaticanoan. Bertone Estatu idazkaria ere aldatu beharko du...

Elizaren irudia aldatu beharko du?

Bai, hori ere garrantzitsua da. Izan ere, pederastia dela edo Vaticano hainbat eskandalo direla, Elizaren irudia txartu egin da azkenaldian. Halere, aita santu berriak, dagoeneko, beste irudi bat eman dio Elizari, irudi ona. Erabaki egokiak hartu ditu eta jendea hunkitu du bere jarrearekin. Ez du programarik erakutsi, baina bai keinu batzuk, estilo bat, eta hori, orain, asko da. Etorriko dira besteak.

Euskal Elizan igarriko da beste egiteko modu bat?

Aldaketak poliki etorriko dira. Edozelan ere, euskal Elizari ari garela, jokaera lotsagarri bat salatu nahi dut. Izan ere, aita santu berria zein izango zen jakiteko ginela, apur bat lehenago, hementi Elizbarrutiak zabaldu zuen aita santu berria aukeratu zela eta Milango kardinal Angelo Scola izango zela. Ez hori bakarrik: aita santu berriak izena ere aukeratu zuela ere zabaldu zuen: Benedikto XVII.a. Lotsagarria da, ze jokiera bat erakusten baitu, asmo bat, nahi bat... Eta hanka-sartze horren gaineko erantzunak eman beharko ditu Elizbarrutiko norbaitek. Zergatik izan du horren oihartzun handia hedabideetan aita santu berriaren izendapenak?

5.600 kazetari joan ziren Erromara hura kontatzera. Zergatik hainbeste? Ez dakit. Orain, sinesmenduna naiz eta harro esaten dut, eta uste dut goitik etorri dela abisu bat, bultzada bat. Hortik aparte, munduak dituen arazoaren aurrean, itxaropen bat, haize fresko bat, argi izpiren bat... behar genuen eta aita santu berri honek ekarri du. Hortik uler daiteke, akaso, hedabideek eman dioten estaldura. Eta, uste dut, bestalde, herri xeheak ere halako zerbait nahi zuela eta ondo etorria egin dioela aita santu berriari.

"Aldaketa handiak egin beharko ditu Vaticano gobernuan"

"Vaticano Irratiko kinieletan ere ez zen Bergoglio; inork ez zuen asmatu!"

"Moralaren aldetik-eta ez dut aldaketa handirik espero Elizan"

"Frantzisko Borja bezala, jesuitok kargu handietatik ihesi ibili gara beti"

HERRIAK

ARRASATE

Apirilaren 13a: produktu freskoen azoka biziberritzeko eguna

- ▶ Azoka biziberritzeko prozesuan parte hartzen duen taldea ezagutzeko balioko du
- ▶ GÜreztatu prozesua erakusteaz gain, lekuak berak dituen funtzioak erakutsiko dira

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Aire berriak iritsi dira Arrasateko azoka plazara. Duela urtebete Bagarak produktu freskoen azoka biziberritzeko ardura hartu zuenetik, bilerak, herri galdeketak... denetik egin da. Orain, prozesua bigarren fasean sartu denetik egindako aurrerapauso eta hausnarketak erakusteko garaia iritsi da. Apirilaren 13a horretarako eguna izango da.

GÜreztatu prozesuak paper eta hitzetik ekintzara egingo du salto. Zapatukoa azoka berezia izango da. Ez da soilik egun aldaketa bat izango. Goizeko hamarretatik aurrera, ohiko baserriar eta postuez gain, berrikuntza ugari izango ditu azoka plazak. Bagarako kide Onintzen Guridiren hitzetan: "Azokak duen lekuak zenbat erabilera dituen erakutsiko dugu".

Esan eta egin; zapatuan, ohiko saltzaileez gain (hauek goizez bakarrik egongo dira), bailarako zenbait ekoizleak eta Arrasateko artisauek ere tokia izango dute. Eraldatutako produktuak erosteko aukera ere egongo da. Gomiztegiok gazta ekarriko dute eta Jakioneak bere postua izango du. Herrian oso errotuta dauden Harreman bidezko merkataritzak eta Emausek ere tokia izango dute. Bigarren eskuko gauzak saltzen dituzten postuak ere egongo dira.

Asmoa ez da erraza, urteetan erabiltzen bakarria izan duen

kokapen bat berrantolatu eta bere funtzioaniztasuna erakustea izango da-eta. Horretarako, egun erabiltzen diren barruko postuez gain, azokaren espazio guztia erabiliko dute.

Kultura agenda

Jaki eta produktuak ez dira azoka egun berezian egongo diren gauza bakarrak izango. Kulturak zeresan handia izango du. 12:00etan Ain_1 eta jarraian, 12:30ean, Azabatxe Arrasateko taldeek azoka girotzeko ordu erdi inguruko kontzertu bana emango dute. Gero, Toberako antzezleek kontsumoari buruzko antzerkia egingo dute.

Ondoren, ekintzek arratsaldera egingo dute salto: 17:00etan haurrentzako ipuin kontaketa izango da eta 18:00etan herriko artisauek, Emaus eta Amaia Albesen eskutik moda desfilea. Kultur ekintza hauek gainera, egun osoan zehar trikitalariak, umeentzako tailerrak... GÜreztatu prozesuaren parte diren ekimen guztiek euren ekarpena egingo dute. Zerbait jan eta edateko txosna bat ere egongo da.

Aipatzekoak dira gurean nahiko ezezagunak diren bi ekintza. Trukerako postu baten bitartez, postu horretan produktuak trukatzeko aukera egongo da. AGAKOko kideek kamisetak serigrafiatuko dituzte; horretarako, baina, kamiseta etxetik eroan beharko da.



Azokak gaur egun duen itxura. | UBANE MADERA

AZOKA EGUNEN EGITARAUUA

12:00 Ain_1.

12:30 Azabatxe.

13:00 Tobera.

17:00 Haurrentzako ipuin kontaketa.

18:00 Moda desfile herrikoa.

AMAIA ALBES | ARROPA DISEINATZAILEA

"Azoka ezagutzeaz gain, ekarpen berriak batzen badira, hobeto"

Zapatukoa desfile berezia izango da?

Dudarik gabe, egoitza bera berezia izango da. Ez dakit inoiz azoka batean desfilerik egin den, eta horrek ukitu berezi bat emango dio. Gainera, oso desfile plurala izango da.

Taula gainean ez zara bakarrik egongo?

Talde desfile bat izango da. Herriko artisauek osagarriak erakutsiko dituzte; ondoren, Emauseko Sin Desperdicio ekimenak banderatoekin egiten dituzten osagarriak erakutsiko ditu. Gero, Ibai-Arte elkarteko zenbait dendaren arropa ere erakutsiko dute eta azkena ni izango naiz.

Desfile herrikoa izango da.

Goitik behera, arropa eta osagarriez gain, modeloak ere herritarrek izango dira: familiakoak, lagunak, inguruko jendea...

Ekimen berritzaile honen helburua zein da?

Jendea erakartzea, berria batik bat. Azokaren lekua ezin hobea da eta bere potentziala ere erakus-



LEIRE KORTABARRIA

teko balioko du. Gainera, azoka eraberritzeko prozesua bera ezagutzera emateko ere balioko du.

Hortaz, helburu bikoitza?

Bai. Jendeak azoka ezagutu beharra dauka. Ni amamarekin joaten nintzen, eta ziur jende askori gauza bera gertatzen zaiola. Haurrak ginela joan ostean, bertan erosteketak egiteari utzi diogu. Ekimen hauen bitartez, azoka jende anitzago bati erakutsi nahi diogu eta bide batez GÜreztatu prozesuak ekarpen berriak lortzen baditu, orduan eta hobeto.

Zer eskatuko zenioke azoka plaza berriari?



ARANTXA ARANTZABAL

"Erdiguneari mugimendu handiagoa emateko eskatuko nioke. Herriarekin gehiago lotuko nuke nik azoka".



UNAI PEREA

"Beste mota bateko saltokiak jarriko nituzke. Orain dagoen moduan ez du jende gazterik erakartzen eta horren falta sumatzen dut".



ANA ARANTZABAL

"Saltoki finko gehiago eduki beharko lituzke. Arratsaldeetan ere zabalik egon beharko luke, lan egiten dugunok ezin dugu bertan erosi".



MARIO HERNANDEZ

"Hango langileentzako parkinga handituko nuke. Jende kopuruaren arabera, egunero zabaltzea ez litzateke aukera txarra izango".

Naiara Agredak hilabete barru izango du bere gurpildun aulki berria

Aulki berria lortzeko bidearen azken txanpan Donostiako bikote baten laguntza ezinbestekoa izan da

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Naiara Agredaren familiak hilabete barru jasoko du gazteak horren premia duen gurpildun aulki berria. Hona iristea, baina, ez batere erraza izan. Lehenik, tapoi bilketari ekin zioten. "Guztira, 11 tona inguru jaso ditugu", dio Almudena Viecok, Naiararen amak. Hori, baina, nahiko ez, eta Gabonetan otarre bat zozketatu zuten, gaztetxean kontzertu bat antolatu zuten... Horrek guztiak familiak etxean egin beharreko obrak egiteko dirua ekarri die.

Hala ere, prozesua asko luza-tu da. Ekainean ekin zioten tapoi bilketari, eta, diru dezente batu duten arren, ez da nahikoa izan. Naiarak duela bi aste 15 urte bete zituen eta bere gurpildun aulkia txiki geratzen hasi zaito. Amak beti izan duen nahi bat da: "Hobe-kuntza asko egin dizkiogu, baina aukia oso beharrezkoa dauka".

Duela egun gutxi, egoerak erabateko aldaketa izan du. Kanpaina berri bati esker Naiarak hilabete barru bere aulki berria jasoko du.

Donostiako bikotearen laguntza

Borja Vigil eta bere emazte Ana Naiararen kasua hedabideen bitartez ezagutu eta berehala agertu ziren laguntzeko prest. Hasiera batean, guztiak ekainera arteko kanpaina aurreikusitazuzen ere, gauzak uste baino azkarrago joan dira.

Naiararen gurasoek ezinezko-



Naiara Agreda, oraindik orain erabiltzen duen aulkian. | GOIENA

tzat jotzen zutena aste bakarrean geratu da. Kanpaina abiarazi eta berehala 2.500 euro batu zituzten. Bigarren egunean 300 euro gehiago batu zituzten. Hortik aurrera gertatutakoa ezinezkoa zela uste zuten. Astea amaitu baino lehen 8.000 euroko muga atzean zeukaten eta martxoaren 20an helburutzat zituzten 10.000 euroak pasa zituzten. Donostiatik espero ez

zuten laguntza erabakigarria izan da.

Familia oso pozik agertu da. "Guztion artean lortu dugun zerbait da", dio amak. Hilabete barru, horren beharrezkoa duten gurpildun aulkia jasoko dute. Ziur, ezusteko honen ostean Naiararen urtebetetzea era berezian ospatu dutela.

Merkataritza eta Turismo Saila sortzea eskatu du PSE-EEk

I.G. | ARRASATE

Arrasateko Udalean PSE-EEren bozeramaile den Aritz Arrietak ohar baten bidez adierazi du sortuko litzatekeen sail berriarekin, herriko turismo sektorea indartzeko estrategiak zehaztuko liratekeela, besteak beste. "Debagoienean sektore indartsua da merkataritza eta turismoarena, bai eta berritzailea ere. Egoera ekonomiko zailtan arriskuak bere gain hartzen duen arloa da". Hala adierazi du Arrasateko PSE-EEk, ibarreko 16 enpresak eskuratutako Turismo Kalitate eta IKT alorreko diplomaren harira.

Merkataritza eta Turismo saila sortzeaz gainera, merka-

taritza tradizionalaren benetako egoeraren ikerketa egitearen beharra azpimarratu du oharrean Arrietak. Bestalde, "merkatarien elkarten sorrera sustatu behar da, eta baita denden irekierak dakartzan tasen murrizketa ere".

Sozialisten Udaleko bozeramailearen hitzetan "garrantzitsua da auzoko dendan erostea, lanpostu finkoak eta aberastasuna sortzeko". Une zailak bizi dituen esparrua dela ere aipatu du, besteen artean, "BEZ igoeragatik, bai eta funtzionarioen aparteko paga kendu izanagatik". Gainera, proiektu hauek sozialisten programaren barne zirela azpimarratu du Arrietak.



ABAROA ELKARTEA

Abaroak junta berraukeratu du

Egubakoitzean Abaroa elkarteak batzar orokorra egin zuen Etxaluzen. Guztira, 80 bazkide inguru gerturatu ziren bertara, elkartearen estatutu berriak onartzeko. Eusko Jaurlaritzaren 7/2007 legeak hartzen dituen aldaketek gainera, junta aho batez berraukeratu zuten.

Aste Santuko jaiegunetan udal zerbitzu eta bulegoek ordutegi berezia izango dute

BAZ larunbat santuan soilik egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara. Kulturate itxita egongo da eta Pazko asteko martitzetik aurrera, 10:00-13:00 eta 16:00-20:00etara zabalduko dituzte Udal Bibliotekak. Aukeak ere ordutegi berezia izango du. Musakolako kiroldegia, berriz, Aste Santuko egunetan 09:30-14:00 eta 16:30-20:00etara egongo da zabalik; Pazko astean ordutegi arrunta izango du. Uarkape eta Iturripe itxita egongo dira.

Bastida Akademiak langabeei zuzendutako gaztelera eta aleman ikastaroak emango ditu, doan

Bastida Akademiak doako bi ikastaro berri antolatu ditu. Bi ikastaroak langabeentzat dira: aleman ikastaroa gazteentzat da eta gaztelania ikastaroa etorkinentzat izango da. Bi ikastaroak presentzialak izango dira. Gaztelaniakoak ez du ikasketa mailarik eskatzen, baina alemanekoan parte hartu nahi dutenek gutxienez batxilergo titulua izan beharko dute. Alemaneko ikastaroan, gainera, maila-proba egingo da. Izen-ematea Arrasateko Lanbideren egoitzan egin behar da.

Abaroa elkarteak Marcillara egingo duen irteerara joateko izen-ematea apirilaren 2an zabalduko du

Irteera apirilaren 10ean izango da eta Marcillako Iturbide upategia, bertako gaztelua eta Plu ama birjinaren basiliza bisitatu ostean, bazkaria Azagran egingo dute. Arratsaldean, aldiz, Lizarran ordubeteko bisita egin eta gero, 20:45 inguruan bueltatuko dira Arrasatera. Izen-emate epea apirilaren 2an goizean zabalduko dute eta Abaroako kideek lehentasuna izango dute. Elkar-teko kideentzat irteerak 30 euroko kostua izango du; Abaroako kide ez direnek, berriz, 35 euro ordaindu beharko dituzte.

Martxoko azokako saskia, Rosa Osarentzako

Martxoko baserriarren azokako txartel saritua Rosario Osarena izan zen eta produktu sorta Bedoña auzoko Bidasoro baserriko Kontxita Berezibarrek prestatu du oraingoan. Udaleko Enplegu Zerbitzuak honakoa adierazi dio Osari: "On egin, eta eskerrik asko baserriko produktuak aukeratzegatik!".



ARRASATEKO UDALA



Joan den asteburuan gaztakoek jokatu zuten dokean. | JOKIN BEREZIARTUA

50 kilo sardina eta ardoa dokeko galtzaileen kontura, barikuan

Egubakoitzean da txapelketa, Monterron aurreko zelaian, 10:00etan

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Urtero moduan, nagusiendako doke txapelketa antolatu du SUDC elkarteak Egubakoitz Santurako. "Aurten ere ez dugu hutsik egingo, ez. Dena dugu prest", adierazi du SUDCeko kide Andoni Altzelaik.

Zaldibarko lurrak

Doke txapelketa aspaldiko ohitura da Arrasaten. "Duela urte asko, 400 bat urte, egun Arrasatekoak diren Zaldibarko lurren jabetza jokatu zuten dokean. Oinaztarren eta ganboatarren arteko lehia zen, biek eskuratu gura zituzten lur horiek, eta, azkenean, erabaki zuten dokean jokatzeko. Txapelketa bat egin zuten eta irabazlea-

rendako izan ziren Zaldibarko lurrak", kontatu du Altzelaik. Harrezkero, eta garaipen historiko hori gogorarazteko, urtero jokatzeko dute dokean, beti Egubakoitz Santu egunean.

Udalaren kontra

Bikoteka aritzen dira, eta Arrasateko elkarte gastronomikoetako ordezkariak hartzen dute parte. Joan den urtean, esaterako, 14 bikotek eman zuten izena txapelketan.

Garai batean lurrak zeuden jokoan, eta orduko txapelketak joko izaten jarraitzen du egun, jolasa izan ordez. Izan ere, lurrak ez, baina hamarretakoa egoten da jokoan txapelketa horretan.

"Elkarte gastronomikoetako bikoteen artean jokatzeko da lehenengo, eta bikote irabazlea udal ordezkariak osatutako bikotearen aurka lehiatzen da finalean. Galtzen duenak hamarretakoa ordaindu behar du. 50 bat kilo sardina eta ardoa erosi behar ditu galtzaileak", dio Altzelaik. Udal ordezkariak bikotea Iñaxio Azkarragaurizar alkateak eta Kepa Urteaga Kultura zinegotziak osatuko dute aurten.

Bestalde, domekan, 14 urtera arteko dozeena bat parte hartzailek jokatu zuten dokean, Monterron aurreko zelaian. Beste behin, dokeak ezagutzeko aukera eman die SUDCek herriko ume eta gazte txoei.

Zilarrezko eta brontzezko dominak ekarri ditu Maria Jose Gilek Donostialdetik

Hirugarren egin du Europako txapelketan eta bigarren Lasarteko krosetan

O.E. | ARRASATE

Pozez zorutzen dago Mari Jose Gil atleta arrasatearra joan den asteburuan lortu dituen emaitzekin. Eta ez da gutxiagotarako. Izan ere, bi domina eskuetan zituela bueltatu zen etxera Donostialdeatik.

Brontzea eta zilarra

Lehen domina egubakoitzean irabazi zuen, Anoetako belodromoan jokatu zen Europako atletismo txapelketan. "Izugarritzko maila egon da txapelketa horretan. Bi alemaniarrekin batera sartu nintzen helmugara, bigarrenarengandik oso denbora laburrera. Ez nuen espero hirugarren sailkatzea, eta oso pozik nago", adierazi du Gilek.

Bigarren domina, zilarrezkoa, domekan eskuratu zuen Lasarten egindako krosetan. "Lasterketan zehar birritan entzun nien eza-



Mari Jose Gil atleta arrasatearra. | GOIENA

guneri bigarren nindoala esaten, baina ez nien kasurik egin. Abuztuan operatu nindutenetik, minak izaten ditut sarri, eta ez nuen inondik inora espero hain postu ona lortzea", azaldu du Mari Jose

Gilek, pozik. "Laster Euskadiko txapelketa jokatu da eta ekainean, Gasteizen, Espainiakoa, eta biak prestatzen dihardut", gaineratu du 72 urte dituen korrikalari arrasatearrak.

Gari berriz Koolturen, apirila zabaltzeko

Maiatzean Ander Lipus aktorea etorriko da gaztetxera, 'Publikoari gorroto' antzezlanarekin

O.E. | ARRASATE

Arrasateko gaztetxeko Kooltur Ostegunak egitasmoak oporrak hartuko ditu datozen egunetan; beraz, ez da kontzerturik egongo ez bihar, ezta hurrengo egunean ere. Hurrengo kontzertua apirilaren 11n izango da eta gonbidatua, Gari.

Iñaki Garitaonandia *Gari*-k zabaldu zuen, hain zuzen, Kooltur Ostegunak egitasmoa duela bi urte eta erdi inguru. 2010eko azaroan hasi zuen ibilbidea gaztetxeko ekimen honek, eta Gariren kontzertuak estreinatu zuen. 200dik gora lagun bildu ziren egun hartan gaztetxean. Garirekin batera, Raul Romok eta Hasier Oleagak osatzen duten Maracas para Dos taldeak eta Iruñeko Las Culebras rock taldeak osatuko dute Kooltur Osteguneko apirilako egitaraua.

EGITARAUA

APIRILAK 11

22:00 Gari.

APIRILAK 18

22:00 Maracas para Dos.

APIRILAK 25

22:00 Las Culebras.

Kontzertu guztiak Arrasateko gaztetxean izango dira.

Martxan dagoen hirugarren ikasturtea maiatzean bukatuko dute, eta, besteak beste, Ander Lipus etorriko da, *Publikoari gorroto* antzezlanarekin.



2010eko azaroan Garik gaztetxean egindako kontzertua. | JOKIN BEREZIARTUA

Apirilaren 19an hasiko da aurtengo Udaberri Musikaldia

Aurten ere antolatu du Udaberri Musikaldia ekimena Udaleko Kultura Sailak. Apirilaren 19an hasiko da. Ordu arte ez da kultura hitzordurik egongo, zinema bakarrak. Apirilko lehen asteburuan, Pedro Almodovarren *Los amantes pasajeros* emango dute.

Musakolako kantzak maiatzetik erabiltzeko izen-ematea zabalik

Musakolako frontoi, areto futbol, tenis, padel eta squash kantzak maiatz, ekain, uztail eta irailean alokairu finkoa izan nahi dituzten abonatuak zabalik dute eskaera epea. Apuntatzeko azken eguna apirilaren 21a da. Musakolako kiroldegian egin behar da eskaera: 943 77 16 77.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Etxebizitza hutsen zerga eztabaidagai bilkuran

EAJk jakin nahi izan zuen Gobernuak zenbat kexa jaso dituen gaiaren gainean

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Etxebizitza hutsen gaineko zerga igotzea erabaki zuen urte hasieran Bergarako Udalak. Ohiko etxebizitza ez diren errekargua %150ekoa izatea onartu zuten 2013ko ordenantzetan. Bada, badi-rudi erabakia berriro ere aztertu egingo duela Udalak eta, batez ere, etxebizitza hutsen definizioa hobeto zehaztu.

800 etxebizitza baino gehiago

Astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran EAJk adierazi zuen "arduratuta" daudela erre-karguak herritarrengan sortu duen egonezinarekin. "Kexa asko entzun ditugu kalean. Errekargua onartu zenean ere adierazi genuen etxebizitza hutsa zer den hobeto definitu behar zela", azaldu zuen Aintzane Oiarbide jeltzaleak. Zentzu horretan, Udal Gobernuko ordezkariak galdetu zien jakin nahi zutela gai horren harira zenbat kexa jaso diren Udalean. Ogasun zinegotzi Lauri Azkar-gortak erantzun zuen galdera eta adierazi zuen kexa "asko" jaso direla eta gaia berriro ere aztertu beharko dela: "800 etxebizitza huts

baino gehiago kontabilizatu dira Bergaran. Horiei guztiei errekar-guaren berri emanez gutun bat bidali zaie. Egia da kexa asko jaso ditugula eta alegazioetako batzuk arrazoizkoak direla, beste batzuk ez. Egia da gabezia batzuk ikusi ditugula eta erabakiak hartu beharko ditugu; batez ere etxebizitza hutsa zer den hobeto definitu, hurrengo urtean arazo bera ez izateko".

UNEDen egoera

Jeltzaleek bestetik Bergarako UNEDen egoeraren inguruan galdetu zioten Udal Gobernuari. "Ikasleak arduratuta daude eta jakin nahi dugu eskola presentzialak kolokan dauden edo ez Bergaran eta zer gertatuko den Aste Santuko oporren ostean. Hedabideen bitartez jakin dugu batzorde berri bat osatu dela eta jakin nahiko genuke batzorde hori zeintzuk osatzen duten eta zeintzuk diren helburuak. Lehen-tasuna izan beharko litzateke UNEDen hezkuntza kalitatea mantentzea", azaldu zuen Oiarbidek.

Jesus Elortza alkateak adierazi zuen ikasle eta irakasleekin

bilerak izan dituztela eta helburu nagusia dela, aurten behintzat eskola presentzialek orain arte bezala jarraitzea. Horrez gain adierazi zuen Jaurlaritzari, beste behin, UNED patronatuko kide izateko gonbitea egingo zaiola. Amaitu zuen esanez UNEDen egoeraren kezka "guztiona" dela.

Udal langileen lan-hitzarmena

Gai zerrendatik kanpo Udal Gobernuak Udaleko lan-hitzarmena onartzeko proposamena eroan zuen bilkurara. Horrek eztabaida eragin zuen oposizioarekin. Jeltzaleek azaldu zuten "presaka" eta azken momentuan aurkeztutako puntua izanda, ez zutela denborarik izan gaia aztertzeko eta Udal Gobernuari leporatu zioten horrelako gai garrantzitsu baten oposizioaren iritzia kontutan hartu ez izana. Alkateak adierazi zuen oposizioak komisiotara joateko aukera izan duela eta ez dela joan. Eztabaidak luze jo zuen eta azkenean erabaki zuten gaia mahai gainean uztea eta hurrengo bilkurara atzeratzea lan-hitzarmena onartzeko proposamenaren puntua.



Ibilaldia hasi aurretik beroketak egin zituzten. | JAGOBA DOMINGO

Tipi-Tapa: herritarrak martxan jarri ditu Udalak

Monitore batek lagunduta bigarren ibilaldi osasuntsua egin zuten martitzen goizean

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Bergararrak martxan ipintzeko asmoz, Udaletik plan estrategiko bati hasiera eman zioten, adin ezberdinetako herritarrei hainbat kirol eskaintza egiteko. Agorrosin kirolguneko arduradunak dagoeneko lanean dabilta helburu horiek lortzeko. Ildo horretatik doa Bergara Tipi-Tapa egitasmoa. Nagusieki kirola egiten laguntzeko hiru ibilbide prestatu dituzte, zailtasun maila, luze- eta desnibel ezberdinekin. Bergararrek ondo ezagutzen dituzte hiru ibilbideak; hirurak

Agorrosingo kirolgunean hasten dira: Agorrosin, Labegaraiaeta, Ibarbaltz; Agorrosin-Osintxu; Gerriko Berdea San Martzialetik eta Gerriko Berde osoa.

Monitore batekin ibilaldiak

Ibilbideak ezagutu eta ibiltzeko ohitura sustatzeko lau egunetan Junkal Zubizarreta monitorea-ekin ibilaldi osasuntsuak egingo dira. Martitzenean egin zuten bigarrena eta ibilaldia hasi aurretik monitorea hainbat aholku eman zizkien eta beroketak ere egin zituzten.



Joan den urtean lehiaketan parte hartu zuen film laburretako bat. | HERRIA

Pentekoste jaietan film laburren lehiaketa egingo dute aurten ere

A.B. | BERGARA

Hilabete pare bat falta dira Bergarako Pentekoste jaietarako, baina Herria Mugimendua dagoeneko hasita dago txosnaguneko egitaraua prestatzen. Zeregin horretan, kaleratu dituzte dagoeneko jaietako II. Korto Lehiaketaren baldintzak.

Aurtengoa bigarren edizioa izango da. Iaz lau film labur aurkeztu ziren eta lehiaketaren gaia *Bergarako jaiak* izan zen. Aurten, berriz, gaia librea izango da. "Ahalik eta jende gehien animatzea nahi dugu eta pentsatu dugu gaia zehazten badugu, akaso, baten bat atzera bota daitekeela. Hortaz, gaia librea izango da", azaldu digu Herria Mugimenduko Jone Santamariak.

Laburrek gehienez 10 minutu irauten beharko dute eta lanak aurkezteko epea maiatzaren 10ean itxiko da. Xaxaukonpartsa@gmail.com helbidera bidali edo kultura etxera eraman beharko dira.

Antolatzaileek herritar guztiak animatu nahi dituzte lehiaketan parte hartzera. Helburua ez da film labur profesional bat egitea, ondo pasatzea baizik.

Jaietako domekan emango dira

Irabazleak jaietako domekan, maiatzaren 19an, emango dituzte aditzera. Gaueko hamaiketan hasita, labur guztiak emango dituzte txosnagunean eta irabazleak orduan jasoko du saria. Txalo zaparradek erabakiko dute irabazlea.

Bergara Hiria argazki lehiaketa martxan da

Gaia librea izango da eta maiatzaren 8a izango da argazkiak aurkezteko azken eguna

A.B. | BERGARA

Bergara Hiria argazki lehiaketaren 29. edizioa deitu du Udalak Arizondo Argazkizale Elkartearen laguntzarekin. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den edozein afizionatuk har dezake parte. Gaiari dagokionez, librea da eta zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak entregatu ahal izango dira, edozein teknika edo prozedura erabilita.

Mota bakoitzeko lau lan aurkeztu daitezke gehienez. 40x50 cm-ko kartoi mehean aurkeztuko dira eta argazki paperaren tamaina eta argazkiko irudia bakoitzaren aukeran gelditzen dira.

Lanak entregatzeko azken eguna maiatzaren 8a izango da, eta udaletxera eraman daitezke edo gutun ziurtatua bidali.

Lau sari banatuko dira

Epaimahaiak maiatzaren 11n hartuko du erabakia eta lau sari emango dira: lehen saria, 210 euro eta garaikurra; bigarrena, 180 euro eta garaikurra; hirugarrena, 150 euro eta garaikurra; eta herriko onena, 120 euro eta garaikurra.



2011ko argazkietako bat. | M.B.

Garaikurrari dagokionez, Santi Arrietaren argitaratu gabeko zeramika-lanak izango dira. Sariak banatzeko ekitaldia maiatzaren 24an egingo dute, egubakoitza, 20:00etan, Aroztegi aretoan.

Horrekin batera, aurkeztutako argazkien artean aukeratutakoak, Aroztegi aretoan egingo dira ikusgai maiatzaren 24tik ekainaren 9a bitartean.

Argibide gehiagorako, 943 76 30 90 telefono zenbakira deitu daiteke (Benito).

'Bergarako industria' da udal egutegiko gaia aurten

A.B. | BERGARA

2013a orain dela gutxi hasi dugun arren, Udaleko Euskara Zerbitzuak zabaldu du 2014ko udal egutegiko argazkiak aukeratzeko epea. Hurrengo urteko egutegirako aukeratutako gaia da *Bergarako industria: langileak, prozesuak, eraikinak, tresneria...* Bada, gaur egungoa edo antzinakoa izan daiteke. Argazkiak aurkezteko epea irailaren 25ean bukatuko da.

Argazkiek 20x30 zentimetro izan behar dute -300 puntu pulgadako-, eta JPG formatua. Lanak CD batean aurkeztu behar dira Udaleko Euskara Zerbitzuan.

Egutegian erabiliko diren argazkiak ordaindu egingo dira. Udal Artxiboan jasota geldituko dira eta Udalak horiek erabiltzeko aukera izango du. Argazkilariaren ardura izango da aurkeztu dituen argazkiekin lotutako edozein baimen lortu behar izanez gero, horiek eskuratzea eta Udalak ulertuko du lortuak dituela baimenok.

Hilaren 19an abiatuko du Musika Eskolak 'Apirilean musika'

Ikasleak protagonista izango dituzten 20 ekitaldi inguru egongo dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Apirila iristear da eta Musika Eskolak kaleratu du dagoeneko, *Apirilean musika* egitaraua. Apirilaren 19an hasi eta 27ra arte 20 ikuskizun inguru eskainiko dituzte, gehienak eskolako ikasleek, eta kontzertuetako batzuk Musika Eskolan bertan egingo diren arren, gehienak herriko areto ezberdinetan egingo dira.

Kantu ikasleek abiatuko dute egitaraua, hilaren 19an, 19:00etan Mariaren Lagundiako elizan egingo duten ekitaldiarekin.

Beste ekitaldi batzuen artean, apirilaren 21ean, Astigarragako Musika Eskolako ikasleak etorriko dira eta Bergarakoekin batera zenbait konbo entzuteko aukera egongo da 18:30ean, Zabalotegi aretoan. Hilaren 22an orkestra sinfonikoa entzuteko aukera egongo da, 19:00etan, Mariaren Lagundiaren elizan eta 23an, berriz, *Musikaren zirku mundiala*-rekin gozatzeko aukera egongo da, 10:00etatik 12:00etara. 18:30ean, berriz, piano eta fagot kontzertuak egongo dira, biak ala biak, Zabalotegi aretoan.

Herriko kaleetan barrena ere ibiliko dira Musika Eskola-



Trikiti eskolako ikasleak kalean. | GOIENA

ko ikasleak. Hilaren 25ean, San Martin eta Simon Arrieta plazetan joko dute, 18:00etatik 19:30era. Egun horretan metal-instrumentuak, biolinak, trikitiak, flautak eta klanineteak entzuteko aukera egongo da,

besteak beste. Hilaren 25ean, txistu eta trikiti ikasleak izango dira protagonista, 18:00etan, Zabalotegi aretoan egingo duten emanaldian, eta 19:30ean, berriz, *Ni naiz* ipuina taularatuko dute flauta ikasleek.

Mirari arropa denda berria Ibargarain

Mari Carmen Nogueirasek arropa denda berria ireki du herrian. Martoko kalean badu aspalditik Mirari arropa denda, eta orain erdigunean ireki du beste bat, Ibargarai kaleko 14. zenbakian. Aurreko egunean egin zuten inaugurazio ekitaldia eta herritar ugari hurbildu ziren denda berria ezagutzera.



JONE ALBENZ

Agorrosin itxita egongo da apirilaren 2tik 7ra arte, garbitzeko

Agorrosin Ekintza Guneko arduradunek aditzera eman dutenez, kiroldegia itxita egongo da apirilaren 2tik 7ra arte, instalazioen urteko lehenengo garbiketara egiteko. Tabernari dagokionez, berriz, apirilaren 2tik 4ra itxita egongo da eta apirilaren 5ean, egubakoitza, irekiko dute berriz, ohiko ordutegiarekin.

Herrirak egindako zozketaren zenbaki saritua 1.339 da

Bergarako Herrirak zozketa egin zuen Erramu-zapatuan eta dagoeneko badago zenbaki saritua. Hain zuzen, zapatuko zozketan saritutako zenbakia 1.339 izan zen. Herriratik aditzera eman dutenez, irabazleek antolatzaileekin ipini behar dute harremanetan, telefono zenbaki honetara deituta: 663 04 35 05.

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Aritzeta Bartzelonara eta trikiti ikasleak Okzitaniara joango dira

M.B. | BERGARA

Aritzeta abesbatza Bartzelonara joango da Aste Santuan. Sabadelleko orfeoia gonbidatuta doaz eta bi emanaldi egingo dituzte. Egubakoitzean, hilak 29, Setmenat eta Castellar del Valles herrien artean dagoen baseliza batean, Puig de la Creu baselizan, egingo dute emanaldia. Saio horretan Castellar del Valles herriko Cor de Cavaliers-ekin abestuko dute. Zapatu goizean egingo dute bigarren kontzertua. Bigarren horretan Sabadelleko orfoiarekin abestuko dute.

Bestalde, Aritzetatik aurreratu dutenez, asmoa da Sabadelleko orfoia udazkenean etortzera Bergarara.

Trikitilariak Okzitaniara

Bergarako Musika Eskolako trikitilariak ere herritik kanpo bi emanaldi egiteko aprobetxatuko dute opor sasoiak.

Gipuzkoako Musika Eskolen Elkartek antolatuta, apirilaren 4tik 7ra, Tolosara (Okzitania) joango dira 9 trikitilari eta 2 pandero jotzaile, Aritz Alustizaren gidaritzapean, ikasleek elkar ezagutzeko, zein beste herri batzuetakoak ezagutzeko. Izan ere, Antzuola, Legazpi, Zumarraga, Astigarraga, Hondarribi, Orrio eta Donostiako Musika Eskoletako ikasleekin batera arituko dira. Guztira 50 bat elkartuko dira, 12 urtetik hasi eta 40ra artekoak.



Aritzeta abesbatzako kideak. | GOIENA

Abian da Mendekoste jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa

M.B. | BERGARA

Pazkoak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Lehiaketan edozein pertsona har dezake parte eta lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 16ko 13:00ak aurretik. Kartelek 24x34 zentimetroko neurria izango dute, eta formatu bertikala. Paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztuko dira. Era berean, kartelaren kopia digitala CD informatiko batean ere aurkeztu beharko da. Teknikari dago-kionean, berriz, librea erabili ahal izango da, baina kartelek

ondorengo testua izan beharko dute nahitaez: *Pentekoste jaiak 2013 Bergara*.

Lehiaketara aurkeztutako lanak originalak izango dira, egileak berak sortuak, argitaratu gabeak eta beste lehiaketa batean inoiz aurkeztu gabeak. Udalak plagioa egon denaren zantzurik ikusten badu, sortutako kalteen aurrean kalte-ordainak eskatu ahal izango dizkio egileari. Lehiaketako irabazleak 400 euro eskuratuko ditu. Dena den, saria eman gabe ere geldi daiteke, epaimahaikoek gutxieneko kalitatez ez dagoela uste badute.

GOIENA RENT

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM

Etxe tutelatuaren eraikin bat egingo dute San Martinen

EAJk zuen proiektua aldatu egin du Bilduk

OIHANA ELORTZA | OÑATI

2011ko martxoan Udalak eta Egaralurrek sinatutako hitzarmenaren arabera, Udalak sei etxebizitza jaso behar zituen San Martin gunean, lur aprobetxamendu kontzeptuan. EAJ zegoen orduan agintean era erabaki zuen gizarte zerbitzuetara zuzendutako sei etxebizitza komunitario prestatzea. Oraingo Udal Gobernuak, ordea, Bilduk, erabaki du ekipamenduetarako hutsik dagoen San Martingo orube batean eraikin berri bat egitea, etxebizitza tutelatuak egiteko. "Iruditzen zaigu beste orube hori aprobetxatuta sei etxebizitza eraiki ordez 12 egin ahal izango direla, 40 metro koadro ingurukoak, horrela herritar kopuru zabalago batengana iritsiz", azaldu zuen otsaileko osokoan Mikel Biain alkateak. Beraz, San Martingo seigarren zenbakian babes ofizialeko sei etxebizitza jaso beharrean, Udalak dirutan jasoko du horien balioa, 926.000 euro pasa.

EAJ ez dago ados

EAJ alderdia, baina, ez dago ados erabaki horrekin. "Babesik gabeko kolektiboendako ez dago zerbitzu egokirik Oñatin; ez, behintzat, gizarte politika aurrerakoi baten ikuspuntutik. Eta hutsune hori bete gura genuen San Martingo aukerarekin. Esklusioan edo esklusio arriskuan dauden herritarrak, indarkeria sufritu duten emakumeak, buruko gaitasunak duten edo desjabetzengatik etxebizitza barik gelditu diren herritarrendako etxebizitzak lirateke", azaldu du Lourdes Idoiak. "Horretan ados gaude, baina babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa eginda zegoenean ekipamendu arean etxebizitza sozialak



San Martinen hutsik dagoen orube batean jasoko dute eraikina. | TXOMIN MADINA

egitea proposatu zigun enpresak, baina ezetz esan genion, gure helburuak ez zirelako horiek. Guk erabaki genuen gure horretan ezer ez eraikitzea aurrerantzean gizarte zerbitzuek erabiltzeko uzteko", zehaztu du Idoiak. "Kontra gaude mahai gainean dirua kobratzea bakarrik jartzen

delako, plan alternatibo zehatzik gabe, eta hau guztia batzordeetan ez delako tratatu", gaineratu du EAJko bozeramaileak.

Zarauzko eredia Oñatin

Etxe tutelatuaren proiektua gartzeko Aldundiari laguntza eskatu dio udalak. "Legazpin, Zarautzen eta Astigarragan izan ginen, hango ereduak ikusteko. Zarauzkoa aproposa iruditu zitzaigun Oñatin aplikatzeko", azaldu du alkateak. Etxe tutelatu horien eraikina San Martingo lehen etxeen segidan dagoen orubean jaso gura du Udalak. Oraindik, baina, ez dago zehaztuta lanak noiz hasiko dituzten.

Bestalde, joan den astean egin zen martxoko osoko bilkuran onartu zuten San Martingo sei zenbakiko etxebizitzaren zozketa egitea.

| DATUA |
|--|
| 12 |
| ETXEBIZITZA |
| Egingo duten eraikinean 40 metro karratu inguruko 12 etxebizitza tutelatu eraikitzeko asmoa du Udalak. |

Bederatzi sari ekarri dituzte herriko atletek Anoetatik

O.E. | OÑATI

Aloña Mendiko atletek sekulako emaitzak lortu dituzte aurreko astean Donostiako Anoeta belodromoan jokutako Europako atletismo txapelketan. 5 domina eta 4 diploma lortu dituzte.

Oñatiko taldeko atleta onena eskarmentu handia duen Marisol Ramos izan da. 50-55 urteko kategorian lehia da eta hauetxe izan dira lortu dituen emaitzak: urrea krosean, taldeka; zilarra krosean, indibidualki; brontzea 3.000 metrokoan; eta bosgarren postuan sailkatu da 1.500 metroko lasterketan.

Tasio Gomezek brontzezko domina lortu du 1.500 metroko lasterketan.

Jose Luis Gartzia zazpi-garren postuan helmugaratu zen krosean, eta, emaitza horrekin, urrezko domina lortu zuen taldeka. Bestalde, 11. postua lortu zuen 3.000 metroko lasterketan.

Ramon Varelak krosean 12. postua lortu zuen, eta, bere helburuak betetzeaz gain, esperientzia hartu du maila horretako txapelketa baten.

Martxa eta abiadura

Martxako modalitatean Oñatiko atletak lortu dituzten emaitzak ere esanguratsuak izan dira. Diziplina honetan hasi berria den Juan Carlos Ugarte, adibidez, domina lortzetik gertu sailkatu da: 6. eta 7. postuak lortu ditu 3.000 eta 5.000 metroko probetan, hurrenez hurren.

Javi Gomez atletak, berriz, abiadura probetan hartu zuen parte, 60 eta 200 metroko lasterketetan. Proba bietan finalerdietan sartzetik oso gertu gelditu zen.

Udal zerbitzu gutxiago daude Aste Santuan

O.E. | OÑATI

Aste Santuko egunetan, bihertik, eguena, apirilaren 1a arte, biak barne, normalean baino udal zerbitzu gutxiago egongo dira herrian.

Udaletxe bulegoak, esaterako, itxita egongo dira bihertik hurrengo astelehena arte, apirilaren 1a barne. Zubikoa kiroldegian ere ordu-tegi ezberdina izango dute zerbitzuek egun batean edo bestean. Igerilekuak itxita egongo dira, Jaurilaritzako Osasun Sailak urtero agintzen duen lehen garbiketa sakona egiteko. Kiroldegiko gainerrako zerbitzuak, berriz, itxita egongo dira bihar, etzi eta apirilaren 1ean; zapatuan 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:30era egongo da zabalik eta domekan, 09:00etatik 14:00etara.

Zinemarik ez

Kultura etxea ere itxita egongo da egunetik astelehenera arte; beraz, ez da liburutegi, KZgune eta zinema zerbitzurik egongo. Hurrengo filma apirilaren 4ko zineklubean emango dute.

OHARRAK

IRUÑERAKO AUTOBUSA

Domekan Iruñean egingo den Aberri Egunerako autobusa aterako da 09:30ean postetxetik. Arrano tabernan daude txartelak salgai.

GURUTZE-BIDEA

Egubakoitzean gurutze-bidea egingo dute herriko elizetan eta baita hainbat auzotako ermitetan ere.

Espeleoabentura eta arte eta historia bisitak Aste Santurako

O.E. | OÑATI

Urtero egin ohi duenez, aurten ere bisita gidatuak antolatu ditu Oñatiko Turismo Bulegoak Aste Santuko egunetarako. Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia bisitatuko dituzte, eta egun eta ordu zehatzetan egingo dituzte irteera gidatuak.

Bisita gidatu guztiak Turismo Bulegotik abiatuta egingo dituzte. Unibertsitatea eta parrokia, biak, ikusteko bisitak 75 minutuko iraupena du eta 2,50 euro ordaindu behar da. Unibertsitatea bakarrik ikusteko bisitak, aldiz, 40 minutu irauten du eta 1,50 da sarreraren prezioa. Bisita horietan parte hartzeko aurrez izena

ematea komeni da, eta horretarako tokia da Turismo Bulegoa. Behar duen informazio guztia ere hantxe eskura dezake interesatuak. Turismo Bulegoaren telefonoa hauxe da: 943 78 34 53.

Espeleoabentura Arrikruzten

Bestalde, espeleoabentura egiteko aukera zabaldu egin dute Arrikruzten. Apirilaren 4ko deialdia beteta dago eta apirilaren 5ean beste espeleoabentura bat egingo dute, 10:30ean. Izena emateko telefonoa hau da: 943 08 20 00. Horrez gain, Arrikruzteko kobak ikusteko bisitak ere egingo dituzte, euskaraz eta gaztelez. Ordubeteko bisitak dira.

BISITA GIDATUAK

MARTXOAK 28

12:30 Unibertsitatea eta San Migel parrokia.

17:00 Unibertsitatea eta San Migel parrokia.

MARTXOAK 29

12:30 Unibertsitatea.

17:00 Unibertsitatea.

MARTXOAK 30

12:30 Unibertsitatea eta San Migel parrokia.

MARTXOAK 31

12:30 Unibertsitatea eta San Migel parrokia.

APIRILAK 5

10:30 Espeleoabentura Arrikruzten.



Azpeitiko Ze Esatek! taldea. | NOTICIASDEALAVA

Ze Esatek! eta Maldan Behera taldeek kontzertua egingo dute gaztelekuan apirilaren 6an

Ze Esatek! taldeak kontzertua egingo du gaztelekuan apirilaren 6an, 22:30ean. Kontzertuaren aurretik, gainera, saio didaktikoa egingo du, 18:30ean. Gasteizko Maldan Behera taldeak joko du Ze Esatek! taldearekin batera eta sarrera bost euro da. Ze Esatek! 2009an Euskal Herrian sortutako rock, reggae eta ska taldea da. Beste talde batzuetatik joandako musikari esperimentatuz osaturiko banda da. Orain arte hiru disko kaleratu ditu.

Coprecik kale bat izango du Aretxabaletan

Kooperatibak egin zuen eskaria ikertu eta osoko bilkuran onartu zuten gaia

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Berrogeita hamar urte bete ditu aurten Coprecik. Urtemuga horren harira, kooperatibako kideek Udalera jo zuten eskaera zehatz batekin: hain zuzen ere, enpresa kokatuta dagoen goiko kaleari Copreci izena ipintzea.

Udalak eskariaren gaineko gogoeta egin zuen, eta inguruko enpresak jakinaren gainean ipini zituen ondoren. Alegaziorik jaso ez dutenez, astelehenean egindako osoko bilkuran gaia bozkatu zuten.

Izaera eta bilakaera ardatz

Aralar alderdiaren abstentzioarekin eta Bildu eta EAJren aldeko botoekin onartu zen, azkenean, bidearen izendapena.

Bozketaren aurretik, taldeek gaiaren inguruan euren ikuspun-

tu azaldu zuten. Ana Bolinaga alkateak, esaterako, Copreci ez dela edozein enpresa adierazi duen: "Bere kooperatiba izaera kontuan hartuta eta herrian izan duen bilakaera ikusita, gaia landu behar zela ikusi genuen".

Aralarreko ordezkariak abstenitu egingo zirela esan eta arrazoiak eman zituzten: "Orain arte izen toponimikoak ipintzeko irizpidea eduki dugu. Ez dugu, noski, Copreciren kontra ezer, baina kale bati espresa baten izena ipintzeak ez digu belarrira ongi egiten eta gainera, aurrekari arriskutsua sortu dezake". Dena dela, kooperatibak eginiko lana aitortzearen alde agertu ziren Aralarrekoak, "plaka batekin, esaterako".

Orain arteko irizpideak jarraitzearen inguruan, alkateak esan

zuen "Udalak malgutasunez jokatzeke aukera" izan behar duela eta ez lirakeela jarduteko betiko moduetara mugatu behar.

Proposamenak aldeko boto gehiago jasota, Copreci gaineko bideari izena aldatzeko beharrezko irizpideak egingo dituzte. "Eta ondoren, kalearen izena daraman plaka eskatu beharko dugu".

ESANAK

"Herrian izan duen bilakaera aintzatetsi gura dugu"

ANA BOLINAGA | ALKATEA



Aurrerantzean Copreci deituko den bidea. | Z.V.D.M.

Bidegorrien titulartasuna

Ez zen osoko bilkuran jorratutako gai bakarria izan. Besteen artean, bidegorrien eskualdakea proposamena onartu zuten udal ordezkariak. Hori horrela, bi bidegorri zatiren titulartasuna lagako dio Udalak Gipuzkoako Diputazioari, hain zuzen ere, Mugikortasun sailak kudeatuko ditu.

Alde batetik, CVL enpresaren eta Arrasateko biribilgunearen arteko 209 metro igaroko dira Foru Aldundiaren eskutara, eta baita Eskoriatzara bidean doan

bidegorri zatia beste 300 metro ere.

Bestalde, galde eta eskarien orduan, Mikel Uribeberriak batzordeetako bileren egunak finkatzea eskatu zuen. "Ez da eskaria egiten dudana lehenengo aldia, eta garrantzitsua dela iruditzen zait". Aralarko Joxe Anjel Antxiak ere ideia ona izango litzatekeela adierazi zuen, "lan egiteko modu hobe delako".

Horren harira, Bolinagak adierazi zien zenbait batzordek finkatuta dituztela datak; Kultura edota Ongizateak, esaterako.



Besteen artean, puzgarriak egongo dira Ibarren. | GOIATZ ARANA

Opor egunetan ordutegi eta ekintza bereziak Ibarren

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Ibarra kiroldegia ordutegi berezia izango du honako egunotan: bihurtik apirilaren 1era (09:00-14:00); apirilaren 2tik 6ra (08:30-14 eta 16:00-20:00); eta apirilaren 7an (09:00-14:00).

Umeentzako ekintzak ere antolatuta dituzte: apirilaren 2an 4-9 urte bitarteko haurrentzako jolasak (16:30etik 18:00etara) eta 11-14 urtekoentzat kirol jarduerak (18:00etatik 19:00etara). Apirilaren 3an puzgarriak igerile-

kuan: 3-6, 7-10 eta 11 urtetik gorakoentzat, 16:30ean hasita. Apirilaren 4an jolasak 4-9 urte artekoentzat eta spinning saioa 11-14 urte bitartekoentzat, 16:30ean eta 18:00etan.

Udaletxea Pazko astean

Pazko astean edozein arazo izan eta udaltzainen beharra edukiz gero, beti bezala joan daiteke udaletxera. "Sail bakoitzean 14:00ak arte jendea egongo da", adierazi dute Udaletik.

Lan-poltsak osatzeko deialdian izena eman zutenen onartu eta baztertuen zerrenda jendaurrean dago

Aretxabaletako Udalak arkitekto teknikoan eta herri-lanetako ingeniari teknikoan lan-poltsa osatzeko deialdia egin zuen eta 31 lagunek eman zuten izena. Dagoeneko argitaratu dute onartu eta baztertutako zerrenda (<http://www.aretxabaleta.com/helbidean/kontsulta/daiteke>) eta alegazioetarako epea irekita dago. Bestalde, euskararen laugarren hizkuntza maila egiaztatze proba apirilaren 12an egingo dute, 10:00etan, Arkupen.

Zortzi aurpegi eta ideia berri ugari Aretxarten, urtarrila ezkerero

Apirilaren 15etik aurrera denden hamabostaldia egingo dute Aretxartekoek; ekimenarekin Aretxabaletan kontsumitzera animatu gura dituzte herritarrek

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Aretxarte merkatarien elkarteak batzordekideak berriro ditu eta urtarrila ezkerero, zortzi aurpegi berrik osatutako taldea buru-belarri ari da lanean. Aurreko batzordea bost kideetako zen, eta "jende berria taldean sartzeko prest zegoela ikustean utzi egin zuten", eman du aditzera Idoia Elexpuru Aretxarteko lehendakari berriak.

Aretxarte, osasuntsu

Aretxarte nola topatu duten galdetuta, egoera onean dagoela adierazi du Elexpuru. "Bazkideok ipintzen dugun dirua eta Udaletik jasotzen den laguntza urtean zehar ekintza ezberdinak antolatzeko baliatzen da. Orain diru hori bideratzeko ideia berriak pentsatzen ari gara".

Taldeak lanerako daukan gogoa azpimarratu gura izan du; buru berriek asmo berriak egikartzeko aukera ekarriko dutela ziur baitago elkarteko lehendakaria. Aretxarteko lagunak urtero kalera irteten dira ekintza ezberdinak egiteko, eta horietan mantenduko dituzte beraien agendan. Esate baterako, Ixadebalde eta moda desfilea egiten segituko dutela adierazi dute.

Denden hamabostaldia

"Baina berritasunen bat edo beste ere egongo da. Elkarte 35 lagunek osatuta dago, eta urtean



Aretxarteko batzordeko kideetarikoz batzuk. | Z.V.D.M.

zehar guztiak protagonismo apur bat edukitzea gura dugu. Hori horrela, denda bakoitzak bere hamabostaldia edukiko du eta denbora horretan zehar opari bat egongo da erosleen artean zozketatzeko".

Dendari garrantzia eman eta erosleak herrian kontsumitzera

animatzea da bilatzen dutena eta urte bukaera bitartean aurrera eramango dute ekintza. "Apirilaren 15ean, Belar Meta eta Asensio arropa-denden hamabostaldia izango da".

Bazkide berriak

Erronka ezberdinak ditu 2013rako Aretxartek. "Udalak bere webgunean merkatari zuzendutako tokia du, eta guk kudeatzea gura du. Horri helduko diogu".

Bestalde, Aretxabaletako merkatari elkarteak bazkide berriak egitea gurako lukeela adierazi du. "Herriko edozein denda eta tabernentzako zabalik gaude, eta geroz eta gehiago izan, orduan eta hobeto. Denok ezagutzen dugu elkar; interesatuak ipin daitezela gurekin harremanetan".

DATUA

8

KIDE

Zortzi lagun berrik osatzen dute Aretxarte merkatari elkartearen batzordea.

Apirilaren 2an eta 3an Uxarrera joateko aukera dute gazteek

Eskoriatzako gaztelekuaren eskutik, Uxarrera joango dira herriko gazteak datorren astean; hain justu ere, apirilaren 2an eta 3an egingo dute irteera. Bi egun emango dituzte kanpoan eta gaua hango txabolan pasatuko dute. Besteak beste, inguruko mendiak ezagutuko dituzte egun horietan, eta jinkanak egiteko asmoa ere badute.

Horretaz gainera, Pazko asteko asteburuan ere zabalik izango dute gaztelekua. Dena dela, zehazteke dituzte oraindik egun horietan egingo dituzten ekintzak; joaten diren gazteekin adostuko dituzte.

Apirilaren 27ko sagardotegiko irteeran izena eman daiteke

Urtero moduan, sagardotegira joango dira herriko erretiratuak. Apirilaren 27an egingo dute irteera, Usurbilgo Aginaga sagardotegira. Betiko moduan, egun osoko irteera izango da: 09:00etan herritik irtengo dira, eta, bidean, Tolosan egingo dute geldiunea, merkatu txikia bisitatzeko. Jarraian, Donostiarantz abiatuko dira. Hiriburuan hainbat tragoxka hartuko dituzte. Sagardotegian bazkaldu ostean, herrira itzuliko dira.

Interesa dutenek apirilaren 18a baino lehen eman behar dute izena, martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 12:30era, Olazar erretiratuen elkarreko egoitzan.



Etzi, egubakoitza, egingo dute Elorretako errotara bisita. | MIRIAN BITERI

Datozen egunotan, Eskoriatzan geratzen direnek badute zer ikusi

Elorretako errota, Zubiate labea eta herrian bisita gidatuak izango dira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurten ez dago herritik irten beharrik datozen egunotan bisita gidaturen bat egiteko, Aste Santuari begira hiru irteera antolatu dituzte eta Ibarraundi museotik. *Eskoriatzako lanbide zaharrak ezagutu* lelopean, Zubiate labea eta Elorretako errotara bisitak izango dira. Horien harira, honakoa esan digu museoko teknikari Eneritz Zubiak: "Lehenengo lanbideen hainbat adibide ditugu herrian: Elorretako errotan irina egiten zuten eta Zubiateko labean,

zeramika. Antzinako bi lanbide dira; beharbada, jendeak hain gertuko ez dituenak. Bisitariak lanbide horietara gerturatzea da helburua". Hain zuzen, Elorretako bisita ordu erdi ingurukoa eta Zubiatekoa ordubeteko izango dela esan digu.

Horrez gain, apirilaren 1ean, astelehena, herrian ibilbidea egingo dute, eraikin esanguratsuenetan geldiuneak eginda. Zubiak aipatu du ez direla eraikinetan sartuko eta bakoitzaren azalpenak kanpoaldean emango dituztela.

Irteera hori ere ordubeteko izango da. Zubiak esan du bisitetan parte hartu gura dutenek ez dutela izena aurretik eman beharrik, eta egunean bertan Ibarraundin agertzearekin nahikoa dela.

Pazko astean zabalik

Bisitez gain, Pazko astean zabalik izango da Ibarraundi. Martitzenetik egubakoitzera 09:00etatik 12:00etara bisitatu ahal izango da. Zubiate labea ikusteko aukera ere izango da; interesatuek museotik pasa behar dute aurretik.

Udal zerbitzuak egunotan

Ordutegi bereziak dituzte egunotan udal zerbitzuak. Kiroldegia izan ezik, gainerakoak martitzenara arte daude itxita. Eta Pazko astean honako ordutegia izango dute: udaletxea, 10:00etatik 13:30era; kultura etxea, 08:00etatik 15:00etara; eta liburutegia, betiko ordutegian.

Kiroldegia bihurtik domekara 09:30etik 13:00etara egongo da zabalik, apirilaren 1etik 3ra itxita eta 4tik 7ra, 08:00etatik 21:00etara.

BISITA GIDATUEN ORDUTEGIA

BIHAR, EGUENA

11:00 Zubiate labera bisita, erdaraz.

12:00 Bisita bera euskaraz.

ETZI, EGUBAKOITZA

11:00 Elorretako errotara bisita, erdaraz.

APIRILAK 1

11:00 Herrian ibilbidea, erdaraz.

12:15 Bisita bera euskaraz.

Break dance, badminton eta aerobik ikastaroak martxan

Kirol Zerbitzuak udaberrirako eskaintza aurkeztu du; ikastaroez gain, Osasun Astea ere egingo dute

M.B. | ESKORIATZA

Dagoeneko igartzen hasi da herriko kirol aholkulari berriaren lana, udaberrirako eskaintza aurkeztu du eta egunotan. Apirilean hiru ikastaro jarri gura dituzte martxan. Batetik, break dancea dago. Apirilaren 7tik maiatzaren 28ra izango da, martitzenetan, 18:00etatik 19:00etara, Manuel Muñoz kiroldegian. Bazkideendako prezioa 19 euro da eta gainerakoendako, 24 euro.

Bestetik, badmintona familian praktikatzeko aukera ere eskainiko du Kirol Zerbitzuak. 7 eta 12 urte arteko gazteendako eta gurasoendako da. Saio horiek ere martitzenetan izango dira apirilaren 9tik ekainaren 18ra, 17:00etatik 18:00etara, kiroldegian. Hilabeteko ordaindu beharko da

ikastaroa: bazkide diren umeek 15 euro eta abonatuta ez daudenek, 20 euro; eta abonatuta dauden bikoteek 20 euro eta abonatuta ez daudenek, 25 euro.

Hirugarrenik, aerobik ikastaroa dago, apirilaren 8tik maiatzaren 29ra izango dena. Astelehen eta eguaztenetan dira eskolak, 18:00etatik 19:00etara, kiroldegian. Ikastaroagatik 35 euro ordaindu beharko dituzte kiroldegiko bazkideek eta abonatuta ez daudenek, 40 euro. Ikastaro guztietarako izen-ematea apirilaren 5ean amaitzen da.

Osasun Astea

Bestalde, apirilaren 8tik 14ra Osasun Astea izango da herrian. Askotariko ekintzak egingo dituzte: hitzaldiak, kirol jarduerak eta datatzak, besteak beste.



Garbiketa lanak egingo dituzte igerilekuan. | GOIENA

Apirilaren 2tik 7ra bitartean itxita egongo da igerilekua

Garbiketa astea dela eta, apirilaren 2tik 7ra bitartean, biak barne, itxita egongo da Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekua. Eta ez da izango itxita egongo den gune bakarra; izan ere, apirilaren 2an eta 3an kiroldegi osoa egongo da itxita. Kirol

aholkulari Rosa Lasagabasterrek jakinarazi du derrigorrezkoa dela desinfektatze lanak egitea. Horrekin batera, barkamena eskatu nahi izan die erabiltzaileei, itxierak sor ditzakeen eragozpenengatik.

Lehenengo ahoz aho maratoia egingo da Antzuolan apirilaren 21ean

Ipuinak, garai bateko kontuak, istorioak... kontatzeko saio laburrak izango dira eta edonork har dezake parte

OIHANA ELORTZA | ANTZUOLA

Antzuolako Udaleko Kultura Sailak apirileko ekintzen egitaraua kaleratu du eta horien artean dago apirilaren 21ean egingo den lehenengo ahoz aho maratoia. Oihulari Clown taldearen laguntzarekin antolatuta dute.

Maratoia

Maratoi horretan ahoz zerbait adierazi nahi duten guztiek har dezakete parte: ipuinak, istorioak, garai bateko bizimoduaren pasarteak, bertsoak, kantuak... Ahoz ahoko saio laburrak eskainiko ditu nahi duen edonork. Parte hartzeko, hori bai, izena eman behar da alde aurretik, udaletxera joanda edo Udaleko Kultura batzordera mezua bidalita; kultura@antzuola.net da helbidea. Bestalde, KZgunean tutorea egongo da apirileko eguen guztietan, azkenengoan izan ezik. Hau da, apirilaren 4an, 11n eta 18an tutorea egongo da KZgunean, liburategian, 09:00etatik 13:00etara.

Patziko Txerren ez aurten

Liburuaren Nazioarteko Eguna da apirilaren 23an, eta horren harira Patziko Txerren ipuin sariketa antolatu izan du azken urteotan Udalak. Aurten, baina, ez da egongo lehiaketa hori, "ipuinik ez delako landu", liburutegi-ko arduradunaren esanetan.

Udalekuak

Bestalde, udalekuak antolatu ditu aurten ere Udalak. Udalekuak uztailean egingo diren



Joan den urtean kalean egindako ipuin kontaketa. | GOIENA

arren, izen-ematea datorren hilabetean, apirilean, zabalduko dute. Apirilaren 15etik 26ra egongo da aukera apuntatzeko. Izena emateko orriak ikastetxean banatuko dituzte, eta www.antzuola.com atariaren bidez ere egin ahal izango da. Udalekuetako begirale izan gura duten gaztetxoek ere epe bera dute izena emateko; Udalaren webgunearen bitartez egin behar dute. Joan den urtean 131 ume ibili ziren udalekuetan, 5 urteko umeen gelatik hasi eta 6. mailarainoko umeak; hau da, 6 urte-tik 11 urtera artekoak.

Senegali buruz berbetan

Anelkarrek antolatuta, Senegali buruzko hitzaldia egongo da apirilaren 4an, 18:30ean, Orlanen.

Hango moja batek eta misiolari kataluniar batek azalduko dute ze puntutan dauden Antzuolak laguntzen dituen proiektuak, batez ere maternitatea eta eskola.

Ernesto Agirre ipuin kontalaria Torresoroan

Historias en fa sostenido izeneko antzezlanaren egiteko domeka iluntzean Ernesto Agirre arrasatearrak Torresoroan. Joan den martxoaren 20an Nazioarteko Narrazioen Eguna ospatu zen, eta Udalak Oihulari Clown taldearekin eta herriko ikastetxearekin elkarlanean antolatu zituzten ekitaldietako bat izan zen.



JOSETXO ARANTZABAL



Oñatiko Ikusi Maskusi antzerki taldeko aktoreak. | GOIENA

Alkatearen hankaren bila ibiliko dira arratsaldean

'¿Dónde está la pierna del alcalde?' antzezlanaren ekarriko dute Oñatitik Torresoroara, 17:00etan

O.E. | ANTZUOLA

¿Dónde está la pierna del alcalde? izeneko antzezlanaren egiteko gaur, eguaztana, Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarreko Ikusi Makusi antzerki taldeak. Torresoroan izango da, 17:00etan.

Alkatearen hanka ortopedikoaren bila jardungo dute ordu eta erdian taularen gainean egongo diren bederatzi aktoreek. Istorioa irudikatzen bi dekoratu izango dituzte, egongela bat eta parrokiako bulego bat.

Aurreko lanek moduan, oraingoak ere, umorea oinarri duen istorioak harrera ona izan zuen erretiratuek betetako herriko antzokian.

Ikusi Makusi taldearen zortzigarren antzezlanaren egiteko da *¿Dónde está la pierna del alcalde?* Joan den azaroan estreinatua zuten Oñatin, eta, harrezkero, herri askotan antzeztu dute. Asun Artzuaga da taldeko zuzendaria eta gustura dago orain arte izan duen harrerarekin; entsegu asko egin dituzte.

Aste Santuko jaiegunetan itxita egongo dira herriko udal zerbitzu guztiak

Aste Santuko jaiegunetan, bihurtik apirilaren 1a arte, biak barne, itxita egongo dira udal zerbitzu guztiak. Pazko astean, apirilaren 2tik aurrera, ohiko ordutegia izango dute. Udal zerbitzuetan sartzen da, udal txerren bulegoak ez ezik, baita liburutegia ere. Epaitegia, aldiz, bihar, eguena, itxita egongo da eta hurrengo astean, zabalik.

Antzuola-Bergara errepideko lanak bukatuta, gauzez ere zabalik dago gaurtik aurrera

Antzuola eta Bergara lotzen dituen GI-632 errepidea itxi egin dute, tarteka, gauzez, inguruko zuhaitzak botatzeko eta ondoren lurtean zuloa egiteko. Martxoaren 12an hasi zituzten lan horiek, eta, ordutik hona, itxi egin dute errepidea gauzez; 15 minutuan behin zabalitzen zuten. Lanak, baina, bukatu dituzte eta dagoneko zabalik egongo da errepide hori gau osoan.

Kalebarren itxita egongo da ibilgailuendako irisgarritasun obrak irauten duten bitartean

Kalebarrenen egiteko diharduten irisgarritasun lanak ez dituzte bukatu oraindik eta ondorioz, kaleak itxita jarraituko dit ibilgailuendako. Hain zuzen Kalebarren kaleko 7 zenbakitik 19ra egongo da itxita. Gogoratu kalea zabaldu arte, autobus geltokiak ez direla ohikoak izango: Bergara-Zumarraga ibilbidekoa Antiguian jarri dutela. Kontrako norabidekoa Torresoroan dago.

Autoenpleguari buruzko saioa egingo dute apirilaren 22an, eta edonorendako dago zabalik

Lan aktibaziorako ikastaroa antolatu du Bideberriko gizarteratze zerbitzuak. Lana bilatzeko teknikak, *on line* bidez lana nola bilatu eta autoenplegua landuko dituzte ikastaro horretan. Apirilaren 8tik 22ra izango da eta gaur, martxoak 27, da azken eguna izena emateko. Azken saioa autoenpleguari buruzkoa izango da, baina ez da aurretik izenik eman behar.

Andoni Solupe | Aramaio Hirigintza zinegotzia

"Denon artean erabaki behar dugu alde zaharra nolakoa izango den"

- ▶ 1996an onartutako plan berezia eguneratzeko beharra ikusten du Udalak
- ▶ Beste bilera ireki bat egingo dute apirilaren 10ean, helburuak zehazteko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ibarrako alde zaharra birgaitzeko plan bereziaren gainean egin dugu berba Andoni Solupe Hirigintza zinegotziarekin.

Hasteko, zer da PERIa?

Dokumentu urbanistiko bat da, eraikitzeko, birgaitzeko edota handitzeak egiteko baldintzak erregulatzen dituena. Jarduerak eta erabilerak ere erregulatzen ditu.

Zeintzuk dira PERIa eguneratzeko arrazoiak?

Hiru dira arrazoi nagusiak: bate-tik, 1996an onartu zen plan bereziak garatu ezin izan dituen proposamenak garatu ahal izateko aukera berriak bilatu gura ditugu; bestetik, testuinguru sozio-urbanistiko berrira eta legedi berrietara egokitu; eta azkenik, plan orokorrak egindako alde zaharraren mugatzean gune berriak sartu dira.

Bestalde, diagnostiko sozio-urbanistiko bat egin dugu, ikuspegi ezberdinak aintzat hartuta: eraikuntzen adina, erabilera, okupazio maila, jabetzaren erregimena... Lehen ondorioa da Udalak birgaitzea beharrezko ikusten duela. Eraikuntzen egoera orokorra egokia da eta baita alde zaharreko funtzionalitatea zein irisgarritasuna ere. Hala ere, eraikin gehienetan igogailuen falta sumatzen da. Ondorio desegokien artean daude, besteak beste, errekararen ematen duten zenbait eraikinen atzealdeak eta okupazio maila txikia dela orokorrean; etxe asko daude hutsik. Amaitzeko, espazio edo plaza irekien beharra nabaria da.

Ondorio horien aurrean, zein helburu finkatu dituzue etorkizuneko alde zaharrera begira?



Andoni Solupe. | JOKIN BEREZIARTUA

"Espazio edo plaza irekien beharra ikusten da; non egin erabaki behar dugu"

"Aparkaleku bat dago gune pribatuan, eta irtenbide bat eman behar zaio"

Beharrezkotzat jotzen den espazio edo plaza ireki hori non kokatu erabaki behar dugu. Bestalde, aparkalekuen arazoa konpondu beharra dagoela uste dugu. Badakigu aparkaleku bat dagoela gune pribatu batean, Osteta kalean. Gune pribatua denez, etorkizunean aparkalekurik ez dela egongo aurreikusten dugu eta arazoa heldu baino lehen irtenbide bat eman behar zaio.

Zein izango da prozesua?

Bi fase bereiztu ditugu: lehen fasean Udalak herritarrekin bilera bat egin zuen martxoaren 13an, diagnostikoaren ondorio, helburu eta proposamen nagusiak mahaiaren gainean jartzeko. Bileraren horretara jende gutxi etorri zen, eta, horregatik, apirilaren 10erako beste deialdi bat egingo dugu. Zertarako? Lehen bilera hartan landutako gaiak errepasatzeko eta PERIaren helburu eta proposamenak ahalik eta modurik zehatzenean finkatzeko. Izan ere, herritarren iritzia jasotzea ezinbestekoa da guretzeko. Bilera horietara agertzea oso garrantzitsua da; denon artean erabaki behar dugu nolakoa izango den etorkizunean Aramaioko alde zaharra.

Lehen fase horretatik irten-go litzateke aurrerapen dokumentua. Bigarren fasean, berriz, bigarren dokumentu bat eratuko genuke. Horretan eraikinen babes balio ezberdinak zehaztuko lirake. Hau da, balio arkitektonikoa izango da irizpidea; Udalak kontratatutako arkitektoak pasako dira etxe etxe balio arkitektoniko hori neurtu eta horren arabera babes mota zehazteko.

TXALOAK ETA TXISTUAK



GOIENA

Gaizki aparkatzera ohituta



Aramaion bizi den irakurle batek bidali digu goiko argazkia, Nardeaga kalean ateratakoa. Haren arabera, egunero ikus daitezke autoak espaloi gainean aparkatuta: "Espaloi aparkaleku moduan ulertzen dute askok", adierazi digu. Horrez gain, jakinarazi du euren autoa garajetik ateratzeko klaxona jo eta jo aritu behar izaten dutela askotan.

NIRE USTEZ

XABI IGOA



Goizero goizero

ndiatik idazten dut, eta bertan istorio hau kontatu didate: "Bazen behin, kulturari errotik loturiko herri bat. Margolari, poeta, artista, musikari, titiritero, eskulturagile, dantzari eta beste hainbeste pertsonaia (edo *personaje*) zituen herria. Behin, baina, bertakoa ez zen epaile bati ez zitzaizkion bi margolariren koadroak gustatu eta ondorioz, epailetara deitu zituen. Herriak adierazpen askatasuna eta bi margolariekiko elkartasuna aldarrikatu zuen arren, epaile jaunak berea-ekin jarraitu zuen..."

Istorioren hasiera den honek antzinakoa badirudi ere, gaur egun gure herrian ematen den egoera da. Bestela galdetu Jagoba Apaolaza eta Iker Pastor bertsolariei. Ustez norberak bere mundua margotzeko, islatzeko, dantzatzeko, abesteko... eskubidea duen arren, bi bertsolari horiek Madrilera bisita egin behar izan zuten bertso batzuen harira.

Egoera honek, baina, ezin du gure izaera sortzailea antzu bilakatu, ezin du herri sortzaile bat gelditu; kantatzen duen herri bat ez delako inoiz hilko.

Sortzaile batek behin esan zuen moduan: "...ezin nauzu hain errez bihurtu numero, kantari esnatzen naiz goizero goizero!". Eta askok bezala, nik ere kantari esnatu nahiko nuke goizero goizero.

("... ahaztu gabe guztioi muxu handi bana!")

Jon Herrarte pilotari aramaioarra, Arabako eskuz banakako txapelkunorde infantil mailan

Jon Herrarte pilotari aramaioarra domekan jokatu zuen Arabako eskuz banakako finala Gasteizko Ogeta pilotalekuan, infantil mailan. Finalan ezin izan zuen bere aurkariarekin, izan ere, 16-5 galdu zuen Amurrioko Kerman Alavaren aurka; hala ere, pozik egoteko arrazoiak baditu Herrartek, txapelketa ederra egin du-eta.



Herrarte aita-semeak. | X.H.

Korrikaren aldeko jaialdian herriko talde eta eragile gehienek hartu zuten parte hilaren 22an

Korrika Txikia amaitu ostean martxoaren 22an Korrikaren alde egindako jaialdian herriko talde eta eragile gehienek hartu zuten parte: trikitilariak, dantzariak -haurrek zein helduek batera dantzatu zuten-, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzak, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Paula Amilburu eta Maria Izaga bertsolariak eta Bea Asurmendi abeslaria. Azken dantza egiteko 120 lagun inguru irten ziren kantxara, giro ederrean. Amaitzeko, luntxa egin zuten.



ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

Mendira, sagardotegira eta Korrikara, Orixolekoekin

Zapatuan Donostia eta Pasaia artean mendi buelta ederra egin zuten 24 lagunek, Orixol elkartearen esker. 08:30ean Aramaioetik irten eta Kursaal inguruan hasi zuten buelta, kostaldetik. Pasaia heldu eta trago pare hartu ostean, Astigarragako sagardotegi baten bazkaldu zuten. Gero, Korrikaren 18. edizioan hartu zuten parte, Hernanitik pasa zenean. 21:30erako bueltan ziren Aramaion. Egun ederra igaro zuten; bai, horixe!

ELGETA

Elgetako Sortuk lantaldea eta lan ildo nagusiak aurkeztu ditu

Hogeit bat lagun elkartu ziren barikuan Ozkarbi elkartearen egindako ekitaldian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Azaroan hasi zuten Elgetan ere Sortu alderdia eratzekeo prozesua. Orduetik, lau herri batzar egin dituzte taldearen oinarri ideologikoak, ildo politikoa, barne antolaketa eta arduradunen aukeraketa egiteko.

Bariku iluntzen Ozkarbin egindako ekitaldian Sortu alderdiak Elgetan izango dituen lehentasunak, eta lan ildo nagusiak aurkeztu zituzten. Hitza hartu zutenak izan ziren: Mainer Cainzos, Sebastian Arantzabal, Ibai Larrañaga, Janire Lazkano, Iraitz Lazkano eta Enaitz Ezpeleta.



Elgetako Sorturen aurkezpena ekitaldia gidatu zuen lantaldea. | L.Z.

Hiru lan lerro nagusi

"Hiru borroka lerro nagusi aurreikusten ditugu", azaldu zuen Iraitz Lazkanok: "Masa borroka, borroka ideologikoa, eta borroka instituzionala".

Masa borrokaren barruan euskara, egoera sozioekonomikoa, hondakinen kudeaketa eta preso politikoa aipatu zituzten. Asmoa da atal bakoitzeko lantalde bat osatzea egoeraren gaineko kontzientzia zabaltzeko, eta lan proiektu ezberdinak aurrera eramateko.

Borroka instituzionalari garrantzia eman zioten aurkezpenean, eta lehentasunezko zatia jo zuten arlo horretako hutsuneak identifikatzea, eta betetzen saiatzea. Baita ere kasuan kasuko jardura protokoloak ezartzea, eraginkorrak izateko urtean urteko programak planifikatzea, eta Bilduren eta Sorturen arteko harremana definitzea. "Herritarrengana iritsi behar dugu", esan zuen Janire Lazkanok.

Borroka ideologikoa formazioaren garrantzia azpimarratu zuen Iraitz Lazkanok, eta mahai inguruak antolatzea edo materiala helaraztea proposatu zituen. Hala, komunikazioari pisu handia eman gura diote, eta zabalik dituzten hainbat kanal aurkeztu zituen Enaitz Ezpeletak: sortuelgeta@gmail.com, [@sortuelgeta](https://twitter.com/sortuelgeta), eta laster Elgetako atala martxan izango dituzten elgeta.ehbildu.net eta sortu.net blogak.

Enrike Larramendi | Margolaria

"Elorrioko, Abadiñoko eta Elgetako hainbat txoko margotu ditut"

L.Z. | ELGETA

Txikitatik datorkio afizioa, baina orain bi urtera arte ez du nahikoa denbora izan margolaritzari eskaintzeko. Orain bai, eta gozatu egiten du, gainera. Espaloian 53 lan ipini ditu ikusgai; Elgetako, Elorrioko eta Abadiñoko hainbat txoko ikusiko ditugu bertan maiatzaren 2ra arte.

Lapitzarekin eta luma-muturrarekin egindako lanak ekarri dituzu.

Bai. Orain 37 urte olioarekin hasi nintzen, baina aspaldi honetan luma-muturrarekin egiten dut lan. Argazkietatik abiatuta base-



Enrike Larramendi, Espaloian. | L.Z.

rri, ermita eta paisaia asko egin ditut.

Azken bi urteotan egindako lanak dira guztiak?

Gehienak bai. Gaixotu egin nintzen eta beste zereginik ez nuen margotzeko ekin nion. Argiñetako jaietan ipini nuen lehenengo erakusketa, eta orduetik egin ditut hainbat. Enkarguak ere jasotzen ditut, eta pozik nago.

Etxean margotzen duzu?

Bai. Nahi beste denbora dut orain, eta, nahiz eta margolan batzuek denbora luzea eskatu, gustatu egiten zait.

Autodidakta zara?

Bai. 9 urterekin egin nuen lehen koadroa, eta etxean gordeta daut. Orduetik ikastaro bat egin dut, itzalak-eta ateratzen ikasteke. Baina, bestela, autodidakta naizela esan daiteke.

Hurrengo hitzorduak: punk rock kontzertua, gerra garaiko ikus-entzunezkoa eta umorezko antzezlan

Gaztetxeak Penadas por la Ley, Apurto eta Tony Metralla y los Antibalas taldeen kontzertua iragarri du apirilaren 6rako. Apirilaren 11n, eguena, *Intxorta 76 urte* programako lehen ikus-entzunezkoa emango dute, 19:00etan, Espaloian; *Gerrako garrak Oñatin*. Apirilaren 12rako, *Para lo que hay que vivir mejor no morir nunca* antzezlan proposatu dute Espaloitik.

Orain arteko batzordekideak eta urteroko egitarau oparoa izango ditu aurten Salbadorpe elkarteak

Urteko batzarra eginda, Salbadorpeko 180 bazkideetatik 48k erabaki zuten iazko kide berek segituko dutela elkarte gidatzen. "Bideberririk dirua berdin emango digute; beraz, iazko antzerako ekintzak antolatuko ditugu eta 80 urtetik gorakoei omenaldia egingo diegu, bazkaria eskainita. 180 bazkideetatik 70 dira 80 urtetik gorakoak", esan du Pedro Mari Ubera presidentek. Lau txango, Aste Kulturala eta beste batzuk iragarri ditu. "Asteotan" zehaztuko dituzte.

Umeendako euskal dantzen ikastaroan izena emateko epea zabalik dago apirilaren 8ra arte

Ikastaroa apirilaren 10etik ekainaren 19ra bitartean izango da eta entseguak eguaztenetan egingo dituzte, 18:15ean, kiroldegiko gimnasioan. Eibarren euskal dantza erakusten dituen Irati Kortabitartek gidatuko ditu, eta interesatuek udaletxean zein liburutegian eman dezakete izena. Ekimena 2001. eta 2008. urteen artean jaiotako Elgetako neska-mutikoendako da. Prezioa ikastaro osorako 12 euro da.



L.Z.

200 bat lagun Azkonabietan

Zapatuan Eibarko, Soraluzeko eta Elgetako 200 bat lagun igo ziren Azkonabietara postontzi berria ipintzera. Herri bakoitzeko ume banak lotu zuen postontzia lurrera: Soraluzetik Irati Unamunok, Elgetatik Ander Ormaetxeak eta Eibartik Izaro Elduainenek. Antolatzaileek —hiru mendi taldeak— salda eta txorizoa banatu zuten tontorrean. Bazkariarekin joan ziren asko, eta Bolatokian giro ederra egon zen.

LEINTZ GATZAGA

Lehiaketa gastronomikoa, txangoak, eta beste, Toki Ederkoen eskutik

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Iazko jarduna onartu ostean, 2013koa landu zuten Toki Eder Erretiratuen Elkartearen aurtengo batzar nagusian.

Elkarteak dituen 38 bazkideetatik 22k parte hartu du batzarrean, eta erabakitakoan artean, urtero egiten dituzten bi txangoei eustea onetsi zuten. Lehena ekai-

nean egingo dute, uda sasoi izanik, kostaldera. Eta bigarrena urrian izango da, kasu horretan, Nafarroa aldera. Hirugarren bat izaten dutela ere gogora ekarri du Joxe Gorosabelek, Toki Eder elkartearen idazkariak: "Gipuzkoako erretiratuen ibilaldira ere joaten gara. 8 bat kilometroko izaten da".



Toki Eder elkartearen batzarrean parte hartu duten 22 bazkideak. | IMANOL SORIANO

Orain arteko batzorde bera

Horrekin batera, Gorosabelek jakinarazi du aurten ere parte hartuko dutela Gipuzkoako elkartearen lehiaketa gastronomikoan. Gogotsu joango dira, kontuan hartuta iaz probintzia artekoak eurek irabazi zutelako. Bestalde, Gabonetako karta jokoa antolatuko dutela ere kontatu du. Eta besteak beste, elkartearen batzordea aldatzeko proposamenak fruiturik ez duela eman aitortu du Gorosabelek, eta, horrenbestez, orain artekoek segituko dutela.



2012ko Itzuliko irabazle Samuel Sanchezek xanpainarekin ospatu zuen garaipena. | AMAIA TXINTXURRETA

TXIRRINDULARITZA

Hiru egunean pasatuko dira ziklistak Debagoienetik

Euskal Herriko Itzuliko lehenengo, bigarren eta laugarren etapetan ibiliko dira gure bailaran

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliak Debagoieneko errepideak hartuko ditu apirilaren 1etik aurrera. Oraingoan, lehenengo, bigarren eta laugarren etapetan pasatuko dira ibarretik: Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Elgetatik pasa-

tuko dira. Azken herri horrek zeresan handia izango du Itzulian: tropela hiru egunean pasatuko da handik (ikus profilak).


Lehen etapen, Bergaran, Arrasaten eta Elgetan zehar ibiliko da Itzulia, eta Asentzioko gaina igoko du tropelak, Arrasatetik, Kanpanzartik.

Bigarren etapen –Elgoibar eta Gasteiz artekoa– Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga zeharkatuko dituzte ziklistek. Tartean, Elgeta igoko dute, Uberatik, eta Gatzaga. Azkenik, laugarren etapen, Elgetatik eta Bergararik bi aldiz pasatuko dira. Itzulia Beasaingo erlojupekoarekin bukatuko da, apirilaren 6an.

IVAN VELASCO | CAJA RURAL TALDEKO ARRASATEARRA

"Egunean egunekoa antolatuko dugu"

Ivan Velasco arrasatearra Elgoibarko irteera puntuan egongo da, Caja Ruralen elastikoarekin.



CAJA RURAL

Bai. Kilometro asko egin ditut errepide horietan, eta ezagupen horrek lasaitasuna eta abantaila ematen dit.

Badaukazu etaparen bat begiz jota?

Ez. Egunez egun joango gara. Lehen etapa, Arratekoa eta Beasainen bukatzen dena oso gogorak dira. Saillapen orokorrerako ez daukagu aukera handirik.


Sanchez eta Contador

Sei etapa (Elgoibar-Elgoibar; Elgoibar-Gasteiz; Gasteiz-Trapagaran; Trapagaran-Arrate; Eibar-Beasain; Beasain-Beasain). 833,1 kilometro. 21 talde eta 168 txirrindulari. 32 mendate. Horiek dira aurtengo Itzuliaren zenbakiak.

Eta, hautagaiak? Bada, betikoak. Ohiko kineletan sartzen direnak. Bi nabarmen daitezke: Samuel Sanchez –iazko irabazlea– eta Alberto Contador –2008ko eta 2009ko irabazlea–. Baina beste batzuk ere ezin dira aipatu barik utzi: Richie Porte, Chris Horner eta Tejay Van Garderen, besteak beste.


1. ETAPA

TH: Tarteko helmuga




2. ETAPA

TH: Tarteko helmuga



4. ETAPA

TH: Tarteko helmuga



DUATLOIA

Ander Agirre, Euskadiko txapeldunorde

Antxintxika taldeko Ander Agirre bergararra esprint distantziako Euskadiko txapeldunordea da. Bestalde, Beñat Arnaiz laugarrena izan zen Ermuko proban eta Antxintxika taldea, talde onena. Iker Arkauz oñatiarra gazte mailako hirugarrena izan zen.



GOIENA

FUTBOLA

Aloñak atzeratutako partidua jokatu du apirilaren 7an

Otsailaren 24an elurragatik bertan behera geratu zen partidua jokatu du Aloñak apirilaren 7an, 16:30ean, Beti Gazteren kontra. Etxeko partidua izanik, irabazi egin behar dute oñatiarrek, ahalik eta azkarren, maila ziurtatzeko. Ohorezko Erregional Mailako liga bukatzeko zazpi partidua geratzen dira.

FUTBOLA

Kirol taldeek atsedean izango dute apirilaren 14ra arte

Aste Santuko oporrak aprobetxatuz, kirol ezberdinetako liga txapelketak eten egin dituzte. Pazko astean ere ez dute lehiarik izango gure taldeek. Futbola, eskubaloia, errugbia, saskibaloia, igeriketa... guztiak hartuko dute atsedean. Oporren ondoren, ligako azken txanpan sartuko dira guztiak.

BORROKA LIBREA

Maidar Unda | Europako txapelkunordea, 72 kilotan

"Urte askotako lanaren ondorio da zilarra; pauso bat gehiago eman dut eta asko baloratzen dut hori"

- ▶ Maidar Undak Europako finala galdu zuen Natalia Vorobevaren kontra
- ▶ Oletarraren hurrengo erronka uda parteko Mediterraneoko Jokoak dira

J. IRIONDO/M. BIKUÑA | ARRASATE

Londresko Joko Olinpiarretan eta 2010eko eta 2012ko Europako txapelketatan brontzeko dominak irabazi ostean, zilarrezkoarekin itzuli zen etxera Maidar Unda oletarra. Tbilisin (Georgia) jokatutako txapelketan Natalia Vorobevaren kontra galdu zuen finala. Txapelketatik bueltan, atzo, kiropraktikoaren kontsultara sartu aurretik egin zuen berba GOIENArekin.

Txapelketa gogor baten ostean, medikuaren kontsultatik pasatzea ezinbestekoa da?

Bai [Barre]. Txapelketa, bidaia... Horrek guztiorrek eragin zuzena dauka gorputzean. Atal guztiak bere lekuan jartzeko beharra nuen.

Txapelketa ondo bukatu nuen, gustura. Gainera, emaitza onak lortzen direnean, minak arinagoak izaten dira.

Zilarrezko dominarekin min guztiak ahaztu dituzu orduan?

Bai. Lehen aldiz irabazi dut zilarrezko domina. Georgiara joan aurretik esan nuen domina gosez nengoela. Nire helburua finalera heltzea zen, baina helburuak ez dira beti betetzen. Oraingoan, baina, lortu dut. Urrerako pausua

ematea falta izan zitzaidan, baina pozik nago lortutakoarekin.

Final-zortzirenetatik kanpo geratu zinen, eta finalera heltzeko bi borroka izan zenituen. Gogorrak izan ziren?

Final-laurdenak Epp Mae estoniarraren kontra lehiatu nintzen. Ondo ezagutzen dugu elkar. Aurkari gogorra da, baina gauzak ondo eginda, irabazteko gai nintzela banekien. Nahiko erraz irabazi nuen lehia.

Finalerdietan, Vasilisa Marzaliuk bielorrusiarra izan nuen aurkari. Londresko Joko Olinpiarretan brontzeko domina janzteko izan nuen aurkari bera. Londresko lehiaren mendeku bila irtengo zenaren beldur nintzen.

Eta Marzaliuk bera ere menderatu zenuen.

Nire jokoa eginez gero, irabazteko gai nintzela banekien. Bi

"Vorobeva estralurtarra da; ez dizu heltzeko aukerarik ematen"

lehia haietan erakutsi nuen hori. Bestalde, burua hotz mantentzea ezinbestekoa da. Psikologikoki indartsua izan behar da.

Eta finalean, Natalia Vorobeva errusiarra.

Banekien ez zela erraza izango. Suediako txapelketan harekin lehiatu nintzenean, hark irabazi zuen, baina nik puntu batzuk markatu nizkion. Tbilisin ezinezkoa izan zen. Ez zidan aukerarik eman.

Zer dauka berezia Vorobevak?

Estralurtarra dela esango nuke. Tapizaren gainean gaudenean, ez dizu heltzeko aukerarik ematen. Oso ona da.

Finala galdu eta zilarra jantzi zenuen. Horrenbeste brontzeren ondoren, nola baloratzen duzu zilarra?

Urte askotako lanaren ondorio dela esango nuke. Pauso bat gehiago eman dugu. Pauso garrantzitsua.

2012a urte oso gogorra izan zen. Joko Olinpiarretako prestakuntza oso gogorra izan zen. Londresko dominarekin asko disfutatu nuen, eta baita oraineko zilarrekin ere.

Erakutsi dut finaleran egoteko maila daukadala, eta aurrera begira lan egin beharko dugu.



Maidar Unda, zilarrezko dominarekin. | JULEEN IRIONDO

Eta orain, zer?

Atsedean hartu, indarrak berritu, eta udako Mediterraneoko Jokoei begira hasiko gara lanean. Hori dugu begiz jota. Finalera heldu gurako nuke. Kontuan hartu behar da, joko horietan Mediterraneoko herrialdeek bakarrik parte hartzen dutela. Hori horrela, borrokalari errusiarra ez da egongo. Finalera iritsita, urrea janz-

teko aukera handiak izan ditzaket. Hori prestatzen hasiko gara laster. Txapelketa hori izango da hurrengo erronka.

Joko Olinpiarren artean dagoen lau urteko tartean, hainbat tarteko helmuga dituzue. Horietan guztietan maila ona ematen duzula ikustek, beteko egingo zaitu.

Ez da erraza Joko Olinpiarren arteko lau urtetan fisikoki ondo mantentzea. Han-hemenka antolatzen diren txapelketatan parte hartu beharra egoten da, eta beti, ezin daiteke maila bera eman.

Horregatik guztiagatik, ondo aukeratu beharko ditugu 2016ko Rio de Janeiroko Joko Olinpiarrek jokatuko arte egin beharreko txapelketak.

"Mediterraneoko Jokoak ditut begiz jota; hori da hurrengo erronka"



Ointxekoen saskibaloia kanpua. | GOIENA

SASKIBALOIA

Saskibaloia campusak Arrasaten eta Zarautzen

Ointxek elkarteak antolatutakoak dira eta ekainean eta uztailean egingo dituzte

M.B. | ARRASATE

Ointxe elkarteak saskibaloia campus bi antolatu ditu udarako: Arrasaten bata, eta Zarautzen bestea. Azken hori berria da. Berrikuntza. Lehen aldiz antolatuko dutena.

Uda urruti dagoen arren, dagoeneko egin dute bietan izena emateko deialdia. "Garaiz ibili behar dugu. Neska-mutikoei beste aukeraren baten alde egin aurretik", esan digu Ointxeko Josu Larreategik.

Izen-ematea zabalik

Arrasateko saskibaloia campusa ekainaren 25etik 30era egingo dute, eta Zarautzekoa -aurtengo berrikuntza dena- uztaileko hirugarren astean. Bietarako izena emateko epea zabalik dago. Aste Santuko oporren ondoren, gutxieneko parte-hartzaile kopuru bat beharko dute antolakuntza lanekin hasteko. Izena emateko bideak: www.ointxe.com eta ointxe@ointxe.com.

Zarautzekoa, Lasai egoitzan

Arrasaten, Iturripen egingo dute campusean, saskibaloia eta ingelesa landuko dituzte. Goizean saskibaloia ekintzak egingo dituzte, eta arratsaldean ingelesa landu eta txapelketak jokatuko dituzte. Arrasateko campusean parte hartzen duten neska-mutikoei bertan bazkaltzeko aukera izango dute.

Zarautzen, Lasai izeneko egoitzan, egingo duten campuseko jardunak ezberdina izango dira. Goizean saskibaloia jarduerak egingo dituzte, eta arratsaldetan, aisialdirako denbora izango dute: mendi-ibilaldiak, piraguismoa, hondartza...

FUTBOLA

Realaren gazte mailako txapelketa Bergaran

Agorrosin futbol zelaiako bi partidua hilaren 30ean izango dira: 16:00etan eta 17:30ean

M.B. | BERGARA

Realak antolatzen duen nazioarteko gazteen txapelketako bi partidu Bergaran, Agorrosin jokatuko dira. Hain justu ere, hilaren 30ean izango dira: 16:00etan Real eta Brasilgo Esporte Clube Vitoria; eta 17:30ean, Osasuna-Vila-real. Bergarako partiduetarako sarrerak salgai daude, zazpi eurotan.

Bi multzotan


Belar naturaleko zelaietan jokatzen den txapelketak 29. edizioa beteko du aurten. Realarekin batera, Vila-real, Osasuna, Esporte Club Vitoria, Espanyol, Betis, Gipuzkoako konbinatua, eta Japoniako Nagoya Grampus taldeak lehiatuko dira. Lehenengo laurak A taldean daude eta beste laurak B taldean.

Finalak Zubietan

Gazteendako futbol txapelketa martxoaren 29tik apirilaren 1era arte jokatuko dute, esan bezala, belar naturaleko futbol zelaietan. Hain justu ere, Ondartzan (Hondarribia), Karla Lekunan (Oiarzun), Txerloan (Azkoitia), Astin (Zarautz) eta Garmendipen (Azpeitia) eta Agorrosin jokatuko dituzte. Finalak, eta hirugarren eta laugarren lekuak zehazteko partidua Zubietan jokatuko dituzte, hilaren 1ean: lehena 12:30ean, eta bigarrena 10:45ean.

Lehen faseko sarrerak zazpi eurotan daude salgai, eta azken egunekoak bost eurotan. Sarren salmentarekin batutako dirua, txapelketa antolatzen duten elkarten artean banatuko dute.

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA

Oñatiko bertso-filma, publikoaren gustukoena

- ▶ Beasaingo Bertsomovieda lehiaketako ikusleen saria irabazi du Gero Pentzauku taldeak
- ▶ Irabazten duten bigarren saria da



Oñatiko Laburmetrai Rallya irabazi zutenekoa. Jon Ander Arregi eta Andoni Goitia falta dira argazkian. | GERO PENTZAUKU

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Oñatiko Gero Pentzauku Productions taldearen *Badator munizipala!* bideoa asko gustatu zaio jendeari; horixe erakusten du Beasaingo Bertsomovieda lehiaketan ikusleen saria irabazi izana. Hain zuzen, aurkeztu ziren beste 32 film laburrek baino boto gehiago jaso zituen oñatiarrenak. Botoa emateko epea joan den domekan bukatu zen, eta Gero Pentzauku taldeko lagunek 500 euro jasoko dituzte sari gisa. Bestalde, epaimahaiaren saria zein taldek irabazi duen oraindik ez dute esan antolatzaileek; hortaz, oraindik jokoan egon daiteke. Sariak apirilaren 12an banatuko dituzte. Beasaingo Arrano taldeak antolatu zuen Bertsomovieda, aurten bigarren aldiz.

Youtube-n dituzte bideoak

Publikoaren sari horrekin zer egin ere gero pentsatuko dute Oñatiko lagun horiek; beharbada, laster egingo duten afarian. Hauxe diosku Iñaki Olalde taldekideak, esandako bideoan munizipal bertsozale horren papera egiten duenak: "Taldekook afaltzeko geratu ginen, Zelai-Zabalen, baina elurtea tokatu zitzaigun parean eta atzeratu egin genuen. Berez, afarian beste labor sariketa bateko saria gastatzeko, eta Zelai-Zabalen zen, baina elurtea tokatu zitzaigun eta apirilaren 13ra daukagu atzeratuta. Akaso materialean gastatuko dugu dirua".

Izan ere, filmatzen duten seigarren laburra da *Badator munizipala!*; eta honakoa, irabazi duten bigarren saria. Oñatiarrendako

badira ezagunak talde horren filmaketak, Oñatiko Laburmetrai Rallyan bi aldiz aurkeztu dira eta; orain azkenekoa irabazi ere egin zuten. Gura duenak ikus dezake taldearen azkeneko arrakasta, *Badator munizipala!*, edo aurreko filmen bat, Youtube webgunean profila dute eta. "Bai, ibiltzen gara. Egiten ditugun filmak Youtube-ra igotzen ditugu, jendeak ikus ditzan", esaten du Iñaki Olalde.

Taberna, euredako zabalik

Bost minutuko *Badator munizipala!* bideoan, lehiaketako oinarri jarraituz, bertso bat botatzen du pertsonaia batek; kasu honetan, Olalde antzezten duen munizipalak. Gero Pentzaukuko artean bertsolari eta bertsozale asko dago: Egoitz Aizpuru, Iñaki Olalde, Andoni Goitia... Berezkoa zuten, hortaz, Euskomovieda lehiaketan parte hartzea.

Film sariduna noiz eta zelan egin zuten kontatzen digu Iñaki



Badator munizipala! filmeko bukaerako eszena. | GERO PENTZAUKU

Olalde: "Martxoaren 13an, domeka, grabatu genuen. Normalean, 10:00etan batzen gara, elkarte baten, eta arrosatu eta elkarrizketak erreparatu, non grabatuko dugun, eszenei zerbakiak ipini... hori egiten dugu. Ordu bete pasako edo bi orduko lana izaten da hori. Gero, kalera, grabatzera

irteten gara. Kasu honetan, 11:30 edo 12:00ak aldera hasi ginen, eta 18:00ak jota bukatu genuen".

Filmaren bukaerako kredituetako esker onen artean, Oñatiko Aloña Mendi eta Luis tabernak aipatzen dituzte. Azken eszena Luisenean filmatu zuten.

"Taberna baten beharra geneukan, batera joan ginen eta han zegoen Aitor Perosterena. Bere taberna guretako irekitzea eskaini zigun, eta atek itxita filmatu genuen. Aloña Mendiko kanpoaldean beste eszena bat grabatu genuen".

Ez oraingoan bakarrik; film guztietan izan dute herrikideen laguntza. Olalde hauxe dio: "Laguntzeko eskatu diegun guztiek lagundu izan digute. Honen aurretik, filmaketa handiagoa egin genuen, Euskaraz Bizi Nahi Dut sariketarako, eta hor, arrandegira, okindegira, farmaziara... joan ginen, eta denok laguntzeko oso gertu izan ziren".

Herriko berba

Filmeko pertsonaia gehienek oñatiarrez egiten dute. Olalde hau komentatzen du: "Ez dugu horretaz pentsatu ere egin. Akaso, batuz eginez gero, ez gara gu pentsatuko luke bateren batek. Elkarrizketa naturalak dira; gauden lekuan gaude".

ESANAK

"Afari baten erabakiko dugu sariaren 500 euroekin zer egin; materiala erosiko dugu, beharbada"

"Oñatiarrez egiten dugu berba filmean; elkarrizketa naturalak dira, gauden lekuan gaudelako"

IÑAKI OLALDE | GERO PENTZAUKU TALDEKOA

Euskaltzale, kulturzale, bertsozale...

Kulturaren eta euskalgintzan badute esperientzia Gero Pentzaukukoek. Antzezteko gustuko dute: hala, orain azkeneko Tobera antzerki satirikoan parte hartu zuten kide askok, eta Pake-Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldean dabil Ana Mari Liziaga taldekidea. Bertsozaleen ere badabil: Gipuzkoako Bertso Eskolako irakasle izandakoa da Iñaki Olalde; Hamaika Bertuten dabil Egoitz Aizpuru... Idazteari dagokionean, Idoia Etxeberriaren eskarmentua aipatzen du Iñaki Olalde: "*Amantalen ahotsa*-ko eta Debagoieneko Toberako gidoiak idatzi izan ditu, besteak beste. Eta, batik bat, Idoiak xaxatzen gaitu besteok gidoia egiterako orduan".

Badator Liburuaren Eguna, eta horrekin batera baita ekitaldi ugari ere

Apirilaren 9tik 26ra bitartean haurrei eta helduei zuzendutako ekimenak izango dira Kulturaten

JONE ALBENIZ | ARRASATE

Apirilak bi data esanguratsu dakartza berarekin: batetik, apirilaren 2an Haur Liburuaren Eguna eta 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna. Bada, bi hitzorduok aintzat hartuta, Arrasateko Udal Bibliotekak Liburuaren Egunerako bakarrik ez, baizik eta apiril osorako ekintzak antolatu ditu: txotxongilo erakusketa; ikuskizunak, kontalariak, literatura solasaldiak eta beste.

Ospakizunok apirilaren 9an Gorakada antzerki taldearen txotxongilo erakusketarekin hasiko dira, eta apirilaren 26an bukatuko dira, komiki gida baten aurkezpenarekin.

Bien bitartean, eta *Boli Boli Boli* txotxongilo ikuskizunetik hasita (3-6 urtekoendako), munduko kontalari desberdinak, literatura solasaldiak, ipuin kontaketa, Shakti Contorsion ikuskizun berezia, Bularretik Mintzora irakurketa kluba eta beste hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera emango du Arrasateko Udal Bibliotekak. Horien artean aipatzekoa da, adibidez, nazioarteko



Boli Boli Boli txotxongilo ikuskizunaren une bat. | PANTZART.BLOGSPOT

kontalariak izango ditugula gurean. Arnau Vilardebo kataluniarra eta Maite Arrese eta Jose Mari Carrere euskaldunekin batera, Valia Percik argentinarra izango da.

Magia eta ilusioa, erakusketan Gorakada taldeari dagokionez, berriz, 25 urte dira 1987. urtetik hona, Abadiñoko antzerki konpainia abiatu zenetik. Eta horixe laburbiltzen du Kulturateko era-

kusketak. Apirilaren 30era arte izango da hura ikusgai, klausuroetan. Durangon, garai hartan bazegoen helduentzako antzerkia ekoizten zuen Geroa taldea. Baina haurrei begira gabezia zego-

la ikusita, zortzi antzerkizale gaztek Gorakada sortu zuten, Julio Perugorriaren proposamenari baiezkoa emanez. Apurka-apurka hasierako proiektu hura forma hartzen joan zen eta eszenografoak, musikariak eta abar gehituz joan zitzaizkion taldeari. Haurrei zuzendutako kalitatezko antzerkiaren alde lan egin nahi izan dute beti.

Bada, Arrasaten izango den erakusketak bisitariari abentura, magia eta ilusioz betetako mundu liluragarria erakusten zaio, antzezlanik esanguratsuenetako txotxongilo eta eszenografiak aurkeztuz; adibidez, Titirikontu, Gondola Misteriotsua, Jim Altxor Uhartean, Robin eta Hood, Iru-dimeneko Hiria, Cyrano, Ogro Txikia, eta abar. Gorakada taldeak, urteotan, 1.900 emanaldi baino gehiago egin ditu.

Solasaldiak ere izango dira

Bestalde, nabarmendu beharra daude, baita ere, literatura eta zinema solasaldiak. Euskarazkoak Harkaitz Canok zuzenduko ditu, apirilean hasi eta ekainera arte. Gaztelarazkoetan, berriz, Altarriba idazle eta Kim marrazkilari entzutetsuak izango dira gurean. Azken hori, besteak beste, ezagun askoa da *El jueves* aldizkariaren *Martinez el Facha* istorioak marrazteagatik.

Eta beste ekitaldi bat aipatzearren, Shakti Contorsion saio berri, bitxi eta berezia aipa daiteke: 8 minutuan, kontortsionismoa landuko da.

Hardcore-punk musika Bergarako gaztetxeko kartzela zaharrean

J. A. | BERGARA

Datozen egunotan, hardcore-punk musika estiloa uztartzen duten bi talderen musika entzuteko aukera izango da Bergarako Gaztetxeko kartzela zaharrean. Oraingo honetan, Azpeitiko Gaitze izeneko talde berriak eta Valentziako Disparok kontzertua egingo dute apirilaren 2an, 19:00etan hasita.

Hardcore-punka

Gaitze taldea duela bi hilabete eskas igo zen lehen aldiz taulara, baina hura ez zen izan taldekideen lehen aldia, taldeko partaideak Karkaba taldeko kideak ziren-eta. Sortu berri duten talde horretan, berriz, antzeko estiloa lantzen dute, hardcore-punka alegia, baina oraingo hau teknikoagoa da.

Disparo, berriz, Valentziako taldea da, Gaitze baino lasaia-agoa, punk estilora hurbiltzen dena, nahiz eta hardcorea uztartuta.

Hainbat ekitaldi

Kontzertuoz gainera, azken boladan ekitaldi asko antolatzen dihardu Bergarako gaztetxeak. Aurrera begira, esaterako, ate joka ditugu Egubakoitzak Kartzelan. Maiatzean izango dira, eta musika akustikoa izango dute protagonista. Horrez gainera, ikastaroak ere badira aukeran; martitzeneko xake tailerra egoten da 16:00etatik aurrera. Eta zapatu eguerdian salsa tailerra. Ekainera begira, berriz, gaztetxearen urteurrena dela-eta ekitaldi desberdinak prestatzen dihardute.

Bertsozale Elkarrekin gai-jartzailetza tailerra eskainiko du apirilaren 13an Gasteizko Amaia zentroan

Arabako Bertsozale Elkarrekin gai-jartzaile tailerra antolatu du apirilaren 13rako. Tailerra dohainik izango da. Bi parte desberdin izango ditu: 09:30etik 11:45era *Izan gai-jartzailea plazan* Josu Goikoetxea gai-jartzailearen eskutik; eta 12:00etatik 13:45era *Gaiaren trataera, bertsolariaren aldetik*. Uxue Alberdi bertsolariak emango ditu irizpideak. Izena emateko: araba.sustapena@bertsozale.com webgunean sartu eta izena eman.

"Debagoienean beti izan dugu erantzun ikaragarri eta masiboa"

Korrikaren balorazioa egin du Oskar Elizburuk, AEK-ko arduradunak

JONE ALBENIZ | ARRASATE

Joan den astean pasatu zen Korrika gure bailaratik eta domekan bukatu zen Baionan.

Bada, Gipuzkoako AEK-ko arduradun Oskar Elizburuk Korrika errealitate bihurtu duten guztiei esker ona eman nahi izan die eta Korrika 18ren gaineko oso balorazio positiboa egin du Arrasate Irratian.

"Erantzun itzel eta masiboa"

Hasteko, euskararen aldeko ekimen bereziak izandako erantzuna azpimarratu du Elizburuk: "Pozeg egiten dugun balorazioa da. Debagoienean beti izan dugu erantzun ikaragarri eta masibo horrek mantendu eta gora egin du. Gainera, dirulaguntza ekonomikoan eta antolaketan jende askok egin du lan." Eta horren aurrean, esker on berbak besterik ez du AEK-ko Debagoieneko arduradunak: "Benetan, herriak ematen digun laguntza hori esker ezina da. Eskerrak ematea besterik ez daukagu, ezin dugu beste modu baten eman eta."

Bestalde, ibarraz kanpoko erantzunari dagokionez, "nazio mailako balorazioa ere oso posi-



Korrikaren amaiera Baionan izan zen, domekan. | GOIENA

tiboa izan da. Toki guztietan egon den partaidetzari dagokionez ere salto kualitatiboa eman dugu berriro", Elizbururen esanetan.

"Arnas-gune bihurtzen ari da"

Horrekin batera, Korrikaren esanahiari buruz ere hark: "Jendea euskararekin biltzeko toki bat, sentimenduetan sakontzeko toki bat, euskara elkarri emateko gune eta abiapuntu handi bat bihurtu da. Euskara elkarri eman hori eguneroko lan txikietan plasmaztea da helmuga", esan du.

Bukatzeke, etorkizunari dagokionez, oso argi dauka Oskar Elizburuk zer den egin beharrekoa: "Mezuan oso argi aipatzen zen bezala, ama-hizkuntza bihurtu behar dugu euskara. Ama-hizkuntza ez da bakarrik sortzen eman digutena, baizik eta guk pentsamendurako erabiltzen duguna. Lan horretan hasteko dei egiten diogu herriari; euskaraz ez dakienak ikasteko, dakienak hobetzeko, dakigun eta erabiltzen dugunoi elkarri emateko."

Ebert Sanchez | Artisaua eta musikaria

"Pixkanaka-pixkanaka, neure gitarrak egitea espero dut"

Nintendo Nes kotsola bat gitarra bihurtzeko enkargua jaso zuen Ebert Sanchezek, eta, pixkanaka, ideia zoro hori errealitate bihurtzen dihardu

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

37 urtez bere ideiak defendatu ditu eta egunero bere bizimoduaren bidea jorratzen jarraitzen du Ebert Sanchez venezuelarrak. Artisaua eta musikari honek urte batzuk badaramatza Arrasaten dagoeneko. Oraingoan, egiten ari den luthier lan bitxi bat aitzakia dugula bisitatu dugu.

Zein proiektu duzu esku artean?

Momentu honetan, Nintendo Nes kotsola erabiliz gitarra bat egiten nabil. Kotsola gitarraren gorputz bezala erabili dut, eta honen gainean egin beharreko aldaketak egin ditut hura gitarra bihurtzeko.

Nolatan hasi zinen abentura honetan?

Enkargua izan da; Azkaiter Pelox bergararrak ideia azaldu zidan eta segituan hasi nintzen lanean. Normalean, gitarrak konpontzen ditut eta noizbait egin egin izan ditut. Orain ireki berri dugun dendarekin, lan hauek egiteko leku proposa dut; beraz, pixkanaka lan gehiago egingo ditudala uste dut. **Zelakoa izan da gitarra egiteko prozesua?**

Luthier eta muntaketa lana izan da, gehienbat. Pieza asko eginda egon arren; esate baterako, kotsola, gitarraren giderra edota zubia, gitarra bat egiteko arau batzuk errespetatzea ezinbestekoa da. Beraz, luthier lanak ere egin behar izan ditut; gainera, kotsola barruan dago instrumentuaren sekretua. Horrez gain, pieza batzuk beste horrelako gitarrekin alderatuz hobetu egin ditut; adibidez, giderra eta kotsola lotzen dituen pieza. Hala ere, oraindik, kalibratzea, soken kintajea... amaitzeko daude.



Ebert Sanchez, Nintendo gitarra eskuetan duela, bere tailerrean. | JAGOBA DOMINGO

"Luthier eta muntaketa lanak izan dira, gehienbat, egin ditudanak"

Enkargua jaso zenuenean harritu egin al zinen?

Ez nintzen askorik harritu, egia esan, horrelako asmakizun asko ikusi ditut dagoeneko. Nik neuk

flauta, *cuatro venezolano* eta beste hainbat instrumentu egin ditut eta, pixkanaka, neure gitarrak egitea espero dut. Hala ere, oso gogotsu jaso nuen enkargua, baina, esan bezala, ez dago guztiz amaituta.

Eta soinu aldetik berezia al da?

Kasu honetan, harilketa bikotzeko pastilla bat du; beraz, honek ematen dio ezaugarri akustiko nagusia. Hala ere, kotsola plastikozkoa izanik, sonoritate ezberdina lortzea derrigorrezkoa da.

Comaneci italiarrak Pako tabernan entzuteko aukera apirilaren 7an

Folk eta rock goxoarekin gozatzeko aukera

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Francesca Amati eta Glauco Salvo musikari italiarrek osatzen dute Comaneci bikotea, eta euren burua folk akustiko espermental eta punk bezala aurkezten dute.

2005ean sortu zuten taldea hirukote bezala, eta orduetik hona bi EP eta hiru disko luze argitaratu dituzte. Oraingoan, Europan barrena egingo duten biran, Oñatin egingo dute geldialdia *Uh!* disko

berria aurkezteko asmoz. Kontzertua apirilaren 7an, 19:30ean izango da Oñatiko Pako tabernan. Ahots goxo, gitarra leun eta lagunarteko giro berezian hipnotizatzen duen talde bat ikusteko aukera paregabea izango da.

Joseba Irazoki

Pako tabernako oholtza bertuko duen hurrengo musikaria Joseba Irazoki *one man band* izango da, apirilaren 21ean.

Dirty Brothersek Londrerako bidea hartuko du Aste Santuan eta bertan bi kontzertu eskainiko ditu

Ingalaterrara doa Dirty Brothers taldea, eta bertan, 12 Bar Club tabernan eta Cakey Muto dendan eskainiko ditu kontzertuak. Taldekideen esanetan, kantu asko kontzertu horietarako prestatu dituzte espresuki; beraz, festa giroa ziurtatuta dago.

Arkada Socialek Urduñan ospatuko den Gazte Danbada jaialdian joko du martxoaren 31n

Igandean joko du Arrasateko punk-oi taldeak Gazte Danbada jaialdian. Soziedad Alkoholika, Non Servium, Iheskide eta Troopers taldeekin batera eskainiko dute kontzertua, Aberri Egunean, Urduñako Altxa! agertokian.

El Exterminio de la Raza del Mono taldearen 'Despojos de esta tierra' disko berria salgai dago

Aramaioko punk taldeak Teletetxo zigiluarekin kaleraturiko diskoa salgai dago jada. 12 kantuz osaturiko disko zuzena da eta 5 eurotan dago salgai Aramaioko Añai tabernan, Arrasateko Aker tatuaje estudioan eta Lazkano musika-dendan. Datorren zapatuan, hilak 30, Durangoko gaztetxean egongo dira jotzen.

Ez! oñatiarrek diskoa aurkeztuko dute datorren apirilaren 6an, zapatua, Antixena gaztetxean

Bi maketa eta ikus-entzunezko lan bat argitaratu ondoren, Ez! punk taldeak lehen lan luzea plazaratuko du. Berrizko Lorentzo Records estudioan grabatu dute, eta diskoan punk, rock eta ska doinuak entzun daitezke. Aurkezpen kontzertura (19:00) gerturatzeko diren disko berria opari bezala jasoko dutela dio taldeak.

Hawkins Thugs: 'Never Forget' kantuaren bideoklipa grabatu du

Hawkins Thugs taldea klip bat egiteko irudiak grabatzen egon zen orain dela bi asteberu. Oi! musika egiten duen talde berriak oraindik ez du estreinako kontzerturik egin, baina dagoeneko lau kantu grabatu dituzte eta ikus-entzunezkoan lanean daude. Hura egiteko lagun asko izan dituzte ondoan, ikusten den moduan.



Markel Uriarte | Orbearen azken fitxaketa

"Ez dut presio handirik nahi, ezta helburu zailik ere; ondo pasatuz etortzen dena primeran etorriko da"

ANDER LARRAÑAGA | ARETXABAETA
Markel Uriarte (Aretxabaeta, 1991) txirrindularia Orbearen azken fitxaketa da martxo hasiera ezker. Modalitate desberdinetan jardun du orain arte, baina orain, enduroan dabil. Aurten amaituko ditu Ingeniaritza Mekanikoko ikasketak MUn, proiektua baitabil aurrera eramaten Fagorren.

Nondik eta noiztik datorkizu bizikletarako grina?

Betidanik ibili izan naiz bizikletan. Udalan trialeko lasterketa bat egiten zen lehen, eta zazpi urte nituenean hasi nintzen bertan. Ordutik, beti ibili izan naiz trialean. 7 urtetik 20 urtera bitartean trialean zentratu naiz, baina urte horietan zehar beste modalitate batzuk ere egin ditut: errepideko txirrindularitza infantiletatik, mendiko bizikleta kadeetatik, jaitsierak gazte mailatik eta enduroa iaztik. Enduroa modalitate guztien arteko konbinazioa da eta, era berean, nik gehien gustuko dudana modalitatea orain.

Zein taldetan ibili zara?

Trialean ez dago talderik, baina klub batzuetan ibili izan naiz. Errepideko txirrindularitzan Dorletako Amak beti izan du eskoletako talde bat, eta bertan ere lehiatu naiz. Mendiko bizikletara pasatzerakoan, Dorletako Amarekin batera Lizarralde Kirolek-ek babesten zuen taldean egon nintzen. Azkenik, orain nagoen taldea da garrantzitsua, Orbea, enduroan.

Zein txapelketa garrantzitsutan hartu izan duzu parte?

Orain arte Euskal Herri mailako lasterketan, nahiz eta, noizean behin, Espainiako Open lasterketan parte hartu izan dudana. Iaztik, enduroan hasi nintzenetik, Espainiako Open eta Frantziako beste lasterketa batzuetan parte hartzeko aukera izan dut. Aurten, aldiz, munduko lasterketa batzuetan ibiliko naiz talde berrian.

Zeintzuk izan dira orain arteko zure lorpen garrantzitsuenak?

Trialean Gipuzkoako txapelketa sei bider irabazi dut eta Euskadikoa, birritan. Mendiko bizikletan eta jaitsieretan ere, birritan, modalitate bakoitzean. Iaz Espainiako Open txapelketan, enduroan, bigarren geratu nintzen. Horiez gain, Espainiako eta Frantziako lasterketa solteetan parte hartu eta podium batzuk egin ditut.

Nola pasatu da bizikleta afizio izatetik zerbait gehiago izatera?

Betidanik gustatu izan zaidan zerbait da txirrindularitza, eta, azkenean, afizio horrek beti bultzatzen zaitu entrenatzera eta lasterketan parte hartzeko gogoia edukitzera. Gainera, esfortzuaren fruituak ikusita, emaitza horiek motibazio gehigarria dira niretzat gustuko dudana honetan jarraitzeko.

Orbeak fitxatu berri zaitu. Zer dakar horrek zuretzat?

Izugarrizko aukera da niretzat. Orain arte nire kontu egiten nuen zerbait izan da txirrindularitza, eta orain, talde moduan ibiltzeko aukera eskaini didate; gainera, talde internazional batean. Izan ere, halako mailako talde batean egoteagatik laguntza dezente jasotzen ditugu. Orbea aukera oso ona izango da ikasten jarraitzeko: taldean izango ditugun taldekideak oso maila handikoak dira eta haiengandik ikasteko aukera paregabea da.

Bizikletaz gain, zeintzuk dira zure zaletasunak?

Bizikletari eskaintzen diot nire denbora libre guztia. Zaletasun hau nire bizitzeko era bilakatu da eta hau da nik gustuko dudana. Hala ere, txirrindularitzarekin lotutako ikus-entzunezkoak egitea ere gustuko dut. Zure ize- edo burua ezagutzera emateko modu oso ona da; bide batez, honi esker izan zuten Orbeak nire berri.

Etorkizunerako proiektu berezirik ba al duzu txirrindularitzarekin lotuta?

Azkenean, nire helburua ondo pasatzea eta kirol honetaz gozatzeta da, eta, honekin batera, txirrindularitzaz ikasten jarraitzea. Ez dut presio handirik nahi, ezta helburu zailik ere; ondo pasatuz etortzen dena primeran etorriko da. Gainera, enduroa berria da guztiontzat eta oraindik asko ikasi behar dugu denok.



Markel Uriarte, Orbeako maillot berriarekin eta, beheko argazkietan, enduroan.



MARRA AZKARREZ

Erronka bat: Munduko enduro txapelketan egotea.

Txirrindulari bat: Simon Andrade.

Bizitzeko toki bat: Alpeak.

Modalitate bat: Enduroa.

Jantziko zenuke... Ortzadar maillota.

Zure herriko txoko maiteena: Urkulu.

Gosari gustukoena: Kafesnea gailetekin.

Inoiz ahaztuko ez duzun momentua:

Amateur kategorian Maxiabalantxa irabazi nueneko momentua.

Bidaia gustukoena: Kanada.

ASTEAGOIENAN



'Paradisuko atean' antzezlanaren ikusgai

Arrasateko Doka antzerki taldeak taularatutako *Paradisuko atean* antzezlanaren ikusgai ahal izango duzue Goiena telebistan. Heriotzaren gaia jorratzen du eta komedia eta drama nahasten ditu. Antzezlanaren tanatorio batean kokatzen da. **'Paradisuko atean'** Zapatua, 21:13



Eguneko albisten errepasoa

Astelehenetik egubakoitzera bitartean, Pazko astean, albistegiak eskainiko dizkizuegu Goiena telebistan. Horrela, Debagoieneko herrietan gertatzen diren albisten gaineko informazioa jaso ahal izango duzue gurean. **'Berriak'** Astelehena, 14:45

GOIENA TELEBISTA

| EGUAZTENA, 27 | EGUENA, 28 | EGUBAKOITZA, 29 | ZAPATUA, 30 | DOMEKA, 31 | ASTELEHENA, 1 | MARTITZENA, 2 |
|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---|---|---|-----------------------------------|
| 12:00 Magazinea | 10:00 Aho bizirik gabe | 10:00 Korrika 18 | 10:00 28 klip | 10:00 Bertso saioa: Arabako bertso finala | 10:00 Peter Pan | 12:00 Azoka 5.0 |
| 12:45 Gurean gaur | 11:07 Ahotsenean zuzenean | 11:00 Aho bizirik gabe | 10:31 Zorion agurrak | 10:30 Zorion agurrak | 11:00 Zorion agurrak | 12:41 Berbetan: Txikito Bolibar |
| 13:10 Onein | 11:37 Berbetan | 12:07 Bertso saioa | 10:36 Ekogune | 10:35 Onein: Begihandia | 12:00 Onein: Azipzun errea | 13:15 Zorion agurrak |
| 13:40 Bertso saioa | 12:14 Ikusmira | 12:37 Onein | 11:06 Korrika 18 Debagoienean | 11:11 Magazinea | 13:00 Laino arteko plana | 13:22 Ikusmira: Baxurako arrantza |
| 14:13 Ahotsenean zuzenean | 12:37 Onein | 12:59 Bizitegia | 12:31 Bertso saioa: Arabako bertso finala | 11:56 Azoka 5.0 | 13:25 Ekogune | 13:50 Ekogune |
| 14:43 Zorion Agurrak | 13:07 Zorion Agurrak | 13:27 Ikusmira | 13:01 Onein: Begihandia | 12:38 Berriak | 13:50 Ikusmira: Baxurako arrantza | 14:20 Onein: Gnocchiak tomateaz |
| 14:45 Berriak | 13:15 Ahotsak jaialdia | 13:50 Zorion Agurrak | 13:37 Berriak | 12:53 Onein: Gnocchiak tomateaz | 14:20 Zorion agurrak | 14:45 Berriak |
| 15:05 Eguraldia | 14:00 Bertso saioa | 13:52 Berbetan | 13:52 Magazinea | 13:14 Bertso saioa: Osin Berde | 14:23 Ur eta Lur | 15:00 Eguraldia |
| 15:08 Klaketa | 14:30 Bertso saioa | 14:29 Ahotsak jaialdia | 14:37 Beranduegi.tv | 13:44 Letaez Kantuberbetan | 14:45 Berriak | 15:03 Letaez Kantuberbetan |
| 15:46 Onein | 15:03 Ahotsenean zuzenean | 15:14 Laino arteko plana | 14:59 Laino arteko plana | 14:57 Zorion agurrak | 15:03 Zorion agurrak | 16:16 Azoka 5.0 |
| 16:11 Ahotsenean zuzenean | 15:33 Korrika 18 | 15:44 Ahotsenean zuzenean | 15:29 Zorion agurrak | 15:02 Antzerkia: Paradisuko atean | 16:21 Zorion agurrak | 16:57 Berbetan: Txikito Bolibar |
| 16:41 Harmailatik | 16:33 Berbetan | 16:14 Beranduegi.tv | 15:34 Berriak | 16:05 Berriak | 16:26 Berbetan: Txikito Bolibar | 17:32 Ikusmira: Baxurako arrantza |
| 17:26 Bertso saioa | 17:10 Onein | 16:39 Bertso saioa | 15:49 Onein: Gnocchiak tomateaz | 16:20 Magazinea | 17:01 Ekogune | 18:02 Berriak |
| 17:59 Zorion Agurrak | 17:35 Bertso saioa | 17:09 Bertso saioa | 16:10 Korrika 18 Debagoienean | 17:05 Beranduegi.tv | 17:31 Bizitegia | 18:17 Eguraldia |
| 18:04 Berriak | 18:08 Korrika 18 | 17:42 28.Klip | 17:35 Laino arteko plana | 17:29 Magazinea | 18:01 Beranduegi.tv | 18:20 Erreportajea: Eskola Txikia |
| 18:24 Eguraldia | 19:08 Ahotsenean zuzenean | 18:14 Beranduegi.tv | 18:05 Zorion agurrak | 18:14 Peter Pan | 18:26 Zorion agurrak | 19:25 Beranduegi.tv |
| 18:26 Hitzlandia | 19:38 Beranduegi.tv | 19:11 Ahotsenean zuzenean | 18:10 Berriak | 20:31 Zorion agurrak | 18:30 Bertso saioa: Arabako bertso finala | 19:50 Berriak |
| 18:48 Ahotsenean zuzenean | 20:03 Hitzlandia | 19:41 Klaketa | 18:25 Beranduegi.tv | 20:36 Klaketa | 19:00 Korrika 18 Debagoienean | 20:05 Eguraldia |
| 19:22 Beranduegi.tv | 20:33 Ahotsak jaialdia | 20:19 Korrika 18 | 18:49 Magazinea | 21:11 Magazinea | 20:25 Magazinea | 20:07 Ahotsenean zuzenean |
| 19:47 Zorion Agurrak | 21:18 Bertso saioa | 21:19 Berbetan | 19:34 Ekogune | 21:56 Berriak | 21:10 Azoka 5.0 | 20:37 Gurean Gaur |
| 19:50 Berriak | 21:48 Aho bizirik gabe | 21:56 Bertso saioa | 20:04 Beranduegi.tv | 22:11 Bertso saioa: Osin Berde | 21:52 Ekogune | 21:07 Klaketa |
| 20:15 Eguraldia | 22:55 Ahotsenean zuzenean | 22:41 Ahotsak jaialdia | 20:28 Magazinea | 22:41 Magazinea | 22:22 Laino arteko plana | 21:42 Ahotsenean zuzenean |
| 20:17 Magazinea | 23:25 Bertso saioa | 23:26 Ahotsenean zuzenean | 21:13 Antzerkia: Paradisuko atean | 23:41 Antzerkia: Paradisuko atean | 22:52 Klaketa | 21:12 Berriak |
| 21:02 Gurean gaur | 23:25 Aho bizirik gabe | 23:56 Hitzlandia | 22:16 Bertso saioa: Osin Berde | | 23:27 Magazinea | 22:27 Eguraldia |
| 21:33 Hitzlandia | | | 22:46 Magazinea | | | 23:32 Klaketa |
| 21:55 Korrika 18 | | | | | | 23:35 Berriak |
| 22:55 Ekogune | | | | | | 23:50 Eguraldia |
| 23:25 Berriak | | | | | | |
| 23:45 Eguraldia | | | | | | |
| 23:47 Magazinea | | | | | | |
| 00:32 Klaketa | | | | | | |

ARRASATE IRRATIA

Musikarekin gozatzeko aukera gurean, 24 orduz

Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioak Aste Santuko oporrak hartuko ditu gaur, eguaztana. Apirilaren 8an, astelehena, itzuliko da berriro 107.7ko uhinetara. Baina bitartean, Arrasate Irratiak ez du etenik izango. Musikarekin disfrutatu ahal izango duzue eguneko 24 orduetan.

Liburuaren Eguna berbagai, oporren bueltan

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, apirilaren 8ko astetik aurrera jardue- ra ugari antolatu dituzte Arrasaten. Munduko hainbat tokitako literatura jorratuko da eta nazioarteko adituak egongo dira. Asun Agiriano bibliotekariarekin izango gara horuz berbetan.


GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE | | | |
|-----------------|----------------|--------------------|--------------|
| Eguaztena, 27 | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 28 | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 29 | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Zapatua, 30 | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Domeka, 31 | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 1 | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Martitzena, 2 | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| BERGARA | | | |
| Eguaztena, 27 | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 28 | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 29 | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Zapatua, 30 | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 31 | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 1 | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 2 | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| ONATI | | | |
| Eguaztena, 27 | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 28 | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 29 | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Zapatua, 30 | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 31 | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 1 | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 2 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |


Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

EGURALDIA HURRENGO EGUNETAN

DEBAGOIENA



Max. 16°
Min. 9°




Max. 16°
Min. 8°

EGUENA, 28
Eguraldiak hobera egingo du, zerua oso hodeitsu egon arren. Ostarteak zabalduko dira eta tenperatura igo egingo da.

EGUBAKOITZA, 29
Tenperatura mantendu egingo da; hala ere, okerrera egingo du eguraldiak. Euri zaparradak botatzeko arriskua egingo da.

EUSKAL HERRIA



Eguenean euri askorik egingo ez duen arren, egubakoitzean euri gehiago espero da.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Enpresa medikua. Errenteriariko Udala. Baldintzak: medikuntza eta kirurgian lizentziatuta, laneko medikuntza edo enpresako mediku mediku-diplomadun titulu ofiziala edukitzea. Epea: apirilaren 9a.

IKASTAROKAK

Prestakuntza espezializatu ikastaroak. Debagoieneko Mankomunitatea. Bizikleta elektrikoen teknikaria, programa informatikoak erakuntza arloan, energia berriztagarrien eraginkortasuna, neuroendokapenezko gaixotasuneko zaintza aringarriak, sukaldari laguntzailea. Epea: apirilak 8.

BEKAK

Arte ikasketak. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Estatu Batuetan kultur kudea-

keta ikasketak edo ikasketa artistikoak lutzatzeko bekak. Baldintzak: Unibertsitateko tituludunak, ingeles-maila bikaina izatea. Arloak: Ikus-entzunezko arteak; arte eszenikoak; arte plastiko eta bisualak; musika eta musikologia; museologia eta ondarearen kontserbazioa. Epea: apirilak 3.

Musika. AIE Sociedad de Artistas Intérpretes o Ejecutantes. Musika ikasketak burutzeko 90 beka eta musika arloan espezializazio handiko 18 beka. Baldintzak: musikako ikasleak edo musikariak. Epea: apirilak 19.

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN

Lankidetzak. Eusko Jaurlaritzak. Udako hilabeteetan lankidetzak programetan parte hartzeko aukera. Epea: apirilak 26.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

HILDAKOAK

Mari Tere Armendariz Abasolo. Eskoriatzan, martxoaren 20an. 85 urte.
Milagros Marco Ortega. Arrasaten, martxoaren 20an. 84 urte.
Victorina Hidalgo Miguel. Arrasaten, martxoaren 21ean. 81 urte.
Asuncion Bedia Iriarte. Arrasaten, martxoaren 21ean. 89 urte.
Tomas Hernandez Moriñigo. Arrasaten, martxoaren 22an. 90 urte.
Pedro Zabala Madina. Arrasaten, martxoaren 22an. 93 urte.
Victor Altube Lekerikaonandia. Arrasaten, martxoaren 23an. 74 urte.
M. Carmen Abarrategi Eraña. Arrasaten, martxoaren 23an. 88 urte.
M. Rafaela Lete Aginagalde. Arrasaten, martxoaren 24an. 85 urte.
Javier Lazcano Gaztelu. Bergaran, martxoaren 26an. 53 urte.

HILETA


**Javier
Lazcano Gaztelu**


2013ko martxoaren 26an hil zen, 53 urte zituela.

Bere oroimenez azken agurreko elizkizuna gaur izango da, eguaztana, martxoak 27, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko.

Metagrako lankideak.
Bergaran, 2013ko martxoaren 27an.

OROIGARRIA

**Miren
Urrutia Zubillaga**

Auzo Laguneko bazkide ohia.



Nahiz eta gure artetik joan, beti gogoan izango zaitugu.



Auzo Lagun Koop. E.
Arrasaten, 2013ko martxoaren 27an.

ESKER ONA

**Mari Tere
Armendariz Abasolo**


Eskoriatzan hil zen 2013ko martxoaren 20an, 85 urte zituela.

Lagundu diguzuen guztiei eta bereziki GSR Debagoiena egoitzako lantalde osoari, eskerrik beroenak sendiaren izenean.

Eskoriatzan, 2013ko martxoaren 27an.

URTEURRENA

**Julen
Barrutia Elorza**


2012ko martxoaren 29an hil zen.

Lehen urteurrenako meza domekan izango da, martxoaren 31n, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Arrasaten, 2013ko martxoaren 27an.

URTEURRENA

**Aritz
Azpiazu Bengoa**


Oñatin hil zen 2005eko martxoaren 25ean.

Beti izango zara gurekin.

Etxekoak.
Oñatin, 2013ko martxoaren 27an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otolara Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.


OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



OÑATI Comaneci

Taldea 2005. urtean sortu zuten, Ravennan, Italian. Hirukote moduan hasi zuten ibilbidea, nahiz eta orain Francesca Amati (gitarra akustikoa eta ahotsa) eta Glauco Salvo (gitarra elektriko eta banjoa) bikoteak osatzen duen taldea. Modu intimistan jotako rock eta folk estiloko abestiak egiten dituzte.

Apirilaren 7an, Pako tabernan, 19:30ean.



COMANEICI.BANDCAMP.COM



GOIENA

ANTZUOLA '¿Dónde está la pierna del alcalde?' antzezlana

Oñatiko erretiratuek euren azken lana Antzuolan antzeztuko dute. Alkateak hanka ortopedikoa galdu eta protesaren bilaketa horretan oinarritzen da erretiratuen elkarteko taldearen komedia dibertigarria.

Gaur, eguaztana, Torresoroan, 17:00etan.

MUSIKA**OÑATI Oñatiko Betagarri taldea eta talde sorpresa gaztetxean**

Taldeen bertsoak jotzen dituen taldea eta beste talde baten kontzertua, Antixena gaztetxean.

Gaur, eguaztana, Antixena gaztetxean, 22:00etan

ELGETA Kontzertua gaztetxean

Penadas por la Ley, Apurto eta Tony Metralla y los Antibalas taldeek joko dute jaialdian.

Apirilaren 6a, zapatua, Elgetako gaztetxean, 23:00etan.

BERGARA DJ jaia

Gaztetxoendako saioa izango da Zabalotegin. 13 eta 17 urte bitartekoentzako. Amaia Txintxurreta ibiliko da musika-jartzaile lanetan.

Apirilaren 6a, zapatua, Zabalotegi aretoan, 18:30etik 21:30era.

ANTZUOLA Txistularien diana

Herriko txistulari taldeak ohiko diana joko du herriko kaleetan zehar.

Apirilaren 7a, domeka, herriko kaleetatik zehar, 10:00etan.

IRTEERA**ELGETA Bisita gidatua Intxortako frontera**

Izena emateko turismo@debagoiena.net edo 943 796 463 jo behar da. Aurrez abisatu beharra dago, ezinbestez. Museoa, gerrako ibilbidea eta lubakiak ezagutzeko aukera egongo da ibilbide historikoan zehar.

Apirilak 7, domeka, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan (Espaloia), 10:00etan.

BESTELAKOAK**BERGARA Bisita gidatua: 'Dorretxe eta jauregi artean'**

Bisita honetan parte hartzeko izena aldeztatik eman beharra dago. XVI. mendeko balkoi ederrak, fatxada ikusgarriak, blasoiak eta bitxikeriak Bergarako kaleetan zehar paseatu ahalak erakutsiko dira. Herritar zein kanpokoentzat gomendatutako bisita gidatua da.

Apirilaren 7a, domeka, Bergaran, 12:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MARTXOA 27
APIRILA 08

DEIA**OÑATI Aste Santuko bisita gidatuak**

Sancti Spiritus Unibertsitatea eta Mikel Goiaingeruaren Parrokia, 12:30ean. 75 minutuko bisita da eta Turismo Bulegoan eskatu behar da. Bisita, 2,50 euro. Martxoaren 28, 29, 31an, Turismo bulegoan, 12:30ean.

OÑATI Aberri Eguna ospatzeko autobusa (Sortu)

Oñatiko Sortuk martxoaren 31n Iruñean Independentista Sareak antolatutako duen Aberri Egunarekin bat egiten du. *Etorkizuna independentzia* lelopean izango da, eta, goizeko manifestazioaz gain, egun osorako ekimenak antolatu dituzte. Oñatitik ere autobusak antolatu dituzte eta Iruñera joan nahi duenak Arranon izena eman behar du.

Martxoaren 31a baino lehen, Oñatiko Arranon eman izena.

ELGETA Trikitixa Eguneko bazkarirako izen-ematea

Elgetan ospatuko da aurten, apirilaren 20an, Debagoieneko IX. Trikitixa Eguna. Antolatutako

ekitaldien artean herri bazkaria ere egingo da bertaratutako guztiekin. Bertan parte hartu gura dutenek apirilaren 16ra arte daukate izena emateko aukera. Udaletxean eman daiteke izena, danonartian@elgeta.net helbidera mezu bat bidalita edo zuzenean Euskadiko Kutzako 3035 0023 91 0231147703 kontuan dirua sartuta. Nagusien menua 18 euro eta umeena 13 euro.

Izena apirilaren 16a baino lehen eman behar da Udaletxera deituta.

OÑATI Arrikutzeko kobak ikusteko bisitak

Bisitak euskaraz: 10:30, 11:30, 12:30, 15:30 16:30 eta 17:30ean. Erreserbak egiteko: 943 08 20 00 telefonora deituta. Martxoaren 28tik 31ra, aipatutako ordutegian.

OÑATI 'Espeleoabentura' Arrikutzen

Izena eman behar da aurretik: 943 08 20 00 telefonora deituta. Apirilak 5a, egubakoitza, Arrikutzeko koben sarreran 10:00etan.

ARRASATE Abaroakoak Erriberara joango dira

Abaroa elkarteak Nafarroako

Erriberara irteera antolatu du apirilaren 10erako. Marcellako Iturbide arandegia, gaztelua eta ermita bisitatuko dituzte. Bazkaria Azagran izango da. Itzuleran baliteke Lizarran ere geldialditxoak egitea. Prezioa, 30 euro.

Apirilaren 10ean. Izenematea apirilaren 2an, martitzena, egin behar da.

ARRASATE Jardunaldi feministak

Arrasateko Emakume Txokoa sortu zeneko 10. urteurrena ospatuko da apirilean. Tarteant jardunaldi feministak antolatu dituztela jakinarazi dute.

Apirilaren 19an eta 20an.

ARRASATE 58ko 'kintoak'

1937an jaiotakoek urteroko egun-pasa apirilaren 20an egingo dute. 12:30ean meza entzungo dute San Juan Bataiatzailearen parrokian eta, txikiteoaren ostean, bazkaria egingo dute Hilarion jatetxean, 14:30ean. Interesa dutenak Jose Riviererekin harremanetan jar daitezela (943 79 10 57) apirilaren 14a baino lehen. Prezioa: 20 euro

Apirilaren 20an. Izenematea apirilaren 14a baino lehen.

HITZALDIAK**ANTZUOLA Senegalgo egungo egoera eta proiektuak**

Anelkarrek antolatuta. Aukera egongo da elkartasun ekintzetan batutako dirua eta materiala zertan erabiltzen den ezagutzeko. Senegalen lanean diharduten Montserrat Dausa (Katalunia) eta Ephigenie Senghor (Senegal) mojek hitz egingo dute. Argazki eta bideoak erakutsiko dituzte.

Apirilaren 4a, eguena, Orlanen, 18:30ean.

IKASTAROAK**BERGARA Xaboi birziklatua eta kosmetikoa**

Uberako auzoko elkarteak izango da saioa, apirilaren 20an. Autobus zerbitzua egongo da. Irakaslea Jexux Agirre izango da. Plazak 20 lagunera daude mugatuta eta Uberakoek lehen-tasuna izango dute.

Izena Bergarako kultura etxean eman behar da (943 77 91 59).

ANTZUOLA KZgunea eguenetan

Apirilean eguenetan egingo dira tutoretza saioak KZgunean, liburutegian.

Apirilaren 4, 11 eta 18an, liburutegian, 09:00etatik 13:00etara.

BERGARA Ortuzaintza ikastaroa

Maiatzean izango da ikastaroa eta hiru saio izango ditu. Egunak zehazteko daude. San Juan eta



BLOGSPOT

BERGARA 'Manual para fabricar un terrorista' film dokumentala

Dokumental txekiar honetan euskal gatazka aztertzen da Nafarroan. Pragako unibertsitateko zinema ikasle baten lana da eta Espainiako eta Frantziako estatuen terrorismoaren aurkako legearen eragina aztertzen du Nafarroako protagonistekin.

Gaur, Zabalotegi aretoan, 20:00etan.



IKEREGANA.COM

BERGARA Iker Egañaren erakusketa

Artista oñatiarraren margolanen erakusketa egongo da. Velazquez, Rembrandt, Caravaggio, Tiziano, Courbet eta Turner aipatzen ditu eragin moduan. Margolariaren olioak ikusteko aukera egongo da erakusketan. Apirilaren 5etik 28ra, Aroztegi aretoan, ohiko ordutegian.

Angiozarko auzo-elkartek, Bergarako Udalak eta Bizikasik antolatuta. 25 plaza daude eta San Juan eta Angiozarko auzotarrek lehentasuna izango dute. Izena Bergarako kultura etxean eman behar da (943 77 91 59).

BERGARA Zoru pelbikoaren ezagutza eta lantzea

Zoru pelbiko landuko da, baina ezaztute ez dela hipopresiboei buruzko ikastaroa izango, kasu honetan. SANE fisioterapia zentroko Ane Remedios eta Ane Coranti izango dira irakasleak. Izena emateko Bizikarisa deitu behar da: 943 76 93 94. Saioa ele bitan izango da. Apirilaren 16an, 18:00etatik 20:30etara.

BERGARA Makillaje ikastaroa

Hiru orduko saioa izango da, gazteleraz. Doako ikastaroa da eta plazak mugatuak dira ikastaro honetan. Apirilaren 15ean eta 18an 16:00etatik 17:30era eta 18:00etatik 19:30era.

LEHIAKETAK

BERGARA 'Bergara hiria' argazki lehiaketa

Lanak zuri-beltzean eta koloretan aurkez daitezke. Lau sari banatuko dira, 210, 180, 150 eta 120 eurokoak. 40x50eko kartulinan aurkeztu behar dira. Xehetasunak: 943 76 30 90 (Benito), Lanak maiatzaren 8a baino lehen, Bergarako Udalera bidalita.

ARAMAIO UEMA Arako lelo lehiaketa

Uema eguna Aramaion izango dela-eta, lelo lehiaketa abiarazi du Udalak. UEMA dagoen Arabako herri bakarra da Aramaio. Egun berezi horretarako, hain zuzen, lelo lehiaketa ireki du Udalak. Euskara, Aramaio eta Uema hitzak tartekatu beharko ditu lelo horrek; irabazleak ekainaren 8an egingo den herri bazkarirako bi txartel jasoko ditu. Udaletxean entregatu behar dira lanak.

Apirilaren 22an baino lehen, udaletxean.

OÑATI Unibertsitateko kaperak ikusteko bisita

Sancti Spiritus Unibertsitateko kaperan XVI. mendeko maisulana dago; polikromia eta kalitate handiko eskulturak dituen San Migeli eta Espiritu Santuari eskainitako erretaularekin. Aldez aurretik izena eman beharra dago. Apirilak 6, zapatua, Unibertsitateko kaperan, 17:00etan.



WIKIPEDIA

ZINEMA

BERGARA

ZABALOTEGI

Manual para fabricar un terrorista
Eguaztena, 27: 22:00.

Un lugar para soñar
Eguaztena, 3: 20:00.

Hotel Transilvania
Eguaztena, 7: 17:00.

Lo imposible
Eguaztena, 7: 17:00.

ARETXABAETA

ZARAIA

Los amantes pasajeros
Barikua, 5, eta zapatua, 6: 22:00.
Domeka, 7: 19:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Los Croods
Eguaztena, 27: 18:00, 19:45.
Eguena, 28, eta barikua, 29: 16:50, 18:45, 20:35.
Zapatua, 30, eta domeka, 31: 12:00, 16:50, 18:45, 20:35.
Astelehenetik, 1, eguenera, 4: 16:50, 18:45, 20:35.

El cuarteto
Eguaztena, 27, eguenera, 4: 22:30.

G.I. Joe: La venganza
Eguaztena, 27, barikua, 29: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua, 30, eta domeka, 31: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik, 1, eguenera, 4: 17:30, 20:00, 22:30.

La cocinera del presidente

Eguaztenetik, 27, eguenera, 4: 17:15, 22:30.

Argo
Eguaztenetik, 27, eguenera, 4: 19:45.

Incompatibles
Eguaztenetik, 27, eguenera, 4: 17:00.

Grandes esperanzas
Eguaztenetik, 27, eguenera, 4: 18:45, 21:30.

Los últimos días
Eguaztenetik, 27, eguenera, 4: 17:30, 20:00, 22:30.

Oz, un mundo de fantasía
Eguaztenetik, 27, barikua, 29: 17:15.
Zapatua, 30, eta domeka, 31: 12:00, 17:15.
Astelehenetik, 1, eguenera, 4: 17:15.

Anna Karenina
Eguaztenetik, 27, eguenera, 4: 20:00, 22:30.

Por la cara
Eguaztenetik, 27, eguenera, 4: 18:45, 22:30.

Los amantes pasajeros
Eguaztenetik, 27, eguenera, 4: 17:00, 20:45.

GORBEIA

G.I. Joe: La Venganza 3D
Eguaztena, 27: 19:30, Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 16:35, 18:50, 21:05, 23:20.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 17:30, 19:45, 22:00.

G.I. Joe: La Venganza

Eguaztena, 27: 18:30, 20:45.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 18:15, 20:30, 22:45.

Grandes esperanzas
Eguaztena, 27: 18:30, 21:10.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 16:00, 18:35, 21:15, 23:50.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 17:30, 20:00, 22:30.

The Host
Eguaztena, 27: 19:00, 21:30.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 17:30, 20:00, 22:30.

Parker
Eguaztena, 27: 21:40.
Eguenetik, 28, barikua, 4: 20:20.

El chico del periódico
Eguaztena, 27: 19:15.
Eguenetik, 28, barikua, 4: 20:30.

Los Croods 3D
Eguaztena, 27: 18:40.
Eguenetik, 28, barikua, 4: 15:30, 17:35, 19:40.

Los Croods
Eguaztena, 27: 19:40, 21:45.
Eguenetik, 28, barikua, 4: 16:30, 18:35, 20:40, 22:45, 00:50.

Oz, un mundo de fantasía
Eguaztena, 27: 19:10.
Eguenetik, 28, barikua, 4: 15:30, 17:55.

Por la cara
Eguenetik, 28, barikua, 4: 22:00, 00:20.
Una bala en la cabeza
Eguenetik, 28, barikua, 4: 20:40, 22:40, 00:40.

Hansel y Gretel
Eguenetik, 28, barikua, 4: 22:45, 00:40.

Argo
Eguenetik, 28, barikua, 4: 22:35, 00:50.

El lado bueno de las cosas
Eguenetik, 28, barikua, 4: 18:20.

Jack el Cazagigantes
Eguenetik, 28, barikua, 4: 15:45, 18:10.

Rompe Ralph!
Eguenetik, 28, barikua, 4: 16:15.

BOULEVARD

G.I. Joe: La Venganza 3D
Eguaztena, 27: 18:30, 19:15, 20:45, 21:30.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 15:30, 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 17:30, 18:10, 19:45, 20:25, 22:00, 22:45.

Los últimos días
Eguaztena, 27: 19:00, 21:05.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 15:50, 17:55, 20:00, 22:05, 00:10.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 17:55, 20:00, 22:05.

Dando la nota
Eguaztena, 27: 18:55.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 18:10.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 18:00.

Los amantes pasajeros
Eguaztena, 27: 21:15.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 20:25, 22:15, 00:15.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 20:40, 22:40.

Los Croods
Eguaztena, 27: 18:45, 20:45.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 18:30, 20:30, 22:30.

Los Croods 3D
Eguaztena, 27: 19:20.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 15:45, 17:45.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 17:45.

The Host
Eguaztena, 27: 19:00, 21:30.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 17:45, 20:15, 22:45.

Oz, Un mundo de fantasía
Eguaztena, 27: 18:30, 21:15.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 15:40, 18:15, 20:50, 23:25.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 17:30, 20:05, 22:40.

Por la cara
Eguaztena, 27: 21:35.
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 21:45, 00:00.
Martitzenetik, 2, eguenera, 4: 19:45, 22:00.

El lado bueno de las cosas
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 15:30.

Mamá
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 00:50.

Rompe Ralph!
Eguenetik, 28, astelehenera, 1: 16:00.

KRITIKA



LOS CROODS ★★★★★

Zuzendaria: Kirk DeMico, Chris Sanders.

Herrialdea: Estatu Batuak.

Urtea: 2013.

ekoiztetxea: DreamWorks animation.

Iraupena: 98 minutu.

Historiaurreko 'road movie'-a

Porra heltzean karteldegian hurrei zuzendutako filmak agertzen dira. Horietako askotxo marrazki bizidunak izaten dira eta azkeneko urteetan 3Dn egindako filmak bueltatu dira. Aurtengo Aste Santurako *Los Croods* estreinatu da, 2D eta 3Dko kopiekin. Filma Historiaurrean kokatzen da eta istorioaren protagonista familia bat da: gurasoak, seme-alabak eta amama. Aita familiaren segurtasunaz arduratzen da eta hori lortu nahian azaltzen dituen ideiak eta ohiturak nahiko kontserbadoreak dira. Alaba helduenak bizimodu desberdina ezagutu nahi du eta gaztea izateak dakarren bihurkeria azaltzen du. Eta hor sortuko da

gatazka belaunaldi desberdinetako pertsonaiekin: aita, alde batetik, eta, bestetik, alaba eta istorioan agertuko den mutil gaztea. Honi guztiari gehitu behar diogu garai horietan ematen ziren klimaren eta naturaren aldaketak eta animalien agerraldi arriskutsuak. Familiak bere kobazulotik irten beharko du bizimodu berri baten bila. Los Croodsek *road-movie*-en egitura hartzen du. Bidaian topatzen dituzten oztopo eta arriskuek familiaren harremanak sendotuko dituzte. Teknikari dagokionez, filma maisutasunez dago eginda. 3Deko efektu ikusgarriak ditu, kolore asko eta ekitntza eszenak erritmo onez zuzenduta daude.

Hurrek gustuko izango dituzten pertsonaia berriak agertzen dira, baita dibertigarriak eta barregarriak diren goerak. Dena den, filma apur bat errepikakorra suertatzen da. Pertsonaiek bidaian topatzen dituzten ustekabeak gaintitu beharko dituzte eta bata gaintituta beste bat agertuko da. Horrela *Los Croods* ez da aspergarria egiten, eszena guztiak oso modu ikusgarria filmatuz daudelako, baina kontaktuz zaiguna kontatzeko, minutu gehiegi erabiltzen dituela ematen du. Halere, hurrek gustura ikusiko dute Historiaurrean kokatutako filma.

ANTONIO ZABALA



goiena

2013-03-27

BUKATZEKO

Euskal mitologia eta teknologia, eskutik

- ▶ Pernan Goñi oñatiarrak 'Basajendea' smartphoneendako aplikazioaren gidua eta marrazkiak egin ditu
- ▶ Euskal mitologiako pertsonaiak erakusten dituen ipuin interaktiboa da eta umeei dago zuzendua

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Euskarazko aplikazioak ari dira poliki-poliki smartphone edo adimendun telefonoetara iristen; Bada, horietako bat da *Basajendea*. Euskara hutsean umeei zuzendutako ipuin interaktiboa da, ondo pasatzeko eta ikasteko balio duena, euskal mitologiaren pertsonaiak ezagutzeko, hain justu ere.

Bilboko Dada Company enpresak Gabonetan kaleratu zuen euskarazko aplikazioa, baina honek ere badu Debagoieneko ukitura; Pernan Goñi oñatiarrak emandako ukitua. Hura izan da ipuin interaktiboaren giduiaz eta ilustrazioz arduratu dena. Horrelako ipuin interaktibo bat egiten duen lehenengo aldia izan den arren, eskarmentu handiko marrazkilaria da Pernan Goñi eta mugikorren eta bideojokoen mundua oso ondo ezagutzen du. Hortaz, ez da lan arrotza izan harendako: "Euskal mitologiaren inguruko komikiak egiten ditut. Horrez gain, hamaika saltsatan sartuta ibiltzen naiz eta mugikorrendako animazioak eta jokoak egin izan ditut Kukuxumuxurendako. Bideojokoendako animazioak ere egin izan ditut", kontatu digu oñatiarrak.

Pernan Goñi oñatiarra *Basajendea* tableta batean erakusten. | UNAI GARTZIA

Hamalau pantaila

Ipuin interaktiboa hamalau orrik osatzen dute eta horietako bakoitzean euskal mitologiako pertsonaia bat aurkezten da: "Testu txiki baten bidez pertsonaiaren gaineko ezaugarriak ematen dira, eta, horrez gain, pantaila ukituz gero, ahots batek pertsonaiaren gaineko beste kontu batzuk ere esaten ditu".



Sorginaren gaineko azalpenak. | P.G.



Aplikazioaren pantaila bat. | PERNAN GOÑI

Erantzun ona

Goñi pozik dago ipuinak izan duen erantzunarekin. "Feedbacka oso ona izan da eta gehienek esan digute neska-mutikoei asko gustatu zaiela. Pozik gaude". Dena dela, oñatiarrak kontatu digu euskarak, tamalez, asko mugatzen duela horrelako proiektuen bideragarritasuna: "Horrelako proiektuak bideragarriak izan daitezten asko saldu behar dira, deskarga asko lortu. Euskal komunitatea oso txikia da. Horrelako aplikazioak bideragarri izateko, akaso, hiru hizkuntzatan egin behar dituzu".

Basajendea App Storen eta Google Playn eskura daiteke eta Iphone, Ipad eta Androiden mugikor eta tabletetan erabil daiteke.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Eskozia... Euskal Herria

gandean Baionan izan nintzen Korrikaren bukaeran eta barruraino sartu zitzaidan Amets Arzallusek idatzitako eta bertan irakurritako mezua. (...) "Herri hau ere edo euskaraz pentsatuko dugu edo ez da izanen", besteak beste. Eta herri hau edo da edo ez da euskaraz biziko, pentsatu nuen nik. Biak ere guztiz elkar lotuta baitaude.

Astean jakin dugu Eskozian jarri dutela erabakitze-eskubidea gauzatzeko data. Katalanak ere buru-belarri ditugu independentziarako bidean jarriko dituen bide-orria lantzen.

Datorren igandean, berriz, Aberri Eguna dugu Euskal Herrian. Iruñera joango naiz ni Independentisten deialdira herri hau izanen delako.

Euskal Herrian erabakitze-eskubidea gauzatzeko bidean lan handia daukagu egiteko oraindik; baina inguruko haizeak aldeko ditugu eta gure esku dago bide hori lehenbailehen egitea. Indarrak batu eta etorkizuna erabakitze dugu eskubidea aldarrikatu eta beharrezkoa bada, nik hala uste dut, aldebakartasunez gauzatu. Badugu beraz, eskoziarren eta katalanen bidetik geure bide propioa egiteko aukera.

"Herri hau erditu nahi badugu, inork erditzekotan, ama-hizkuntzak erdituko gaitu", bukatu zuen Ametsek.

Erditu beza, bada.



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 10 18:00
Maiatzak 25 11:00



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2013-2014

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91